



•eus
Jakin 243

herria kultura hizkuntza martxoa-apirila
2021

Gazteak eta politika

ANE LARRINAGA

IKER IRAOLA

ONINTZA ODRIOSOLA

MILA AMURRIO

JULEN ZABALO

MADDALEN EPELDE

Garai baten mugetan

ANDONI OLARIAGA

Mahai ingurua: Aitana Agirre,
Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando,
Unai Martinez eta Naiara Rodriguez

ANDER BARANDIARAN

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDEGAIN

JAIME ALTUNA RAMIREZ

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

Jakin^{•eus}**243**
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila
2021



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Gazteak eta politika

- 11** Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai
Ane Larrinaga Renteria • Iker Iraola Arretxe
Onintza Odriozola Irizar • Mila Amurrio Velez
Julen Zabalo Bilbao • Maddalen Epelde Juaristi

Gazteen eta politikaren arteko harremana modu askotan irudikatu da garaia eta ingurune sozialaren arabera. Aldi batzuetan, gazte erreboltariak izan dira nagusi irudikapen sozialean. Gaur egun, ordea, badirudi gazte axolagabe eta indibidualisten estereotipoa zabaldu dela gure artean. ‘Gazteriaren’ ikuspegi unibokoa ematen duten errepresentazioak alde batera utzita, artikuluan teknika kualitatiboak erabiltzen dira Hego Euskal Herriko era askotako gazteek bizi izan duten sozializazio politikoa aztertzeko. Hortik abiatuta, eta gazteen beraien kontakizunak aintzat hartuta, gazte horietako batzuek gaur egun politikari ematen dizkieten esanahiak eta esparru politikoan gauzatzen dituzten praktikak zehazten dira.

67 Garai baten mugetan
Andoni Olariaga Azkarate

Garai postmodernoetako krisiak dira aztergai, ikuspuntu historikoa, filosofikoa eta politikoa uztartuz, Euskal Herriko begiradatik. Modernitate ostearen ajeak eta mitoak aztertzen dira, eta horiek egungo belaunaldi berrien eztabaidetan duten eragina.

81 Konpromisoa krisi garaiotan

Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando, Unai Martinez eta Naiara Rodriguez

Ander Barandiaran Ziordia

«Zer jakinen dute gazteek?». Ez omen zaie ezer inporta, ez omen daude gizarteko gaiei buruz erabakiak hartzeko prest. Zer izanen dute, beraz, esateko? Bada, badute esateko ugari. Gizarteaz, gazteriaz eta horren parte hartze politikoaz. Horren inguruko analisi zabala egiten dute EGiko Aitana Agirrek, LGTBIQ+ mugimenduko Iñigo Etxezarretak, Ernaiko Izar Hernandok, GKSko Unai Martinezek eta mugimendu feministako Naiara Rodriguezek.

EGUNEN GURPILEAN

117 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

123 Soziolinguistika
Jaime Altuna Ramirez

129 Glokalia
Iñigo Martinez Peña

KONTRAZALA Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

YOUNG PEOPLE AND POLITICS

Study into relationships between young people and politics

The relationship between young people and politics has been conceived in numerous ways depending on the era and social context. In some eras, the notion of the young rebel has predominated in terms of social image, although at the present time, in contrast, the stereotype of the disinterested, individualistic young person would appear to prevail. Leaving to one side any depictions that may provide a univocal standpoint of youth, Ane Larrinaga Renteria, Iker Iraola Arretxe, Onintza Odriozola Irizar, Mila Amurrio Velez, Julen Zabalo Bilbao and Maddalen Epelde Juaristi, members of the Parte Hartuz Research Group at the University of the Basque Country, use qualitative techniques to analyse the political socialization experienced by young people from the Basque Country in all its diversity. The meaning those young people give to politics and the practices pursued within the political sphere of activity are described in detail, based on this analysis and what they recount themselves. [Ane Larrinaga Renteria](#) • [Iker Iraola Arretxe](#) • [Onintza Odriozola Irizar](#) • [Mila Amurrio Velez](#) • [Julen Zabalo Bilbao](#) • [Maddalen Epelde Juaristi](#)

Within the limits of an era

The Doctor of Philosophy Andoni Olariaga Azkarate analyses the crises of the post-modern eras from a historical, philosophical and political standpoint, viewing this from the perspective of the Basque Country. The author analyses the unease and myths surrounding post-modernity and the influence they have over debates among current new generations. [Andoni Olariaga Azkarate](#)

Commitment in these times of crisis. Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando, Unai Martinez and Naiara Rodriguez

«What do young people know?». It would appear that they don't care, they're not willing to take decisions about social issues. And so, do they have anything to say? In reality, many things – about society, about youth and about their political participation. Aitana Agirre Loiarde (EGI), Iñigo Etxezarreta Toca (LGTBIQ+ movement), Izar Hernando Ibero (Ernai), Unai Martinez Crespo (GKS) and Naiara Rodriguez Garayar (feminist movement) conduct a wide-ranging analysis of all these issues at a round table moderated by Ander Barandiaran Ziordia, technician for the Youth Parliament of Navarre. [Ander Barandiaran Ziordia](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain, Jaime Altuna Ramirez and Iñigo Martinez Peña. [Various authors](#)

Gazte gera gazte eta ez gaude konforme, kantatzen zuen Lourdes Iriondok 70eko hamarkadaren bueltan. Orduan bezala, gaur ere, konforme gazte gutxi egongo da; besterik da konforme ez egote horrek zer forma hartzen duen, nola adierazten den eta zer dakarren. Bizi gaituen krisi orokorrak eta neoliberalismoaren indartzeak ematen dio, segurutik, izateko arrazoia, ulertzeko nolakotasuna eta bere egiteko jarrera konforme ez egote horri. Gazteen eta parte hartze politikoaren arteko aukia argiki xehatzen dute Aitana Agirrek (EGI), Iñigo Etxezarretak (LGTBIQ+ mugimendua), Izar Hernandok (Ernai), Unai Martinezek (GKS) eta Naiara Rodriguezek (mugimendu feminista), Jakinek, Ander Barandiaran Nafarroako Gazte Parlamentuko teknikariak gidatuta, antolatu duen mahai inguruan. Xedea hauxe zen, politikan parte hartzen duten bost gazteren zuzen-zuzeneko hitz, pentsamendu eta lekukotza jasotzea, EHUKo Parte Hartuz taldearen ikerketaren parera ekartzeko. Gazteok pausatzen dituzten auziak eurak ez dira, agian, erabat berriak, baina galderak ziurrenera bai, eta, horrenbestez, baita erantzunak ere.

Agian, gazteen unibertsoan, dena dago inoiz baino gehiago lotuta, nahastuta, elkar eraginean, aliantzan, dena trans izate, egote eta egite batean, Unai Iturriagak kontrazalean marraztu duen gaztea bezala, trantsitatzen, joan badoan modu batean. Iturriaga bera bezala, honako hauxe baitu bere azken kontrazala, sei urtetan zehar, zenbakiz zenbaki, jardun eta gero. 33 kontrazal, 33 artikuluko grafiko. Denak batera, argazki panoramiko bat, euskal munduko auzi eta gaien almanaka bat. Mila esker, Unai, ekarpenaren handiagatik.

Izan, gazteen parte hartze politikoaren gaia konplexutasun eta garrantzi handikoa da inondik ere, eta modu konplexuan aztertu beharrekoa halabeharrez, EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeko Ane Larrinagak, Iker Iraolak, Onintza Odriozolak, Mila Amurriok, Julen Zabalok eta Maddalen Epeldek egin bezala. Argazki argigarrria da agertzen dutena: xehetasunez josia, kontraesanetan osagarria eta orokorkeriak eta «gazteek denetaz paso egiten dute» edota «gazteak ez dira engaiatzen» bezalako lelo topiko maiseatuak desmuntatzen dituen. Egia da gazteei talde identitate sozial eta

politikoak helaraztea lehen baino zailago bilakatu dela, Mendebaldean oro har eta baita Euskal Herrian ere. Baina, gurean, badira ezaugarri propio batzuk, esate baterako aberrigintzari lotutako tradizioak –ETA ondorengo garaiotan ere–, halako galga bat jartzen diotenak gazteen arteko politikarekiko desafekzioari. Hala ere, galderak eta kezkek begi-bistakoak dira, eta Andoni Olariagak osatu duen artikuluan hona botatzen du begia, ziurgabetasun eta krisi orokorreko garaiotan, Euskal Herriak iraungo –balioko– ote duen izurrite biologiko, kultural, etiko eta linguistikoei aurre egiteko paradigma gisa –halaberrez aldatua, berritua, birmetaforizatua–.

Bestalde, desafekzio politikoa komatxo artean jarri beharrekoa da. Izan ere, parte hartze politiko ezak edo apolitikotasunak ez du beti kezka eza edo jarrera eza edo are engaiamendu eza esan nahi. Parte hartze politikoaren definizio hegemonikotik harago, badago parte hartze politikorik. Eta, gainera –ikerketaren beste ondorioetako bat da–, generoak, klase sozialak eta kapital kulturalak interes eta parte hartze politikoaren iragarle onak izaten jarraitzen dute, bai esparru instituzionalean, bai informalean. Hau da, gazteriaren deskonexio zibikoa eta politikoa bazterketa sozialaren beste dimentsio bat bezala har liteke –‘intentsitate txikiko herritartasuna’ terminoa azpimarragarria egin zaigu–.

Ikusten denez, zerbaki mamitsua da esku artean duzun hau, zer pentsatua eta zer gogoetatua ematen duena. Gai monografikoaz gainera, ohiko moduan, *Egunen gurpilean* saila Maialen Akizuk, Jaime Altunak eta Iñigo Martínez Peñak osatu dute, kulturaz, soziolinguistikaz eta pentsamenduaz artikulua banarekin, hurrenez hurren.

GAZTEAK ETA POLITIKA

11 Oraingo gazteak axolagabe?
Gazteen eta politikaren arteko
harremanak aztergai

Ane Larrinaga Renteria

Iker Iraola Arretxe

Onintza Odriozola Irizar

Mila Amurrio Velez

Julen Zabalo Bilbao

Maddalen Epelde Juaristi

67 Garai baten mugetan

Andoni Olariaga Azkarate

81 Konpromisoa krisi garaiotan

Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando,

Unai Martinez eta Naiara Rodriguez

Ander Barandiaran Ziordia

Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai

Ane Larrinaga Renteria

Iker Iraola Arretxe

Onintza Odriozola Irizar

Mila Amurrio Velez

Julen Zabalo Bilbao

Maddalen Epelde Juaristi

UPV/EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak

Orrialde hauetan aurkezten dugun gaia 2018 eta 2019 urteetan Hego Euskal Herrian egindako ikerketa batean oinarrituta dago.¹ Ikerketa horren helburu nagusia Bizkai, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako gaur egungo belaunaldi gazteek politikarekin duten harremana aztertzea izan da, beren haurtzarotik gazte-trantsizioetara arteko ikasketa, ibilbide eta praktika politikoetan arreta jarrita.

Helburu hori erdiesteko, era eta ezaugarri askotako gazteen iritziak, jarrerak eta bizi esperientziak jaso nahi izan ditugu. Hartara, gazteen narrazioak hartu dira ondorengo azterketaren abiapuntu. Ikerketa kualitatiboa izanik, bi teknika mota erabili ditugu informazioa hartzeko: sakoneko elkarrizketa erdi egituratuak, batetik, eta eztabaida taldeak, bestetik.

Zenbait kontzeptu teoriko zedarritu ostean (hala ‘gazte’ nola ‘parte-hartze politiko’ kontzeptu konplexu eta eztabai-datuak), gizartean egon daitekeen aniztasuna ahalik eta ondoen islatu asmoz, hainbat adierazle erabili dira gazte horien soslaiak osatzeko: besteak beste, lurraldea, jatorri soziala, sexu-genero kategoria, hizkuntza, adin tartea, politizatze-maila eta partaidetza-politiko mota edo partaidetzarik eza, beren adierazpen desberdinetan.

Guztira, 31 sakoneko elkarrizketa eta 4 eztabaida talde egin ditugu. Horrenbestez, soslai desberdinetako 63 gazteren iritzia eta bizipen politikoak bildu dira ikerketan. Lerro hauek baliatu nahi ditugu guztiei eskertzeko eskaini diguten denbora eta agertu diguten prestasuna. Izan ere, beren ahotsak osatu dute ikerketaren muina.

Ondoren aurkezten ditugun hiru ataletan, ikerketa orokor horretatik hautaturiko hiru gai landuko ditugu. Lehen atalean, gazteek helduarorako trantsizioetan burutu dituzten ibilbide politikoak azaltzen dira; ibilbide horien aniztasuna atzeman eta ulertu ahal izateko, eredu nagusi batzuk eraiki eta bereizi ditugu. Bigarren atalean, berriz, beren burua ‘politizatutzat’ jo duten gazteen arteko azpitalde bat hartu dugu aztergai: hain zuzen ere, ohiko bide politiko instituzionaltatik at aktibista edo ekintzaile modura jarduten dutenen multzoa. Izan ere, sorkuntza eta berrikuntza politikorako gaitasun handia izanik, interesgarri jo dugu talde horrek sistema politikoaren ertzetan egiten dituen esperimentazioak aztertzea. Azkenik, parte-hartze politikoaren beste muturrea joanda, hirugarren atalean, beren burua ‘ez-politizatutzat’ duten gazteen multzoan jarri dugu fokua, gaur egun gazte jendearen artean hain ohikoa den jarrera horren atzean egon litezkeen askotariko esanahiak ulertze aldera.

Ikaskuntza eta ibilbide politikoak gazte-trantsizioetan

Ikerketan elkarrizketaturiko pertsonak bi multzotan sailkatu dira. Batetik, beren burua politizatutzat edo konprometitutzat hartu duten gazteak daude; bestetik, politikatik deskonektaturik sentitzen direnak. Bi multzo horiek beren helduarorako trantsizioetan egindako ibilbide ereduak aztertuko dira ondoren.

Lehen ibilbide ereduak: ‘politizatuak’ edo ‘engaiatuak’

Nola iritsi dira gazte politizatuak partaidetza politikora? Zein ibilbide egin dute gaur egun politikarekin duten harremana edo ‘konpromisoa’ eraikitzeko? Zer-nolako partaidetza erreperitorioak gauzatu dituzte ibilbide horietan? Galdera horiei erantzun nahian, gazte multzo honen barruan hiru eredu atzeman ditugu, partaidetza esperientziei dagokienez: 1) lehenik, badira sistema politikoaren ohiko erakundeetatik at aktibismo politikoan murgildurik dabilzan gazteak, hau da, mugimenduetan eta gizartean sortutako era desberdinetako ekimenetan dihardutenak; azken horietako batzuek, gazte helduagoak izanik, beren lan jarduera ere aktibismoaren barnean hartu dute; 2) bigarrenik, badira ohiko alderdi politikoetan eta sindikatuetan aritzen diren pertsonak; 3) azkenik, mugimendu asoziatiboan, elkartean eta era askotako boluntariora jardueretan dabilzanak ere badira. Multzo horietako bakoitzean jarriko dugu arreta jarraian.

Herri ekimenak

Elkarrizketaturiko gazte politizatu gehienek herri ekimene-tatik sortutako mugimenduetan hasi eta garatu dute haien praktika politikoa. Nonbait, mugimendu horiek familian bizi izandako lehen sozializazio politizatuaren jarraipen ‘naturala’ izan dira sarritan, etxeoengandik jasotako kapital politikoa dela medio. Beren inguruan bizi izan duten errepresioaren

pertzepzioak eta euskal gatazka politikoari buruzko ikuspegi jakin batek (non gazte errebolitariaren irudikapena oso zabaldua egon den) hurbildu dituzte gune horietara. Hala, gazte horietako gehienek institutu- eta unibertsitate-garaian egin zuten aktibismorako lehen jauzia, 14-18 urte bitartean: batzuk ikasle mugimenduan sartu ziren; beste batzuek beren auzo eta herrietako gazte asanbladetan eta gaztetxeetan izan zuten lehen esperientzia zibiko-politikoak; eta hirugarren multzo bat protesta-mobilizazioetan parte hartzen hasi zen (mugimendu feministaren ekimenak, preso politikoen aldekoak, etxebizitza eta pentsio duinen aldekoak, LOMCeren kontrakoak... aipatu dituzte).

Ekimen hertsiki politikoetan ez ezik, bestelako esparru batzuetan ere parte hartzen zuen gazte horietako askok lehen gaztaroan, esparru sozialean eta kulturean esaterako, eta,

Elkarrizketetan aitortzen dutenez, harreman-sare politizatueta sartzea eta horien baitan politikoki esperimentatzea erabakigarria izan da gazteen geroagoko partaidetza politikoen bilakaeran

beraz, inplikazio handia zuen bizitza komunitarioan. Dantza taldeak, bertso eskolak, jai herrikoien antolaketa taldeak, hezitzaile lanak aisialdi eta kirol taldeetan, eta antzeko hainbat jardura aipatu dituzte beren ibilbide goiztiarrean. Bada, Euskal Herrian urte luzez garatutako kultura politiko kontrahegemonikoaren ezaugarrietako bat askotariko mugimendu eta organizazio sektorialen hedapena izan da.

Soslai horretako gazte gehienek lagun taldearekin batera eman zuten aktibismorako lehen pausoa, nahiz eta baten batek ekimen propioz ekin zion bide horri. Oro har, etxeko hasierako eraginaz gain, beren hurbileko testuinguru sozialean sortutako premiek eta dinamikek (ikasle giroak, herriak edo auzoak eta, bereziki, lagunarteak) lagundu zieten hastapenetako urrats horietan. Aktibismorako eta partaidetzarako gune horiek

berdinen arteko ikasketa bultzatu dute. Zalantzarik gabe, izan duten eduki politikotik at, berdinen arteko soziabilitatea garatzeko eta beste gazte batzuekin harreman sareak osatzeko balio izan diete ikasketa gunek horien lehen gaztaroan.

Lehenbiziko esperimentazio politiko horrek harreman-sare politizatuak (eta, hartara, kapital soziala) eraikitzeko bidea eskaini zion gazte haiei askori. Eta, ezagutza eta gaitasun multzoa metatu ondoren, harreman horiek eman zieten bidea beste erakunde eta mugimendu antolatuetara batzuetara jauzia egiteko: gazte mugimendura, mugimendu feministara, euskararen aldeko mugimendura, mugimendu ekologistara, jai herrikoien aldeko ekimenetara, okupazio mugimendura eta erabakitze eskubidearen aldeko mugimendura, besteak beste. Izan ere, ikasketa horren ondorioz, *habitus* edo disposizio aktibista batzuk barneratu ahal izan dituzte gazteok: mundu politikoan nahiz esparru publiko sozialean aritzeko trebetasunak, gaitasunak eta ezagutzak, hain zuzen ere. Beste modu batera adierazita, herritar aktiboaren rola eraikitzen hasi dira adin goiztiarreen, baina ez urrunetik, ez ezagutza formal batetik abiatuta, ez hedabideen edo Interneten bitartekaritzaren bidez jasotako irudietan oinarriturik, baizik eta norberak ekintzen bitartez esperimentatuko abiaburu hartuta. Bada, ikasitako abildade horiek guztiak eta eraikitako harremanak aintzat hartu gabe ezin da ulertu gazte horien ibilbide politikoa ezaugarritzen duen multiaktibismoa. Elkarriketetan aitortzen dutenez, harreman-sare politizatueta sartzea eta horien baitan politikoki esperimentatzea erabakigarria izan da gazteen geroagoko partaidetza politikoen bilakaeran. Ikasketa politiko-instrumental hutsetik haragoko elkartasun harremanak eraiki dituzte, eta afektuz nahiz emozioz betetako esperientzia kolektiboak bizi izan dituzte prozesuan, gazteen bizitzak markatu dituztenak gerora.

Ildo horretan gehiago sakonduta, elkarriketatuen diskurtsoetan ikusi dugunez, herri-mugimenduetako gazteen lehen esperimentazioan nabarmena izan da ezker abertzalearen kultura politikoaren eta organizazio-ehunaren eragina.

Urteetan gizartean landutako kultura politiko kontrahegemonikoa eta hura sostengatu duten harreman sozial trinkoak gazte askoren trebakuntza soziopolitikorako mintegi izan dira, zalantzarik gabe. Era askotako organizazio- eta mugimendu-sareek aukera objektiboak eskaini dizkiete gazteei zuzenean parte hartzeko, hain zuzen ere, beren autonomia eta identitatea eraikitzen ari ziren urteetan. Organizazio horiek lagundu diete gazteei aktibismo-mota horrek sortutako beldurra gainditzen ere. Bestalde, gizarteko sektore horrek jasotako errepresioak (gazte helduenek zuzenean ezagutu dutena) trinkotu egin ditu euren arteko komunitate harremanak. Horrek ez du esan nahi gazte horiek guztiek geroztik organizazio edo espektro ideologiko horretan jarraitu dutenik. Aitzitik, gerora, gazte horietako batzuek beste partaidetza eta engaiamendu politiko batzuetarako trantsizioa egin dute. Are gehiago, zenbait gazte gaur egun kritiko agertzen dira 'bizi' izan dituzten organizazioekin, baina ez dute ukatzen horietan eskuratutako esperientziek eta jasotako balioek ondoren izan duten eragin erabakigarria beren engaiamendu eta ibilbide politikotetan.

Ezker abertzalearen orbitatik at egonda politizatu diren beste gazte batzuentzat, partaidetzarako lehenbiziko aukera ekimen politiko berrien sorrerak zabalduetako atetik etorri da. Hala gertatu zaie Espainiako eremu politikoa beren jarduerarako esparrutzat jotzen duten gazte batzuei. Ildo horretatik, arestian aipatu dugun gazte taldeaz gain, beste gazte multzo txikiago batek M-15 mugimenduaren harreman sarean garatu du bere lehen aktibismoa. Horrela, aldeztu aurretik etxean edo inguru komunitarioan partaidetzarako pizgarririk izan ez duten edo aukerarik hauteman ez duten batzuentzat M-15a mugakaria izan da beren hastapen politikoan. Izan ere, M-15ak irekitako protesta zikloa eta esperientzia horretan ikusitako aldaketarako aukerak politikan sartzeko eta aktibo izateko eragile nagusiak izan dira euren zatitza. Horrela, mobilizazio horien ondorioz hasi dira batzuk kaleko protestetan parte hartzen eta, hortik abiatuta, beren

lehen sare politikoak eraikitzen. Sare horiei esker, jauzi egin ahal izan dute gero Elkarrekin-Podemos alderdira, bazterketa sozialaren aurkako plataformetara, elikadura- eta ekonomia-burujabetza bultzatzen duten taldeetara edo bestelako ekimen batzuetara.

Instituzio politikoak

Orain arte aipaturiko gazteez gain, politizatuen artean badago elkarrizketatutako beste talde bat ohiko instituzio politikoen bidea hautatu duena, eta sindikatu eta alderdi politikoetan dabilena. Sindikatuetan, alderdi politikoetan edo alderdi horien gazte organizazioetan jarduten duten gazteei dagokienez, esan genezake gehien-gehienak goiz sartu zirela alderdien gazte erakundeetan, 16-18 urterekin. Horien artean ere, gehienek bestelako ekimen sozialetan, elkartean edo boluntariotzan esperientzia izan dute formalki afiliatu aurretik edo afiliatu ondoren. Organizazio horietako batzuk ez dira izan herri ekimenez sortuak (ezker abertzalearen organizazio-sarean gertatzen den bezala), Espainiako esparruko mundu zibiko-politiko instituzionalari loturikoak baizik: Gurutze Gorria eta Espainiako Gazteriaren Kontseilua, esaterako. Baina, zenbaitetan, gazteok aritu dira bestelako tokiko ekimenean ere: etorkinekin lanean, Sahararen aldeko elkartean, haurren aisialdirako begirale edo entrenatzaile modura, eta abar. Hartara, salbuespenen bat kenduta, multiaktibismoa eta hainbat sare sozialetan jasotako eskarmentua da beraien ezaugarrietako bat. Beraz, ildo horretako gazteei dagokienez ere, berriz ikusten dugu bai familiaren eragin erabakigarria, bai askotariko sare zibiko eta politikoetan eskuratutako kapital politikoaren metaketa adin oso goiztiarretan.

Batzuek aipatu dute inguru sozial zehatz batean hazi izanak eurengan izan duen eragina; ezkerreko alderdiei dagokienez, adibidez, herri edo auzo industrialetan eta langile kontzientzia izan duten komunitateetan bizi izana. Gehienbat,

familiaren bidez helarazitako tradizio politikoaren eragina sumatzen da beren hautuetan. Ikusi izan dugunez, aurrekariak zituzten familian (aita, ama edo senideren bat afiliatua edo karguduna sindikatuan edo alderdi politikoan, etxean jasotako balio edo ideologia jakin batzuen eragina, eta abar). Familiaren edo guraso batzuen eragin hori modu desberdinetan hezurramitu da ildo ideologikoaren arabera: batzuek txikitan ETaren atentatuek familian eragindako zirrara eta gaitzespena dituzte gogoan; beste batzuek oroitzen dute senideekin batera txikitatik alderdiaren ohiko ekimenetan parte hartuta egin duten bizitza komunitarioa. Hainbestearainokoa da eragin hori, ezen elkarrizketetan aitortutakoaren arabera, kasu batzuetan familiak berak edo familiako kide batek proposatu baitziren zuzenean afiliazioa. Lagunen edo berdinen influentzia ere agertzen da sarri, nahiz eta eragin horrek ez duen hartzen familiaren indar maila bera.

Jakina, alderdi politikoetan eta sindikatuetan integratu diren gazteek bat egiten dute erakunde horien ildo ideologikoarekin eta jardunarekin. Onartzen dute horrelako instituzioek organizazio bertikal eta burokratikoa izan ohi dutela, eta gazteen eta alde aurretik egitura horietan dauden pertsona helduen arteko harremanetan tentsioak izaten direla batzuetan. Gazteek aldaketak egiteko joera handiagoa izaten dute, eta egitura horietan aldaketen aurreko erresistentziak egoten dira, behin baino gehiago. Ildo horretatik, belaun arteko txandatzea gertatzen ari dela uste dute batzuek, eta, horrela, organizazioen kultura ere, apurka-apurka, aldatzen ari dela. Bestalde, instituzio horietako emakume gazteek, beren aldetik, antolakuntza-kultura patriarkalak aurkitu dituzte hastapen politikoetan, eta aitortzen dute oraindik urrats handiak egin behar direla parekidetasunean eta zuzentasunean oinarrituriko barne funtzionamendua lortzeko, nahiz eta lorpen handiak ere erdietsi diren azken urteotan. Afiliatu gazteetako batzuek denbora osoz lanean jarduten dute organizazioaren barruan, beste batzuek lanaz aparteko jarduna burutzen dute horien alde. Nolanahi ere, denak integratu dira alde aurretik ezarrita zeuden kargu

eta organigrametan, eta ardura organiko horien berri eman dute elkarrizketetan. Ildo horretatik, sarrera unetik garatu duten ibilbidea gazte-gaztetarik ardura politiko gero eta handiagoak hartuta osatzen joan da. Modu horretan, zenbaitek alderdiaren maila-zerrendan gora egite progresiboarekin identifikatu du, besteak beste, ibilbide hori. Hala ere, 'karrera politikoaren' irudikapen horrek ez du ezkutatu behar, alderdie-tako nahiz sindikatueta-ki-deek antolakuntza-egiturari zor dioten leialtasun organikoaz gain, harekin daukaten atxiki-mentu emozionala eta esleitzen dioten komunitate-zentzua. Alderdi politikoak egitura politiko bat edo lantoki bat baino askoz gehiago dira bertan afiliaturik eta lanean ari diren gazteentzat, identitate-emaile esanguratsua dira.

Politika instituzionalean murgildu diren partaide horien kezketako bat gaur egungo gazteek alderdiei eta, oro har, instituzio soziopolitikoei buruz duten ikuspegi ezkorra da. Horrek, batzuetan, kontraesanak sortzen dizkie. Neurri batean, onartzen dute gaur eguneko gazte gehienek zaharkituta-ko egituratzat jotzen dituztela alderdiak eta sindikatuak, kritikak jasotzen dituztela itxura txarra ematen dutelako, eta gazte askok nahiago izaten duela gai sektorialetan edo kausa zehatzetan jardun. Halaz ere, kritikak kritika, multzo horretako gazteek ikuspegi pragmatikoa dute instituzioetatik egiten den edo egin daitekeen politikagintzaz. Izan ere, uste dute, gaurdaino, alderdi politikoak nahiz sindikatuak izan direla lorpen politikoak eta sozioekonomikoak erdiesteko tresnarik eraginkorrenak. Hartara, erakunde horiek egiten duten bitartekaritza lanean jartzen dute beren ahalegin guztia.

Politika instituzionalean murgildu diren gazteen kezketako bat gaur egungo gazteek alderdiei eta, oro har, instituzio soziopolitikoei buruz duten ikuspegi ezkorra da. Horrek, batzuetan, kontraesanak sortzen dizkie

Elkarte zibiko-sozialak

Azkenik, bada elkarrizketatu multzo bat gazte-gaztetarik gizarteko askotariko elkarteetan parte hartzen hasi zena eta, geroztik, gradu desberdinetan bada ere, partaidetza zibiko-aktiboa izan duena bere ohiko bizitzako atal garrantzitsu gisa. Gazteen soslai horrek ikerketaren abiaburuan pentsatu baino presentzia handiagoa hartu du. Izan ere, boluntariotzari lotutako gazteen jarduna garrantzitsua izan da elkarrizketatu ditugun gazteen artean. Horrenbestez, gazteen axolagabekeriaren ikuspegia zalantzan jartzen du atxikimendu horrek.

Elkartasunerako joerak eta balioak, engaiamendu soziala eta jarduteko grina partekatzen dituzten arren, multzo honetako kideek ez dute osatzen talde homogenea, inondik ere. Ezta beren ekimenaren helburu diren elkarte, mugimendu edo erakundeek ere. Lehenik, ikusi dugu boluntariotza-organizazio askok ez duela xedetzat aldaketa sozialik sustatzea; eta, aldiz, elkarte edo ekimen zenbaitek sistema ekosoziala, politikoa edo ekonomikoa goitik behera iraultzea bilatzen duela. Era berean, organizazio eta mugimendu batzuetako kideek ohiko instituzio politikoetan ere jarduten dute, baina beste gazte batzuek zeharo bereizten dituzte beren partaidetza mota (soziala edo zibikoa) eta politiko-instituzionala. Badira, izan, boluntariotza lana edo bestelako jarduera sozialak ohiko alderdi politiko nahiz sindikatuetako militantziarekin bateragarriak direla uste dutenak. Eta bada politika konbentzionalari buruzko interesera eta ezagutzara boluntariotzaren esperientziaren bitartez ailegatu denik ere. Zenbaitetan, gazteen kultura- eta soziabilitate-gune garrantzitsuak diren talde edo elkarte informaletan egin dituzte batzuek beren lehen partaidetza esperimentazioak, eta hortik abiatu dira bestelako jardungune batzuetara, hala nola talde ekologistetara, bazterketaren aurkako mugimenduetara, eta abar. Adibidez, ikusi dugu musika gune batzuk eta festarako organizazioak beste ekimen sozial batzuetarako erreklutamendu guneak izan ohi direla gazteen kulturaren.

Bigarrenik, desberdintasunak daude lurralde edo nazio ikuspegiari dagokionez. Mugimendu multzo batek arestian

aipatu dugun ezker abertzaleko ingurune abertzalearekin eta, batzuetan, mugimendu euskaltzalearekin bat egiten du zenbait ideiatan, adierazpen eta lan-ildo desberdinak lantzen badituzte ere (feminismoa, aldaketa ekologikoa, lan kulturala, eta abar). Beste multzo batek, aldiz, Espainiako esparruan kokatzen du bere burua edo, besterik gabe, ez du horrelako banaketarik aintzat hartzen.

Hirugarrenik, boluntariotza erakunde batzuk goitik behera antolatuta daude, hau da, estatu, eliza, tokiko administrazio nahiz bestelako instituzio burokratikoaren menpe daude, eta gazte parte hartzaileek ez dute erakunde horien sorreran edo eraikuntzan partaidetzarik izan. Aldiz, mugimenduak eta bestelako ekimen batzuk behetik gora eratutakoak dira eta, ildo horretan, gazte parte hartzaileek lagundu egiten dute modu aktiboan beren sorreran nahiz garapenean.

Esanak esan, eta salbuespenak salbuespen, boluntariotzan eta elkarte zibiko-sozialetan jarduten duen jende multzoaren gehiengo batek arbuia egiten du politika instituzionala, hau da, alderdi politikoen bitartekaritza sistema politikoan eragiteko xedea duena. Are gehiago, multzo honetako gazte gehienek politikagintza, oro har, sistema politiko ordezkartzailearen ereduarekin identifikatzen dutenez, ez dute beren jarduna politikotzat hartzen, eta ez dituzte bateragarri ikusten ohiko politikagintza instituzionala eta gizartean sortzen diren boluntariotza edo elkarte lanak. Izan ere, politikaren definizio hegemonikoa erabiltzen duten heinean, beren jarduna eredu horretatik at kokatzen dute. Haatik, boluntario moduan, komunitatera edo ongizate sozialera bideratutako ekintzak burutzen dituzte bete-betean, eta kezka kolektiboak gidatzen du nagusiki beren zeregina. Paradoxa hori gertatzen da, beraz, engaiamendu zibiko handia daukan gazte askorekin. Hala, elkarriketetan ere ez dute gehienek beren burua gazte 'politizatutza' hartu.

Bestalde, boluntariotzan eta elkarteetan ari direnen ibilbidea bereizi egiten da orain arte aipaturiko gazteen inimizazio politikotik. Gehienetan, aitortzen dute politika ez dela mintzagai

izan gurasoen edo senideen arteko harremanetan. Ez du baltre zentraltasunik izan beren haurtzaroko edo nerabezaroko bizitzetan. Isiltasun hori azaltzeko hainbat arrazoi aipatu dituzte, eta horietako batzuk elkarrizketa batean baino gehiagotan azaldu dira: familian joera politiko desberdinak zeuden edo gai gatazkatsua zen; hartara, saihestu egiten zen. Oro har, gazte horien lagun taldeetan ere ez zegoen homogeneousun ideologikorik. Horrenbestez, politika gatazkarekin eta kontu deserosoekin identifikatzen zen sarritan, hala familian nola lagunen artean. Eta, ondorioz, alboratu egiten zen lehen, eta

Gazte horien sozializazioan elkartasunezko balioak transmititu dira. Balio horiek gehienetan familian jaso dituzte. Zenbaitetan, auzoak edo inguruneak ere sortu die gai jakin batzuei buruzko sentiberatasuna

alboratu egiten da gaur egun ere. Argi ikusten da gazteon familietan eta ingurune hurbi-lean ez direla tradizio politiko zehatzak helarazi. Aitzitik, politikaren aurkako aurreiritzia azaldu da gune horietan sarri.

Alabaina, gazte horien sozializazioan elkartasunezko balioak transmititu dira. Balio horiek gehienetan familian jaso dituzte. Zenbaitetan, auzoak edo inguruneak ere sortu dute gai jakin batzuei buruzko sentiberatasuna gazteengan: par-

taidetza sozialari dagokionez auzo oso dinamikoetan sortu dira, langile-klasearen kontzientzia jaso dute ingurune industrializatuan, senideen artean desgaitasuna duten pertsonak izan dituzte, eta abar. Beste zenbaitetan, ingurune sozial horretan bizi izandako esperientzien indarra ere sumatu dute: adibidez, etxegabetzeena, edo zabortegi baten aurkako mugimendua herrian. Edonola ere, boluntariotzan eta gizarte lanetan ari diren gazte guztiek balio humanistak eta orientazio komunitario oso sendoak partekatzen dituzte. Balio horiek familian, ikastetxean edo ingurunezko esperientzietan jaso eta barneratu dituzte, eta horiek gauzatzeko partaidetza bide

desberdinak erabili dituzte, elkarte sozialak, boluntariorza organizazioak eta mugimendu sozialak, besteak beste.

Baina, talde horretako gazteek jasotako balioen iturri nagusietakoa Eliza katolikoa izan da, horren ikastetxeen eta aisialdi taldeen eraginaren bitartez, besteak beste. Izan ere, multzo horretako elkarrizketatuen artean hainbatek ikastetxe erlijiosoetan egin zituen ikasketak, eta hortik hasitako ibilbideari ekin zion haurtzaro-nerabazarotik aurrera. Lehenbizi, eskaut taldeetan parte hartuta, geroago, begirale moduan aisialdi edo kirol taldeetan ibilita, eta, handik, Caritas elkartera, Gurutze Gorrira, etorkinen aldeko elkartetara, desgaitasunak dituzten umeekin egindako lanetara, nazioarteko kooperaziora, mugimendu sozialetara eta beste hainbat eta hainbat jardun altruistatara jauzi eginda (talde ekologistetan, bazterketaren aurkako taldeetan...). Aurreko gazte politizatuen kasuan gertatu bezala, engaiamenduaren bide horiek lagunekin eta berdinekin batera hasi dituzte gazte horiek ere, baina inimizazioaren urteetan beste gune batzuetan egin dituzte urratsak, eta bestelako sare sozialak erabili dituzte. Hain zuzen ere, Eliza katolikoak babestutako organizazioak eta elkarteak bilakatu dira partaidetza sozialerako eta boluntariorzarako aukera nagusi. Partaidetza horrek ez du esan nahi, ezinbestean, ildo horretako elkarrizketatu guztiak erlijiosoak edo fededunak direnik. Baina, erlijio katolikotik jaso dituzte konpromiso sozialaren aldeko balioak, eta instituzio horrek eskaini die, aldi berean, hurbil izan duten partaidetzarako organizazio sare bat. Elkarrizketatuek aipaturiko boluntariorza jardueretan engaiamendu maila oso desberdinak ikusi ditugu, baina Elizako erakundeetan jatorria duen inimizazio-ibilbide eredu berbera agertu da jasotako hainbat adierazpenetan.

Azkenik, atal honetan bada nabarmendu beharreko beste gauza bat: hain zuzen ere, aktibismoak edo beste edozein motatako lan sozialak eragiten duen norberaren asebetetze sentimendua. Izan ere, partaideen pertzepzioan, gizarteari edo 'besteei' dohainik eskainitako ekimen orok sari sinbolikoak

izan ohi ditu, egindako ahaleginaren ordain gisa. Jakina, behin baino gehiagotan, aktibismoak eta partaidetzak desilusia eta frustrazioa eragiten dute (helburuak ez direlako sarri askotan erdiesten, edo organizazioen funtzionamendu ildoarekin guztiz bat ez datorrelako norbanakoa), eta hainbatek utzi egin du dena delako erakundea edo jarduera, eta beste toki batzuetara joan da. Eta, halaz ere, bizi ibilbidearen ebaluaketa egitean, elkarrizketatuek ikasketa garrantzitsutzat hartu dituzte egindako guztiak. Batez ere, ekimen horietan ehundutako harremanak, bizi izandako emozioak, taldearekiko komunitate-atxikimenduak eta taldekideengandik jasotako aitortzak baloratu dituzte, erdietsitako helburuez gain. Horrekin batera, herritar eraginkor sentitzearen esperientzia ere badago, gaitasunez eta abildadez ahaldundutako gaztearen eskarmentua. Horrenbestez, orain arte aipatu ditugun gazte aktibista, afiliatu zein boluntario gehienen adierazpenetan jaso dugunez, egindakoaz harro sentitzen dira, uste dute beren printzipio eta jokamoldeen arabera egin beharrekoa egin dutela eta, egitean, gogobetetze sentipena izan dutela. Zer esanik ez, horietako askok bizi-ikasketa erabakigarria izan dute helduarorako trantsizioan. Izan ere, gazteek beren bizitzari zentzua ematen dioten ekimenak eta jarduerak balioesten dituzte, eta beren autonomia indartzen dutenak, batik bat.

Bigarren ibilbide erdua: 'ez-politizatuak'

Gazte politizatuak talde homogenea osatzen ez duten bezalaxe, politizatzeko maila apalagoa duten gazteen artean ere alde nabarmenak aurkitu ditugu. Beren buruak 'ez-politizatutzat' dauzkaten gazteek politika instituzionaletik kanpo kokatzen direlako egiten dute, batik bat, modu horretako autodefinizioa. Definizio hori egiteko erabiltzen duten neurgailuetako bat hauteskunde jokamoldea da, eta, hein txikiago batean, alderdi politikoen bitartez bideratutako partaidetza. Gazte horietako batzuek ez dute bozkatzeko, eta beste batzuek aldizka bozkatzeko dute, edo bozka aldakorra izan dute. Nolanahi ere,

ez diote garrantzi handirik ematen bozkatzeari, ez dutelako ekintza eraginkortzat hartzen. Hauteskundeetako jokabide hori gorabehera, euren artean politikari buruzko ezagutza, interes eta inplikazio gradu ugari atzeman dugu. Hitz batean, politizatzeko edo despolitizatzeko egoera mailaz mailako inplikazioaren arabera ulertu behar da. Ondorioz, azken gazte multzo horri dagokionez ere, askotariko parte-hartze graduak daudela hartu behar dugu abiaburuko ideia gisa.

Kultura indibidualizatuan, identitate sozial eta politikoen belaun arteko transmisioa ahultzen doa, arian-arian. Gazteei talde identitateak helaraztea lehenago baino zailago bilakatu da gaur egungo testuinguru kulturallean. Ildo horretan ulertu behar da talde horretako gazteen lehen sozializazioa. Elkarriketaturiko gazte guztien artean, politizatzeko maila apalagoa duten gazteek jaso dute sozializazio politikorik ahulena. Beren familiak eta ingurune komunitarioak ez dira politizatuak izan, edo politika elementu deserosoa eta saihestu beharrekoa izan da haien haurtzaroan eta gaztaroan. Familiek ez zuten parte hartzen auzoko edo herriko dinamiketan. Esparru publikoko eztabaidatik eta ekimenetatik at zeuden. Gauza bera gertatu zen lagunen taldeetan ere. Elkarriketetan askok aitortu duenez, gurasoen edo senideen artean ez zeuden iritzi politiko partekatuak, eta, gai politikoak solasean agertzen baziren, gatazka iturri izaten ziren. Hartara, isildu egiten ziren kontzienteki, halako moldez isildu ere, ezen etxean tabu bihurtu baitziren behin baino gehiagotan gai politikoak. Beldurra ere tartean egon zen, noiz edo noiz. Euskal Herrian bizi izandako gatazkaren gordintasunak eta gatazka horren adierazpen bortitzak izan zuten zerikusirik mundu publikotik urrutiratze horrekin. Pertsona askorentzat, testuinguru horretan, iritzi politikoa auzi pribatu bihurtu zen, eta politikagintza esperientzia arrotza haurtzaroan nahiz, geroago, nerabezeroan eta lehen gaztaroan.

Aipatu dugun politikari buruzko arrotzasunak ez du esan nahi ezagutza eta interes politikoa erabat desagertu direnik gazte horien bizitzetan. Aitzitik, ikusi dugu gai direla,

salbuespenik gabe, zuzenean eragiten dieten auzi politiko nagusiak identifikatzeko, auzi horiek beren bizitzak baldintzatzen dituztelako goitik behera: enpleguaren egonkortasunik eza eta lan baldintzak, etxebizitzaren prezioa, familiarik emantzipatzeko eta bizitza autonomoa eta duina garatzeko zailtasunak, bizi proiektuak aurreikusteko ezintasuna eta etorkizunari buruzko ziurgabetasuna, besteak beste. Instituzio politikoei, politikariei eta, oro har, sistema demokratiko liberalari buruzko ikuspegi kritikoa ere ez da falta gazteen adierazpenetan. Izan ere, beren itxaropen zapuztuen erantzule jotzen dituzte.

Inolako zalantza barik, inplikazio maila apalena duten gazteen diskurtsoak injustizia marko bat definitzen du, non behin baino gehiagotan sumindura eta etsipena biltzen diren. Sistema politiko demokratikotik eta sistema hori sostengatzen duten balio eta funtzionamendu arauetatik gero eta urrunago sentitzen dira. Bada, uste dute politikariek ez dietela jaramonik egiten eta gazteek ez dutela ahotsik instituzio politikoetan. Hartara, beste hitz batzuekin azaltzen badute ere, pentsatzen dute erabat ahulduta daudela agentzia politiko gisa. Egoera horren aurrean, batzuk era boluntario eta kontzientean erretiratu dira politikagintza instituzionaletik, ez ezagutza edo interes falta dutelako, erabaki koherenteena iruditzen zaielako baizik. Eszeptizismo politikoaren adierazpen argia dira gazte horiek.

Ildo beretik, politizatze maila apalagoko gazteei ulergaitzak edo arrotzak egiten zaizkie, zenbaitetan, komunitate politikoa eta ohiko herritartasunaren estatusa orain arte taxutu dituzten arauak. Batzuek zailtasunak dauzkate subjektu politiko gisa jarduteko sistema politiko konbentzionalean. Ezbairik gabe, sozializazio politikoan izan dituzten hutsuneak nabarmentzen dira egoera horren jatorrian. Bestalde, hutsune horiek erakusten digute orain arteko identitate sozialak eta politikoak belauen artean helaraztea gero eta eginkizun zailagoa dela bizi dugun aro aldakorrean, eta gaztetako esperientzia politiko goiztiarrik ezak areagotu egiten duela gerora gazteak politikatik deskonektatuta sentitzea.

Arestian aipatu ditugun agendaz eta kezka politiko partekatuez gain (lanaren baldintzak, etxebizitza, emantzipatze-ko aukera eskasak, eta abar), ikusi dugu ezagutza eta interes mailak zeharo aldatzen direla gutxiago politizatutako gazteen multzoan, gizartean nahiz politikan ekiteko dauzkaten baliabideen arabera. Baliabideen desberdintasun horrek estrategia eta ibilbide desberdinak eragin ditu gazte multzoaren barruan. Horrela, oso aktiboak izan ez arren, gazte batzuek politikari buruzko arreta maila bat mantentzen dute eta, neurriren batean, informazio politikoa jarraitzen dute. Ikuspegi kritiko garatua adierazi duten gazteak ere badira beren burua 'ez-politikotzat' jo dutenen artean, botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko elkar aditzeaz jakitun direnak eta politikagintzaren ikuspegi konplexu eta jantziaren jabe direnak.

Beste muturrean, aldiz, politikaz batere interesik eta ardurarik agertzen ez duten gazteak kokatzen dira. Gazte horiek politikarekiko agertzen duten jarrera ezkorra sistema politiko instituzionalak eragindakoa izan ohi da. Eta aitortzen duten atxikimendu eta parte-hartze urria esparru instituzionaleko partaidetza ereduari dagokio (hauteskundeak, alderdiak), ez beste era bateko ereduari. Ondorioz, bere burua ez-politikotzat jotzen duen gazte askok partaidetza aktiboa dauka gizarteko beste arlo zibiko-kolektiboetan, eta, hainbatetan, unean uneko jarduerak izan arren, ibilbide bat egin dute era horretako ekintzetan (ekintza zibiko edo sozial altruistetan, adibidez). Partaidetza mota horrek erakusten digu politika instituzionalari buruzko ardurarik ezak ez dakarrela berekin, beti eta ezinbestean, gizarteari edo komunitateko arazoei entzungor egitea.

Inplikazio maila apalena duten gazteen diskurtsoak injustizia marko bat definitzen du, non behin baino gehiagotan sumindura eta etsipena biltzen diren. Eszeptizismo politikoaren adierazpen argia dira

Halaz ere, ezin da ukatu multzo horretako gazte askok oso barneraturik duela honako ideia hau: arlo politikoan ez direla batere eraginkorrak. Are gehiago, ezintasun sentimendua ere sarri azaldu dute elkarrizketetan, batzuek ez baitute beren burua gai ikusten sistema politikoan eta erabaki politikoetan eragiteko. Ildo horretan, bi maila bereiztea komeni da gazteen jarrerak ulertu ahal izateko. Batetik, sistema politikoaren eta instituzioen eraginkortasun eza aipatu behar da, gazteen urruntzea eragiten duena, eta ez derrigorrez apatia politikoa. Bestetik, maila indibidualean norbanakoak sentitzen duen eraginkortasun eza hartu behar da kontuan; azken horrek ere gazteen urruntzea eragiten du, baina ezintasunaren (hau da, ezagutza eta gaitasun faltaren) ondorioz. Edonola ere, gaur egun gertatzen ari diren egiturazko prozesu batzuk lotuta daude, ezinbestean, norbanakoen esperientzia indibidualekin. Hala, kultura indibidualizatuan bere ibilbidearen eraikitzaile aktibo eta erantzule izatea eskatzen zaio gazteari. Baina, gazteak eskura ditzakeen baliabideen kopuruak eta baliabide horien nolakotasunak eragina izan ohi dute aipatu eraikuntza egiteko aukeretan. Nahiz eta askatasun pertsonala, autonomia eta autogarapena diren kultura indibidualizatuaren balio nagusiak, askatasuna gauzatzeko aukerak ez daude berdintasunez banatuta gizartean. Ustezko askatasun horren atzean egiturazko murrizketak ezkututzen dira, hain zuzen ere, pertsonaren kokapen sozioekonomikotik, haren kultura mailatik, esleituta duen generotik, familian eta jatorrizko ingurune sozialean izandako sozializazio politikoaren intentsitatetik eta antzeko baliabideetatik datozenak. Eskuarki, hertsapen estruktural horien eragina ez denez detektatzen, antsietatea, porrot sententzia, ziurgabetasuna eta ezintasuna eragiten diote norbanakoari. Hartara, gaztearen apatia politikoa ez da beti hautapen pertsonala izaten, norbanakoak horrela bizi duen arren, egiturazko baldintzen ondorioz.

Ikusi dugunez, indibidualizazio prozesuek ahuldu egiten dute gazte jakin batzuen agentzia izateko prozesua, eta, ondorioz, urritu egiten dituzte baliabide soziopolitiko gutxien

dutenen herritartasun esperientziak. Horrela, ekintza politikorako gaitasun eta trebezia gutxiago garatzen dute, politikari buruzko ezagutza eta esperientzia eskasagoa metatzen dute, eta oztupoak izan ohi dituzte ahots propioa izateko eta beren eskaerak entzunarazteko, beren muga sozio-estrukturalak nahiz instituzionalak tarteko. Horiek horrela, elkarrizketetan ikusi ahal izan dugunez, gazte batzuen parte-hartze politikoak jarraitutasunik gabekoak dira, indibidualizatuak, unean unekoak edo noizbehinkakoak. Ekintza horiek pizten dituzten motibazioak hainbat motatakoak izaten dira, elkarrizketetan jasotako informazioaren arabera. Batzuetan, gaztearen bizitza zuzen-zuzenean baldintzatzen duten auziak; besteetan, gizarteko agenda publiko-politikoetan (sare sozialen bidez, esaterako) tokia irabazten duten auziek baldintzatutakoak. Azken ildo horretan, ezagutza politiko eskasagoa duten gazteen artean, errazago zabaltzen dira esparru publiko-politikoan, mediatikoan eta birtualean definitutako eta landutako auziak, oihartzun handikoak direnak gizartean. Nabarmentzekoa da feminismoaren eta talde feministen proposamenak eta gai-zerrendak zein modu indartsuan sartu diren gazte gehienek hautematen duten eguneroko agendan. Halaz ere, aipaturiko proposamenak azal-azaleko ezagutzara mugaturik agertzen dira gutxi politizaturiko gazteon adierazpenetan.

Parte-hartze politiko zuzenari dagokionez, multzo honetako gazte batzuek egiten dituzten unean uneko mobilizazioak denboran mugatuak izaten dira, organizazioen bitartekaritzarik gabe buruturikoak. Zentzu utilitarioarekin batera, norbana-koarentzat funtzio sinbolikoa eta adierazgarria izaten dute. Horrela, partaidetza eredu horietan inplikazio jariakorrek ikusten ditugu, sarrera eta irteera errazekoak, identifikazio ideologiko sakonik eskatzen ez dutenak eta egitura oso informalen bitartez gauza daitezkeenak. Esan genezake politizatze maila apalagoa duten gazteen partaidetza gauzatu gauzatzen dela, baina alde handiak daudela jarraitutasunean, intentsitatean, maiztasunean eta ekintza-moten nolakotasunean.

Nolanahi ere, haurtzarotik gaztarorako trantsizioan gazte horiek berariazko ikasketa politiko ahula izan duten arren, nabari

Aldaketak egon dira gazteen parte hartzeko moduetan; xx. mendean baino askotarikoagoak, zatituagoak eta noizbehinkakoagoak dira gaur egun, gazteen trantsizioak luzatu eta linealtasuna galdu duten heinean

da inguruneko pertsonak (lagunek, bereziki) eta gorabehera esanguratsuek, zuzenean edo zeharka, eurengan eragin informala izaten dutela, eta maila jakin bateko ekintza politikoak burutzeraz bultzatzen dituztela noizbehinka. Egitate horiek bigogoeta sustatzen dituzte ikerketan. Batetik, berretsi egiten dute gazte politizatu/ez-politizatu kategoriak ezin direla bere horretan erabili ñabardurarik egin gabe, eta, hartara, egokiatasuna dela mailaz mailako logika

batean ulertzea gazteen engaiamendu politikoa, eta ez kontrajarritako binomio baten arabera. Bestetik, engaiamendu publiko edo politiko handirik ez duten gazteek ere badutela nolabaiteko herritartasun 'erreserba' bat. Azken ildo horretan sakonduta, litekeena da gaur egun politikan aktibo ez diren gazte horiek noiz edo noiz, etorkizunean, parte hartzeko aukera egokiak ikustea: ziklo politiko berrietan, mobilizazio handiko garaietan edo, besterik gabe, eguneroko bizitzako ekintza indibidualetan, esaterako, kontsumo politikoan edo bizitzako hautu etiko indibidualizatuetan.

Gazte ekintzaileen partaidetza politikoa eta herritartasun praktika berriak

Gazteen parte-hartze politikoari buruzko azken urteetako ikerketek Mendebaldeko gazteen joera komun batzuk erakusten dituzte. Alde batetik, aldaketak egon dira gazteen parte hartzeko moduetan; parte-hartze eredu horiek xx. mendean baino askotarikoagoak, zatituagoak eta noizbehinkakoagoak dira

gaur egun, gazteen trantsizioak luzatu eta linealtasuna galdu duten heinean. Bestetik, eremu politikoa inbaditzen duten indibidualizazio- eta desinstituzionalizazio-prozesuek instituzio politikoei buruzko loturak ahuldu dituzte eta, oro har, belau-naldi berriak sistema politikotik aldendu. Hego Euskal Herrian ere nabarmen agertzen dira joera orokor horien zantzuak.

Eusko Jaurlaritzak urtero Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen duen *Gazteen argazkiak* izeneko txostenak, 2020ko alean, datu esanguratsuak eskaintzen ditu lurralde horretako gazteek politikaz duten jarrerari buruz: 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %29k baino ez dute interes handia edo nahikoa interes politikan; %71k ez dute bere burua alderdi politiko bakar batetik ere hurbil sentitzen, eta alderdiak gazteei konfiantza gutxien eskaintzen dieten erakundeen artean daude. Halaz ere, euskal politikak berezitasun batzuk ere baditu Europako sistema politikoei dagokienez, ETA erakundearen desagertzea, indarkeria politikoaren gutxitzea eta sistema politikoko eragileen birkokatzea direla tarteko. Horren ondorioz, esparru politikoa eta gizartea bera berrosatzen ari dira egoera berrian, eta, bereziki, ETArekin inguruko ezkerreko indarrak berrantolatzen.

Frankismoaren garaitik gaur egunera arte, ezker abertzaleko indar horiek gizarteko sektore esanguratsuetan errotutako kultura eta jardunbide parte-hartzaileak bultzatu dituzte, eratutako ordenari zilegitasuna kentzen dion aktibismo kontrahegemonikoa bereizgarri dutenak. Alabaina, gaur egun, gero eta instituzionalizatuago eta eremu politikoaren egituran integratuago agertzen diren diskurtso eta praktika politikoak birformulatu dituzte. Aldi berean, euskal gizartea oraindik ere nahiko politizatuta dago gatazka nazionalaren iraupenaren ondorioz, eta 'nation building' proiektuei lotutako komunitate-bizitza trinkoa du, neurri batean. Ildo horretan, autoantolaketa tradizioa nahiko sustraiturik dago gizartean. Hala, modernitateak eta tradizioak bat egiten dute euskal errealitatean, gune sozial eta ekonomikoki garatua izanik ere, komunitate-bizitzaren eta lankidetzaren kolektiboaren ondareari eusten baitzaio. Ondorioz, autoantolaketa- eta

aldarrikapen-gaitasun horrek herri-oinarriko berrikuntza sozial garrantzitsuak eragin ditu oraintsuko historian.

Frankismoaren garaitik aurreko hamarkadara arte, euskal esparru politikoaren instituzionalizazioa mobilizazio-ziklo zabal batekin konbinatu da. Eraikuntza nazionalaren leitmotivean inspiratuta egon den arren, mobilizazio horrek sektore-aldarrikapen ugari bat egitea ahalbidetu du, eduki zabal eta konplexuz osaturiko benetako protesta-ziklo batean. Izan ere, nazionalismo modernoek, hala nola euskal nazionalismoak, diskurtso integratzailea egin ohi dute; bertan, lekua izan dute balio alternatibo neoidentitarioek: besteak beste, ekologismoak, feminismoak, antimilitarismoak eta estatuen indarkeriaren aurkako erresistentziak. Ildo horretan, azken hamarkadetako euskal mobilizazio eta aldarrikapen nazionalaren espezifikotasuna izan da ezkerreko balio unibertsalistak mugimendu sozial berrien aldarrikapenekin batera artikulatzea. Eraitza gizarte zibil aktiboa izan da, herri-ekimen eta talde sozial ugari dituen.

Oso politizatuta eta mobilizatuta egon ondoren beste eszenatoki politiko baterantz doan gizarte batean gaudelarik, ezinbestekoa da kultura aktibistak belaunaldi gazteenetan jarraitzeko dituen aukerei buruz galdetzea, baita belaunaldi berrien ekinaldiek har ditzaketen formei buruz ere. Hauteskunde-konpromisotik kanpo, inkestek erakusten dute gutxiengoa direla esparru zibiko-politikoan inplikazio aktiboren bat duten euskal gazteak. Gutxiengo horren artean, gizartean esanguratsua den nukleo bat nabarmentzen da, autoantolaketaren tradizio aktibistan sozializatu dena. Ekin-tzaile gazteen talde horretan jarriko dugu arreta, hain zuzen ere. Ildo horretan, jarraian aurkezten den testuaren helburua bikoitza da; lehenik eta behin, Hego Euskal Herriko tokiko eskalan Bigarren Modernitateko baldintza sozial eta politikoetan politizatutako gazteen praktika ekintzaile berritzaileen esanahiak identifikatzea; bigarrenik, sozializatu diren tradizio politikoari dagokionez, praktika horien jarraitutasun- eta haustura-ildoak ezagutzea.

Gazte ekintzaileak eta partaidetza politikoa esparru politikoaren ertzetan

Esparru pribatuaren politizatzea

Politikoki berritzaileenak diren gazteen partaidetza moduek eguneroko bizitza politizatzea eragiten dute. Beren kezkek eta interesak eguneroko jardueretan zentratzen dituzte gazteok, uste baitute indarrean dagoen sistema politikoak ez duela aukerarik ematen beren beharrak asetzeko. Jakina, jardueraren eremu pribatuaren politizazioa euskal aktibismotik jasotako kultura politikoaren elementu bat da, bai behinolako klandestinitate frankistari lotutakoa, bai geroko herri-eraikuntzako eta nazio-eraikuntzako politikari erantsitakoa. Aipatu kulturak sektore politiko kontrahegemonikoak ezaugarritu ditu, luzez, Espainiako Estatuaren aurkako borrokan. Halaz ere, jarraitutasun-elementu horrek adierazpen indibidualizatuagoak ditu orain. Hala, belaunaldi berrien ekimenek alde batera uzten dute alderdi eta erakunde politikoek zuten nagusitasuna, nahiz eta ekintzaile gazte askok afiliazio organikoren bat mantentzen duten, eta zentzu politikoa ematen diete jardueraren eta hautu arruntei: zein hizkuntzatan komunikatzen diren, pertsonen arteko harremanak eta horiek zeharkatzen dituzten menderatze- eta mendekotasun-mekanismoak nola eratzen diren, zer lan mota aukeratzen duten, kontsumo-moduak, naturarekiko harreman-eredua, sexualitatea garatzeko askatasuna, nortasun indibidualak eta kolektiboak eraikitze-ko aukerak... Eremu horietan guztietan garatutako ekintzak ekintza etiko-politiko bihurtzen dira gazte aktibisten bizitzan. Hain zuzen ere, esanahi politikoaren esleipen horrek erakunde politiko konbentzionaletatik harago zabaltzen ditu aipatu gazteen partaidetza-errepertorioak, eta esparru politikoa sistema demokratiko liberalek aurreikusitako mugetatik kanpo hedatzen du.

Nire militantziari bira eman nion [...] Eragin du, nire ustez, ziklo politikoaren aldaketa horrek. Ez da izan bakarrik ETAk armak utzi dituela. Nik uste dut XXI. mendeko eraldaketa prozesue-

kin bat datorrela [...] Gatazka politikoa orain ez izatea hain bizi, nahiz eta gatazka oraindik dagoen, uste dut horretan oso lagungarria izan dela. (Emakumea, 25-30. Nafarroa. Talde feminista)

Nik uste dut politika egin daitekeela edozein lekutatik. Politika egin dezakezu zure kuadrillan, zure lanpostuan, ikasten duzun lekuan..., eta ez zara zertan egituratuta egon behar edo antolatuta egon behar [...] Politika alderdietatik kanpo ere badago. Eta [...] gero eta indartsuagoa da hori, nire inguruan ikusten dudanagatik. (Emakumea, 25-30. Bizkaia. Ezker Abertzaleko gazte erakundea)

Oro har, euskal ekintzaile gazteek agentzia politiko izatearen zentzu nabarmena dute, eta erreflexibiterako gaitasun handia agertzen dute. Hala eta guztiz ere, ez dira ohartzen politikan alienatutako beste gazte batzuek ez bezala eragile politiko gisa eratzeko aukera eman dieten pribilegiozko ezaugarriak dituztela: oso politizatutako eremuetan bizi izanik, familiaren eta komunitatearen sozializazio politiko goiztiarra jaso dute, beren parte hartzeko aukerak biderkatu dituzten antolaketa-sareak eta sare informalak eduki dituzte eskuragarri, kapital politiko gisa metaturiko partaidetzarako

Aktibista gazteek subjektu politiko bihurtu nahi dute, ez politikariek eta instituzio politikoek erabiltzen dituzten moldeen bidez, bizitza beren erara eraikita baizik

disposizio eta trebetasunak garatu ahal izan dituzte gazte-tarik eta, kasu askotan, jatorri sozialari lotutako baliabide kognitibo diferentzialen jabe ere badira.

Agentzia estatus horretatik abiatuta, alde batera utzi dute erakunde politiko konbentzionalen bitartekaritza, nahiz eta erakunde horietako batzuetan

egin zuten lehen ikaskuntza politikoa. Ildo horretan, behin baino gehiagotan, belaunaldien arteko haustura politikoa onartzen dute interes eta agenda politikoei dagokienez. Bestalde, uste dute edozein aldaketa sozial norberaren eraldaketatik eta ekintzetatik hasten dela, eta hizkuntza-erabileretan, sexualitatean, kontsumo- eta elikadura-ohituretan, bizitza- eta

lan-aukeretan eta halakoetan hezurramitzen dela. Gazteon ustez, politika ez da eguneroko bizitzatik bereizitako kanpoko esparrua, non pertsonak integratu behar duten beren interesak lortzeko. Aitzitik, ikusmolde honen arabera, publikoa eta pribatua, nia eta eguneroko bizitza estuki lotuta agertzen dira ekintza politikoan. Hartara, aktibista gazteek subjektu politiko bihurtu nahi dute, ez politikariek eta instituzio politikoek erabiltzen dituzten moldeen bidez, bizitzak beren erara eraikita baizik. Norbanakoan eta egunerokoan oinarritutako praktika politikoak areagotzen diren neurrian, jarduteko logika horrek erreperitorio politikoak indibidualizatzea dakar eta, aldi berean, eredu instituzionalak ahultzea, ekintzaile gazteak azken horien oinordekoak diren arren.

Nik uste dut, oro har, badagoela nahiko apurketa edo bereizketa handi bat belaunaldi zaharren eta berrien artean [...] Uste dut sektore zaharrak bizi duela bere borroka.

[...] Sektore gazteak ari dira beste bide bat jorratzen [...] Nik militatu dut gurasoak Ezker Abertzalekoak zirelako [...] ez dut ikuspegi historiko hori ukatzen, eta kristoren ekarpena egin dutela, eta horregatik gaudela hemen. Bestela igual ez litzateke kezka militanterik egongo Euskal Herrian [...] Baina, zentzu batzuetan, sentitzen dut distantzia pixka bat [...] Eta horregatik nago okupatzen [...] Gazte bat ez da gaizki bizi Euskal Herriak ez duelako independentzia [...] Gazte bat gaizki bizi da ikasteko dirurik ez daukalako [...] Nik garrantzi handiagoa ematen diot horri etnizitateari baino. (Gizona, 18-24. Nafarroa. Ikasle erakundea)

Nik badauzkat lagunak esaten dutenak politika ez zaiela gustatzen, eta politikaz paso egiten dutela. Eta nik beti esaten diet gauza bat, eguneroko gauza guztiak politika direla. Laranja non erosten ditudan politikoa da. Edo esnea nori erosten diodan ere politika da. Guk gauza txiki horiekin eragiten dugu. Horregatik diot dena dela politika, hartzen ditugun erabaki txiki guztiak politikoak direla. (Gizona, 31-35. Bizkaia. Trantsizio ekologikorako taldea)

Bestelako herritartasun moldeak eta balioak

Horiek horrela, nora bideratzen dituzte beren indar politikoak ekintzaile gazteek? Aipatu dugun bezala, gehienak ez

dira politika instituzionalizatuaren eremuetara zuzentzen, nahiz eta batzuek oraindik lotura formalak dituzten zenbait erakunde politikorekin. Aitzitik, pixkanaka indibidualizatuak kultura-testuinguru batean, nagusiki kontraboterea, autonomia eta kontrola garatzeko aukera duten guneetan sustraitzen da horien parte-hartze politikoa. Izan ere, gazteek beren burujabetza gauza dezaketen esparruetara zuzentzen dute jarduera; eremu horietan espazio sozial eta bizimodu alternatiboak eraikitzen saiatzen dira. Hori dela eta, egiten duten herritartasunaren eraikuntza funtsezko balio batzuen aldarrikapenean oinarritzen da, hain zuzen ere, autonomian eta burujabetzan. Ildo beretik, beren praktika politikoek balioen eta ekintzen arteko koherentzia bilatzen dutela erakusten dute. Premisa horretan oinarritzen da horien konpromisoa, narratibetan azpimarratzen duten bezala. Bada, norberaren ekintzen bidez, gazteak bere sinesmen, balio eta idealak gauza ditzake eta, ondorioz, pentsatzen duenaren eta egiten duenaren arteko kongruentzia ezar dezake. Berdintasuna, lankidetzatza, elkartasuna, justizia, ekologia, elikadura-subiranotasuna, bidezko merkataritza, hizkuntza-ekitatea, feminismoa, askatasuna, antikapitalismoa, eraldaketa soziala eta elkarrizketetan aipatutako beste hainbat printzipio ez dira aktibista gazteentzat edukirik gabeko printzipio hutsalak, beren bizitzetan gauzatzen dituzten ekintzetarako gidak baizik.

Balioen zerrenda bat egin genuen, eta horien gainean eraiki genuen gure lana. (Gizona, 31-35. Gipuzkoa. Herri-jaien antolakuntza)

Hasieran, zero kilometroa izan zen zein motatako Astra nahi genuen. Eta hor ere finkatu ziren ideologikoki zelakoak izan behar genuen: interkulturala, feminista, antimilitarista... (Emakumea, 25-30. Bizkaia. Kultura-gune autogestionatua)

Bizitza pertsonala eta ekintza politikoa uztartuta agertzen diren bizi-ikuskerak horretan, lanaren eta aisialdiaren munduak ere ekintzaile gazteen konpromisoaren atalak dira. Izan ere, gazteon inplikazioa *continuum* gisa ulertu behar da bizitzako espazioan eta denboran zehar. Beraz, aisialdia

eta harreman sozialak eta, batzuetan, lan-jarduera bera ere norbanakoaren engaiamenduan txertatuta azaltzen dira. Ildo horretan, lan hautuari zentzu etikoa emanda, lanaren esanahia birdefinitzen dute hainbat ekintzailek. Horrela, iraukotasuna, besteen zaintza, justizia eta antzeko balioekin lotuta azaltzen da lanbidea aktibisten esperientzietan. Baita autoadierazpen sortzailerako aukerarekin ere. Ondorioz, parte-hartzea ez da mugatzen denboraren eta espazioaren dimentsioetan, eta konpromisoa ez da denbora batez eteten ekintza politiko baten eta hurrengoaren arteko tartetean. Aitzitik, parte-hartzea sakon sartuta dago eguneroko jardueran, eta konpromisoa zabaldu egiten da, halako moldez non bizitza pertsonaleko esparru eta une guztiak kutsatzen dituen goitik behera.

Niretzat ez dago mugarik, ez dakit mugarik jartzen lanaren eta konpromiso sozialaren artean. Esan nahi dut, noiz ari naiz lanean eta noiz militatzen? Dena bat da gaur egun. Orduan esango nuke ez dela lana, pasioa dela. (Gizona, 25-30. Gipuzkoa. Euskara biziberritzeko elkarte)

Politikoki, aktibismo organiko hori utzi dut. Orain ez nago inongo egituratan [erakunde politikotan], baina ulertzen dut nire bizitza askoz ere politizatuago dagoela. Adibidez, nire janari dena kontsumitzen dut kontsumo saskitan edo kontsumo elkarteetan. Nire aisialdiaren aldetik, askoz ere buelta gehiago ematen dizkiot zer, nola eta horri guztiari. Saiatzen naiz nire harreman guztiak interpretatzen betaurreko politikoagoetatik, eta horren arabera eraikitzen. Eta gero, lana. Nire lanak ematen dit aukera; nire lana politikoa da, politika egiten dugu zerbitzu bat eskaintzen dugunean edo beste kooperatiba bati laguntzen diogunean. Eta lana bera politika egiteko tresna bat da. (Emakumea, 25-30. Gipuzkoa. Ekonomia sozial eraldatzaileko kooperatiba)

Subjektibitateen politizazioa indibidualizazioaren garaian

Esandakoak esanda, ekintzaile berritzaileen konpromisoak ondorioak ditu niaren garapenean eta nortasun indibidual zein kolektiboen eraikuntzan. Bada, haien inplikazioa ez da besentzat bakarrik, baita beren buruentzat ere, parte-hartzeak

gaztearen nortasuna eraikitzen laguntzen duen heinean. Zailtzarik gabe, aktibismo berritzailean, eraikuntza hori norbere buruaren eta bizi-ibilbidearen hausnarketa prozesuaren parte da, egungo gizartean pixkanakako desinstituzionalizazioak dituen ondorioekin bat datorrena. Izan ere, arian-arian, galtzen ari da euskal alderdi politikoek herritar-nortasunen hornitzaile gisa gazteengan izan duten eragina. Horrela, politizatutako gazteei dagokienez, konpromiso politikoak beren irudia lantzen eta finkatzen laguntzen die, beren autoestimua garatzen eta beren buruaren irudikapen positiboa eta ahaldua indartzen. Gazte politizatu guztiek partekatzen badute ere, prozesu hori nabarmenagoa eta esplizituagoa da emakume feministen kasuan, ibilbide politikoan izan dituzten oztopo gehigarrien ondorioz.

Horrenbestez, prozesu paraleloak ikus ditzakegu ekintzaileen gazte-trantsizioetan, bai jarraipenekoak bai haustura-koak euskal politikagintzan transmititu zaizkien tradizio politikoei dagokienez. Alde batetik, oinordetzan jasotako nortasun eta leialtasun politiko sendoen trinkotasuna galdu da, gazteok formalki horien jaraunsle direla aitortzen badute ere. Horrekin batera, aurrez eraikitako 'pack' politiko-ideologiko itxien gaitzespena ere agertu da jasotako narratibetan. Beste alde batetik, norberarekiko eta bere ekintzekiko erreflexibitatearen garapena indartu da, besteekin batera egindako jardueran norberaren subjektibitatea ere nahasirik dagoelako.

[Gure taldea] ez da elkarte partidista bat. Bai, antikapitalistak, feministak eta abar gara, baina ezin dugu [talde baten alde egin] [...] Bai, jakina, ideologia bat izango dugu, baina ez da homogeneoa. Gure interes nagusia gure identitateei, gure orientazioei eta horiek onartzeari buruzkoa da. (Emakumea, 18-24. Bizkaia. LGTBI taldea) [Itzulita]

Ni neu ere nire identitateaz eta kokalekuaz hausnartzen hasi nintzen. (Emakumea, 25-30. Nafarroa. Talde feminista)

Hari beretik, politikan parte hartzeak aukera ematen die kapital politiko handiagoa duten gazteei gizartean nagusi diren balioak eta harremanak zalantzan jartzeko eta

esperientzia berrien bidez beren bizi-aukerak zabaltzeko. Esperientzia aktibistek, gainera, aurretik zituzten jarrerak birpentsatzen laguntzen die, beren buruarengan konfiantza izaten eta esparru politikoan birkokatzen, baita, zenbaite-tan, beren aurreko mugak gainditzen ere. Esperientzia horiek, berez, bigarren sozializazio bat dira gazte askorentzat. Halaxe gertatu da, printzipio berrituetan oinarrituta, ahalduntzen eta birsozializatzen diren emakume feministekin, beren biografia hausnartu eta berridatzi dutenean; eta gauza bera ikusi dugu esparru aktibistan dituzten pribilegioetako batzuk autorreflexiboki aztertzeko gaitasuna eskuratu duten beste mutil ekintzaile batzuekin ere. Ildo horretan, ekarpen feministak eragin nabarmenetako bat izan dira gaur egungo gazteen aktibismoaren berrikuntzan; bada, gero eta gehiago txertatzen dira gazte berritzaileen *habitus* horretan.

Ekarpen feministak eragin nabarmenetako bat izan dira gaur egungo gazteen aktibismoaren berrikuntzan; bada, gero eta gehiago txertatzen dira gazte berritzaileen *habitus* horretan

Gazte mugimendua zegoen *en un momento de* «goazen gure burua birpentsatzera, goazen harremanetan fokua jartzera, goazen saretzera», eta apur bat ateratzen *de una fase de respuesta* [...] beste klabe batzuetan zegoen, fase eraikitzaile batera pasatzeko. Orduan, nahiz eta momentu hartan ez deitu hitz hauekin, oinarri inportante bat izan zen feminismoa, eta ez jartzea horrenbeste begirada mundua aldatzeko kanpoan zer egin behar genuen, baikik eta gure baitan guk zer-nolako rol, zer-nolako botere harremanak erreproduzitzen genituen gazteen artean. (Emakumea, 25-30. Nafarroa. Talde feminista)

Ikusi ahal izan dugunez, norberaren gainean lan egitea, norberaren balioetan oinarrituta bizitzea eta prozesu horretan ikasten joatea ekintzaile gazteen ezinbesteko eginbeharrak dira kultura indibidualizatuan. Izan ere, halako eredu sozialean xx. mendeko instituzioek (familiak, eskolak, Elizak, eta abar)

lehen baino zailtasun handiagoak dituzte pertsonen bizitza arautzeko. Ahuldutako instituzio horien artean daude orain arte euskal gizartean ekintza kontrahegemonikoaren protagonismoa izan duten alderdiak eta erakundeak ere. Hartara, gaurko egunean politikoki jardutea ez da soilik aldaketa sozial eta politikoaren aldeko ekintza indibidual edo kolektibo bat, emantzipazio pertsonalerako esperientzia ere bada, eta modu erabakigarrian esku hartzen du bat-beraren ezagutzan eta identitate-erakuntzan. Are gehiago, askotan, norbera asebetetzen eta norberari plazera ematen dioten identitateak eraikitzen laguntzen die gazteei jarduera ekintzaile horrek.

Hari horretatik, parte-hartze politikoak ahalbidetutako integrazio soziala eta parte-hartzeari emandako sari sinbolikoak aipatu dituzte ekintzaile gazteek, sarri, beren adierazpenetan. Alderantziz ere, elkarrizketek agerian utzi dute errealizazio pertsonal eta sozialaren sentimenduek zentzua ematen diotela parte-hartzeari, eta lortu nahi den kausa bera bezainbeste indartzen dutela konpromisoa. Hala, gazte-trantsizioetan zehar, hainbat taldetan integratzeko ateari ireki dizkie aktibismoak parte hartzen duten gazteei, baita beste gazte batzuekin elkarreraginean sozibilitate-sareak antolatzeko beta eman ere, beren emozioak haiekin partekatzeko eta bidezkozat jotzen dituzten borroketan gogobetetzeko eta sentimenduak jasotzeko. Azken finean, komunitate- eta familia-kidetza moldeak sortzeko aukera eman die gero eta indibidualizatuago dauden testuinguruetan. Egiazki, parte-hartze politikoa zentzua sortzen duen mekanismoa da, eta gazte konprometituaren bizi-esparru guztiak ukitzen ditu. Ondorioz, behin baino gehiagotan, sari sinboliko horiek motibazio-iturri bihurtzen dira aktibismoan aurrera egiteko.

Ni lehenengo momentutik motibatuta nintzen pila bat. Berehala ikusi nuen hori zela nire lekua [...] Giza kateari begira, dena zen ilusioa eta poza, dena zen zoragarria, jendea ikusten zenuen motibatuta, lanean kristoren gogoekin [...] Gogorra ere izan zen [...] Baina, nire lekua topatu nuen, ikusten nuen baliagarritasun bat zeukala, egiten genuenak emaitzak zituela [...] Momentu horre-

tan lagunak egin ziren, eta beraiekin hainbat denbora pasatzen nuen. Eta ekintza bakoitzak ahalduntzen zuen apur bat gehiago, kapazak ginen, eta oso polita izan zen. (Emakumea, 25-30. Bizkaia. Erabakitzeko eskubidearen aldeko herri ekimena)

Indibidualizazioaren eta ekintza kolektiboaren bateragarritasuna

Indibidualizazioa nahasi egin da askotan indibidualismoarekin eta norberekoikeriarekin. Ez dira gauza bera, ordea. Izatez, indibidualizazioa egiturazko prozesu sistemikoa da, banakoen borondatearen gainera egonik, gizarte osoari eragiten diona. Testuinguru horretan, ekintza kolektiborako aukerak ahultzen edo ezabatzen dituen prozesu gisa ezaugarritu da indibidualizazioa lanketa teoriko batzuetan. Azken interpretazio horiek iradokitzen dutenaren kontra, baina, indibidualizazioa eta zentzu kolektiboa lotuta agertzen dira guk aztertutako ekintzaileen diskurtsoetan. Bada, parte hartzean eta konpromiso politikoa gauzatzean, elkarrizketatutako gazteek beste batzuekin batera jarduteko premia eta asmoa adierazten dute. Adierazitako asmo horiek pentsarazten digute praktika politiko indibidualizatuek dimentsio kolektiboa ere badutela, zeinahi dela kolektibotasun horren adierazpena. Esan nahi baita, indibidualizazioak eta kolektibismoak tentsioan dauden bi ardatz ezartzen dituzte gazteen aktibismo berrian: bata orain arte euskal gizartearen zati esanguratsu batean indarrean egon den politika komunitario eta parte-hartzailearen tradizioari jarraipena ematen dio; besteak, berriz, tradizio horrekin etena dakar.

Euskal tradizio kontrahegemonikoaren ikasketa politikoa gauzatu den esparruetan txertatutako *habitus* parte-hartzaileak tradizio horren jarraitutasun-hariari eusten dio, non eta belaunaldi aktibista berriei transmititutako parte-hartzearen eta konpromisoaren oinarritzko bulkadan. Baina, partaidetzaren aldeko *habitus* hori egungo esparru politikoaren egiturazko baldintza berrietara doituta agertzen da. Zehatz adierazita, erregulazio kolektibo instituzionalak ahuldu egin dira, bai. Kolektiboaren nolakotasunak ez du, jada, instituzio nagusi

batzuetan oinarrituriko sendotasun finkorik; orain, lehen baino adierazpen askotarikoagoak ditu. Hartara, egoera berrirako balio duen jokabide-eredurik ez dagoenez, *habitus* aktibista duten gazteek bestelako kideztazko loturak eraiki behar dituzte besteekiko elkarrekintzan, talde batean aintzatetsiak izan ahal izateko, interes-komunitateen inguruan lokarriak sortzeko eta hainbat kausaren aldeko ekintza kolektiboetan parte hartu ahal izateko. Horrela,

Konpromiso aktibistak berak kolektibobaten kide izatearen sentimendua ematen die parte hartzen duten gazteei. Partaidetza prozesu egituratzailea da; beren nortasun-premia indibidualak eta kolektiboak asetzeko aukera ematen die

parte hartu ahal izateko. Horrela, konpromiso aktibistak berak, bere prozesuan, kolektibo bateko kide izatearen sentimendua ematen die parte hartzen duten gazteei. Alde horretatik, ikusten dugu partaidetza prozesu egituratzailea dela; bada, beren nortasun-premia indibidualak eta kolektiboak asetzeko aukera ematen die gazteei, bai eta munduan 'beren lekua' aurkitu dutela hautemateko abagunea ere. Oro har, kide izate horrek ez dio dagoeneko erreferentzia egiten estatuari, ezta, batzuetan, euskal esparru politiko

(instituzionala)ri ere, komunitate informaleko eta lekukoagoari baizik, edo, besterik gabe, tokian-tokian gauzaturik ere, ekintza-logika globalekin lotuta dagoen mikropolitikari.

Inoiz ez dut kolektibo batean parte hartu, ez nengoelako ehuneko ehunean ados defendatzen dituzten idealekin; baina, hemen bai. Izan ere, elkar prestatzen goaz. Eztabaida talde bat dugu. Orduan, nik zerbaiti buruzko zalantzaren bat badaukat, modu egokian galdetzen dut, min eman dezaketen identitate-auziak daukelako, eta saiatzen gara eztabaidatzen [...] Elkar eraikitzen goaz. (Emakumea, 18-24. Bizkaia. LGTBI taldea) [Itzulita]

Nik uste dut lehen urte horretan izan zela [...] zortzi gaztez okupatutako etxe bat, oso trinkoa, oso politizatua etxea, laguntasun erlazio polita garatu, komunitate bizitza oso polita eraman, eta

sortu nukleo fuerte bat, eragin zuzena eduki zuena auzoaren garapenean. (Gizona, 25-30. Araba. Etxebizitza okupatu autogestionatuen komunitatea)

Horrela, euskal gizartean sustraitutako antolamendu- eta kultura-oinarria abiapuntu badute ere, komunitatearen eta kolektiboaren alderdi berriak ekintzaileek beraiek sortu eta birsortu behar dituzte Bigarren Modernitatearen berezko baldintza sozial eta politikoen pean. Horretarako, dagoeneko beren biografien linealtasuna galdu duten gazteek trebetasun eta baliabide parte-hartzaileen jabe izan behar dute, sareak osatzeko, aliantzak egiteko eta beste batzuekin hainbat eskalatan negoziatzeko. Era berean, sare horiek egungo egoera sozial eta ekonomikoan sortutako egonkortasunik ezari eta ziurgabetasunari aurre egiteko aukera ematen diete. Horren adibide dira antolaketa-modu malguak, askotarikoak eta deszentralizatuak aldarrikatzen dituzten proposamenak, lankidetzak kolektiboa bermatzea eta, aldi berean, nortasun aktibisten identitate-komplexutasuna babestea ahalbidetzen baitute.

Nire ustez, asko dago ikasteko, adibidez, mugimendu feministatik, ze mugimendu feministan belaunaldi gazteak ari gara atxikitzen eta antolatzen. Eta nik uste dut hor dagoela permeabilitate bat edo marjina gehiago probatzeko eta asmatzeko [...] Beste zerbaitekin, zure identitate propiotik ekiteko, eta arazoak nolabait erantzuteko eta hausnartzeko, zugandik abiatuta. Nik uste dut feminismoak eskaintzen dituela horretarako tresna teorikoak. Nola zeharkatzen diren esplotazio eta dominazio sistema ezberdinak, eta hor zer kokaleku daukagun emakumeok, gazteok [...] Eta gero, behar ditugu, beharbada, artikulazio forma lausoagoak, hau da, gune askotarikoak elkartzeko eta gero berriz aldentzeko. Eta egitura zurrun bat bezala funtzionatu beharrean, olagarro bat bezala funtzionatzea, ramifikazio desberdinak dituen, eta unean uneko beharren arabera funtzionatzen duena. (Emakumea, 25-30. Nafarroa. Talde feminista)

Horrenbestez, gazte ekintzaile berritzaileen esperientzietan identifikatutako indibidualizazio-moldeak elkarlana baimentzen duten ereduak direla uste dugu. Hain zuzen ere, gazteok beren identitateak modu buruaskian definitzeko egiten

dituzten saiakerak besteekin lankidetzan planteatzen dituzte; zehazki, berdinekin batera jarduteko borondatea dute itsatsita ahalegin horiek. Asmo hori erraztu egiten da, logikoaenez, bizitza komunitarioa oso trinkoa eta sendoa den testuinguru sozialetan –dimentsio ertain edo txikiko herrietan, hiri handietako auzo oso mobilizatueta–, hitz batean, autoantolakuntzaren tradizio politikoak irauten duen guneetan.

Okupazio bat egon zen gazteok leku bat behar genuelako [...] Izatez, Gernika oso aktiboa izan da beti. Pila bat elkarte eta mugimendu sozial egon da beti hemen [...] Baldintzak ziren herriak gestionatzea hori, hau da, udalak ez sartzea eskua, autogestionatua izatea. Orduan, hori dela eta, prozesu bat sortu zen, parte-hartze prozesu bat herrian. (Emakumea, 25-30. Bizkaia. Kultura-gune autogestionatua)

Oro har, esan dezakegu euskal aktibista gazteen artean aztertutako gazte-praktika politikoak berrikuntza sozialeko laborategiak direla, eta gazteok esparru politikoaren ertzetatik lehiatzen direla indarrean dauden herritartasun-moduak zabaltzeko edo modu horien ordez beste aukera batzuk sortzeko. xx. mendeko herritartasunaren forma nagusia estatuen arabera eratu zen, eta, gaur egun ere, herritartasun eredu hori alderdi-ordezkaritzaren bidez eta hauteskunde bidez gauzatzen da herritarrentzat. Jarraibide horren ondoan edo jarraibide horren aurka, gazteen parte-hartze aktibistak partaidetza-dibertsifikaziorako bideak ireki ditu, bizitza-formula alternatiboen eta eredu soziopolitiko berrien bitartez etengabeko esperimentazioak eginda eta, besteak beste, politika bizitza sozial eta pertsonalera lekuz aldatuta. Ekintzaile gazteen praktika esperimental horiek esparru oso desberdinetan eta adierazpen arras desberdinen bitartez bilatzen dute eraldaketa nahiz emantzipazioa. Badaude, egon, horien guztien arteko elkarguneak. Baina, bidegurutze ugari ere erakusten dute. Sormen-tailerrak diren aldetik, funtzio prefiguratioa garatzen dute etorkizuneko eredu aurrea hartzeko. Horretarako, eremu sozial eta politikoaren ertzetan, ezagutzak eta esperientziak sortzen eta trukutzen dituzte, nork bere burua

antolatzeke moduak probatu, proiektu sozioekonomiko eta kultural berriak abian jarri eta bestelako harremanetarako saiakuntzak egin, sozialki zilegi denaren mugak hautsi nahian.

Kanpora joaten garenean bizitzen gara komunan, bizitzen gara denok batera, eta denon artean antolatzen dugu dena, beharren arabera [...] Beste bizitza-eredu bat posible dela ikusten duzu bertan. (Gizona, 18-24. Gipuzkoa eta Araba. Hainbat herri ekimen)

Egun, bizi gara ehun eta piko pertsona etxe horiek okupatzen [...] Gure asmoa da produkzio bitartekoak apropiatuz, poliki-poliki, geroz eta dependentzia gutxiago izango dugula merkatuarekiko. Orduan, alde batetik, komunitatea indartu, planteatuz harreman sozial sanoak. Eta, beste alde batetik, erakutsi eredu berri bat posible dela. Bizi garen gehienok gara gazteak. (Gizona, 25-30. Araba. Etxebizitza okupatu autogestionatuen komunitatea)

Ondorioak

Testu honetan euskal ekintzaile gazteek demokrazia liberale-tan definitutako esparru politikoaren ertzetan burutu dituzten praktika politiko berritzaileak aztertu ditugu. Praktika horiek politikaren zentzua esparru sozial berrietara zabaltzen duten herritartasun aktibistaren ekintzat hartu ditugu. Alde horretatik, parte-hartze politikoa eguneroko bizitzako esparruetara eraman dute aktibistek, eta eremu horiek herritartasun-leku bihurtu dituzte.

Berritzailea den gazte-partaidetza aktibista garatzeko prozesuan, testuinguru soziopolitiko partikularraren garrantzia erakusteko aukera eman digu analisiak. Izan ere, subjektu ekintzaile legez osatu diren gazteek oinarrian izan dute euskal politikagintzan orain arte iraun duen aukera politikorako egitura berezi bat: hain zuzen ere, 'nation building' proiektuei lotutako tradizio luzeko kultura politiko komunitario, kontrahegemoniko eta aktibista. Kultura politiko horretan sozializatu dira adin goiztiarrean gazteok, eta kultura horri esker barneratu dute partaidetza sortzaile eta eraldatzailearen aldeko *habitus*-a, alegia, esparru politikoak eskaintzen dituen aukerak identifikatzeko eta bertan jarduteko gaitasun multzoa.

Tradizio horren oinordeko direla sumatu arren, ekintzaile gazte asko politikoki eta organizatiboki araututa ez dauden eremuen esplorazioan sartu dira. Jardun horretan, logika indibidualizatuago baten barruan garatu dituzte esperimentazio politikoak. Bada, autorrealizazioa eta konpromiso sozio-politikoak, eguneroko mikropolitika eta aktibismo kolektiboa baturik agertzen dira aipatu saiakeretan. Ildo horretan, beren *habitus* parte hartzailea Bigarren Modernitateko gizartearen berezko baldintza estruktural, kultural eta politikoetara egokitu da. Hala, herentziak eta esperimentazioak bat egin dute beren praktiketan.

Indibidualizazioa eta zentzu kolektiboa elkarrezinak direla uste duten zenbait planteamenduren aurka, ikusi dugu bi dimentsio horiek uztartuta agertzen direla euskal gazteen praktika ekintzaile berritzaileetan. Horien esperientziak aztertu

Indibidualizazioa eta zentzu kolektiboa elkarrezinak direla uste duten zenbait planteamenduren aurka, ikusi dugu bi dimentsio horiek uztartuta agertzen direla euskal gazteen praktika ekintzaile berritzaileetan

ondoren, defendatzen dugu politika indibidualizatu eta bizi-proiektu pertsonalak besteengana bideraturik egon daitezkeela; are gehiago, berdin arteko lankidetzeta eta laguntza behar dutela gauzatu ahal izateko. Halaz ere, nabarmendu behar da gaur egungo kulturaren orientazio kolektiborik egon ez dagoela *per se*. Aitzitik, aztertzen ari garen gazteen kasuan gertatzen den bezala, eskatzen du inplikaturako gazteak beren partaidetzeta-praktiketan lankidetzeta-sareak eta loturak eraikitzeko beharrezko baliabide

kognitiboen eta harreman-baliabideen jabe izatea. Izan ere, hortik abiatuta baino ezin da praktika kolektiboa osatu.

Ildo horretan, orain arteko beste ikerketa batzuetan erakutsi den ebidentzia berretsi dezakegu: gazteen parte-hartzea baldintzatzen duten egiturazko murrizketak egon ohi dira, eta

horiek eragina izan ohi dute gazte partaidetzaren aukeretan ez ezik herritartasun aktibista bat osatzeko ahalmenetan ere. Bada, hemen aztertu ditugun ekintzaile gazte berritzaileek gutxiengo bat osatzen dute; gutxiengo horrek kultura- eta politika-kapital handia dauka, are gehiago, kapital aktibistaren jabe da. Halaz ere, jasotako narratibetan gazte ekintzaileek ez dute metaturiko ezagutza eta eskarmentua pribilegio sozial gisa hauteman. Gehienez, genero-joerak baino ez dira aditu modu esplizituan bazterketa-ardatz gisa azpiesparru aktibistaren beraren barruan.

Hari beretik, nabarmentzekoa da, elkarrizketatutako gazteek jatorri sozio-familiar desberdinak dituzten arren, desberdintasun horiek orekatu dituen elementu partekatua dutela: ingurune komunitario politizatueta izandako esposizio goiztiarra eta esperientzia aktibista luzea, autonomiaz jarduteko eta apustu politiko berritzaileetan arriskatzeko aukera eman diena. Hauxe ondorioztatzen dugu, beraz. Batetik, norbanakoari dagokionez, esperientzia aktibista, hau da, dagoen errealitatearen irakurketa kritikoa egiteko eta errealitate berriak eraikitze gaitasuna sortzen dituen jarduera, berez, jarduera kognitiboa da, batik bat instituzionalki gutxi araututako esparruetan. Bestetik, gizarteari dagokionez, testuinguru soziopolitiko partikularreko aukerek modu erabakigarrian baldintzatzen dute jarduera horretarako baliabideak eskuratzea. Horregatik, uste dugu bi faktore horien eragina kontuan hartu behar dela herritartasun praktika berrien sorreraren azterketan, egiturazko beste baliabide batzuen maila berean.

Politikarekin harremanak hautsi dituzten gazteak. Lotura politikorik ezaren askotariko esanahiak

Azken urteotan, Mendebaldeko sistema demokratikoetan hainbat eskalatan egindako inkestek erakutsi dute gero eta gazte gehiagok adierazten duela politikari buruzko interesik eza edo urruntze sentimendua. Era berean, egungo esparru publikoan, gazteria apatiko eta despolitizatuari buruzko

narratiba nagusi bat zabaldu da, elite politikoeek, eragile korporatiboek, hedabideek eta gizarte zibileko erakundeek bultzatu dutena eta, pixkanaka, gure ingurune kulturallean indarrean dagoen sen oneko ezagutzan naturalizatu dena. Horiek horrela, zein esanahi ematen diote deskonexio politikoari beren burua 'apolitikotzat' edo 'despolitizatutzat' definitzen duten euskal gazteek?

Gazteen lotura politiko ezaren arrazoi konplexuak

Gaur egun, alde batetik, Bigarren Modernitatearen indibidualizazio-prozesu kulturelek zeharkatzen dute esparru politikoa, eta, beste alde batetik, gero eta indar handiagoz gailendu diren politika ekonomiko neoliberalak. Bi dinamika horien logikak hartu du, bete-betean, esparru politikoa. Il-do horretan, gazte-bizitzaren indibidualizazioak eta ustezko aukera-askatasunak ifrentzu latza dute. Bada, instituzioen arautzetik kanpo, gazte askok beren baliabide eta trebetasun soilez baliatuta eraiki behar dituzte biografiak egungo egunean, eraikuntza horretarako beharrezkoak diren bitartekoak izan gabe, sarritan. Ez da ahaztu behar gazteen egungo trantsizioak lan- eta ekonomia-prekaritateko egoeran garatzen direla gazte askorentzat, bizi-ziurgabetasuna eta linealtasun biografiko eza nagusi diren kinka larrietan. Izan ere, sarritan gazteen trantsizioen konplexutasuna 'hautazko biografia' gisa aurkezten den arren, ustezko askatasun horrek lan-merkatu malguk eragindako desabantaila- eta zaugarritasun-egiturak ezkututzen ditu. Egiturazko faktore baldintzatzaileek (posizio ekonomikoa, generoa, etnia, eta abar), faktore pertsonalek gazte-trantsizioetan eragindako zailtasunek (kasuan kasuko sare sozialak, familia-sozializazioa, komunikazio-gaitasuna) eta instituzionalek (hezkuntza-sistemak, lan-egiturak) osatzen dituzte, besteak beste, desabantaila egitura horiek. Bitarteko sozial horien guztien urritasunak, integrazio soziala ez ezik, politizazio-aukerak ere zailtzen ditu.

Halaxe da. Estratifikazio sozialaren forma tradizionalak bizi-aukerak ulertzeko gakoa dute oraindik ere, nahiz eta egitura horien eraginaren kontzientzia subjektiboa murriztu egin den bizi-esperientziak indibidualizatuago bihurtu ahala. Horrela, aintzat hartu behar dira familia-desberdintasunak, baliabide ekonomikoak, erlazionalak eta kognitiboak eskuratzeko aukerak, eta esparru politikoak eskainitako aukera instituzionalizatuak nahiz informalak (gubernuetan, eskoletan, gizarte zibilean). Izan ere, faktore horien guztien baldintzapenak agertzen dira gazteen interesak, praktika politikoak eta politizatze maila analizatzean. Ildo horretan, generoak, klase sozialak eta kapital kulturalak interes eta parte-hartze politikoaren iragarle onak izaten jarraitzen dute, bai esparru instituzionalean, bai informalean. Argudiatze-ildo horretan, gazteriaren deskonexio zibikoa eta politikoa bazterketa sozialaren beste dimentsio bat dela esan daiteke.

Halaz ere, argi utzi behar da gazte askoren barne-eraginkortasunik edo eskumen politikorik eza egungo demokrazia liberaletako instituzioen eraginkortasunaren defizitarekin batera gertatzen dela. Globalizazio neoliberalaren prozesuek eta estatuen birkokatzeak botere globalaren eremuetan kontrol demokratikotik urrundu dituzte estatuko nahiz tokiko instituzio politikoak, eta eragile ekonomiko global handien orbitan jarri dituzte. Politikak diseinatzen eta erabakiak hartzen diren lekuak herritarrengandik gero eta urrunago geratu dira, eta, beraz, kontrol demokratikorako aukerak eta mekanismoak ahultzen ari dira. Gazteen artean, sistema demokratikoaren eraginkortasunik ezaren pertzepzioa zabaldu da zuzenean eragiten dieten gaietan, bai eta haren funtzionamenduaren kontrolari buruzko ezintasun-sentimendua ere.

Bestalde, erakunde politikoei egotzitako eraginkortasunik ezaren aurrean gazteek dituzten askotariko erreakzioak atzemateko, ohiko dikotomietatik harago joan behar dugu; gazte aktiboak/pasiboak, gazte konprometituak/interesik gabeak eta antzeko binomioek ez dute modu egokian islatzen errealitatearen konplexutasuna. Izan ere, jarduera

politikoarekin gertatzen den bezala, deskonexioaren eta pasibotasun politikoaren atzean adierazpen eta esanahi ugari daude. Askotan, mundu akademikoan aterki kontzeptual lauso eta polisemikoen pean katalogatuta agertu dira errealitate horiek: apatia, interesik eza, erretiratzea, deskonexioa, pasibotasuna, alienazioa...

Batzuentzat, gazteen lotura-hauste gero eta masiboagoa ekintza-modu berria eta boteretsua da. Egungo politikatik ihes egitea eta agenda beste gune batzuetan eraikitzea sistema zalantzan jartzeko modu bat izan daiteke, ikuspegi horren arabera. Ildo horretan, ikerketa kualitatibo batzuetan baztertu egiten da deskonektatutako gazte guztiak zinikoak eta alienatuak izatearen ideia nagusia. Aitzitik, erakusten da gazte horietako asko kritikoak direla indarrean dagoen politika ereduarekin, alderdiekin eta politika instituzionalarekin. Hari beretik, beste azterlan batzuek gazte deskonektatuen potentzialtasuna azpimarratzen dute, eta gehitzen dute gazteok aktibatzeo aukerak baino ez lituzketela beharko. Bada, gazte batzuek gai politikoetan interesa izan dezakete, eta, apatia baino gehiago, eszeptizismo 'konprometitua' dute ezaugarri, beste politika estilo batzuk interesatzen baitzaizkie. Beraz, aipatu interpretazioaren arabera, herritar 'potenzial' horiek ez dira nahitaez zinikoak, ezta erabat ezjakinak edo eraginkortasunik gabeak ere. Baztertuta dauden arren, baliabideak dituzte eta une egokietan atera daitezke beren lozorrotik.

Ikusten ari garenez, pasibotasun politikoak hartzen dituen modu desberdinetan eta horren atzean dauden motibazioetan sakonduta, pasibotasun politikoa ez da dimentsio bakarreko fenomenoa. Ildo horretan, aztertzaile batzuen ustez, gazte 'benetan pasiboak' eta konprometitu gabeak daude, alde batetik, eta ilusioak galdutako gazteak, bestetik. Herritar aktiboekin batera, talde horiek kategoria desberdinak osatuko lituzkete beren jokabide politikoari dagokionez. Halaz ere, analisisetan arreta berezia jarri da hirugarren kategoria batean: hain zuzen ere, une jakin batean pasibo agertu arren, egoerak merezi izanez gero ekintza politikorako prest egongo lirakeen gazteek

osatutako multzoan. Azken horiek ‘zain’ dauden herritarrak dira, erne inguruan gertatzen denaren aurrean, informaturik politikari buruz, jakitun beren eguneroko bizitzan eragina duten arazoez eta gertu parte hartzeko, partaidetza horretarako gai baitira behar izanez gero. Horregatik, nolabaiteko ‘erreserbako herritartasuna’ izatea egozten zaie. Ildo beretik, azterketok baztertu egin dituzte aurreiritzi estereotipatuak; lotura politikorik gabeko gazte guztiak ez dira zinikoak eta ez dute multzo homogeneo bat osatzen, diote. Horrela, konpromisorik eza eragiten duten arrazoiengatik, inplikazio politikoak oztopo iraunkorrak izan ditzake (baliabide soziopolitikoengatik gabeziarekin nahiz indarrean dagoen sistemarekiko jarrera kritikoei lotutakoak), edo aldi baterako trabak (batzuetan, adina edo bizi-zikloa dela-eta, beren gai pribatuetan aldi baterako murgilduta daudenei eragiten diete oztopo horiek). Azken bi egoera horietan dauden kolektiboek etorkizuneko konpromiso-potentziala dute.

Bestalde, herritartasun potentziala edukitzeaz gain, politikan interesik gabekotzat edo deskonektatutzat katalogatutako kolektiboa beste politizazio-modu batzuen protagonista ere izaten da. Ikerketa batzuek iradokitzen dutenez, gazte asko atsekabetuta sentitzen da beren behar eta interesei erantzuten ez dieten egitura politikoekin, baina oraindik ere interesatuta dago gai sozial eta politikoetan, eta sistema politikoaren onarpenaren bila jarraitzen du. Askotan, beren praktikak ez dira parte-hartze instituzionalera edo ohiko protesta-aktibismora bideratuta egoten, inplikazio-mota informalago, indibidualizatuago eta egunerokoagoetara baizik. Hortaz, partaidetza praktika

Deskonexioaren eta pasibotasun politikoaren atzean adierazpen eta esanahi ugari daude. Askotan, mundu akademikoan aterki kontzeptual lauso eta polisemikoen pean katalogatu eta agertu dira errealitate horiek

horiek oharkabean geratzen dira ohiko inbentario politikoe-tan. Hari horri jarraiki, gero eta gehiago dira, gobernutik eta politikagintzan aktore nagusi izan diren alderdi politikoeta-tik deskonektatuta egonik, politika pertsonalizatzen duten gazteak; hala, beren jokabideak eta aukera etiko-politikoak gustuetan, bizi-estiloetan, kontsumo- eta aisia-moldeetan na-barmentzen dituzte. Esparru publikoari dagokionez, berriz, gazte jende horren segurtasunik ezak eta indibidualizazioak, batzuetan, parte-hartze mugatuak, iragankorrak eta autoa-dierazkorrak eragiten dituzte. Ondorioz, gazte talde gero eta gehiagok garatzen dituzte herritar-biografia ‘bereziak’ ikus-pegi politiko tradizioaletik begiratuta: hain zuzen ere, dina-mika pribatu arinak, eta konpromiso jariakorrak eta iraupen laburrekoak kolektibo nahiz elkarte informaletan.

Euskal gazte ‘despolitizatuak’

Gazteria despolitizatuaren eta subordinatuaren autoirudikapena

Azterlanaren atal honetan parte hartu duten gazteen narrati-ben azterketak agerian uzten du ez dutela kolektibo homoge-neoa osatzen. Nahiz eta guztiek ‘politizatu gabekotzat’ eta/edo ‘politikari buruzko interesik gabekotzat’ definitu duten beren burua, aniztasun handia dago euren artean, bai jarrera eta praktika politikoetan, bai politikari buruzko ezagutza- eta in-teres-mailan. Horrenbestez, beren ibilbideak desberdinak izan dira politizazio-mailei eta esperientzia politikoei dagokienez.

Halaz ere, irudikapen kolektibo bera partekatzen dute ehun sozialean duten posizio sozialaz. Badakite, jakin, ‘gaz-teria’ izenez ezagututako kategoria sozial baten kide direla, gaur egungo gizartean mendekotasun-egoeran bizi dena eta, gehienetan, politika publikoetatik kanpo dagoena. Gazteen bizitzaren indibidualizazioaren ondorioz, belaunaldi gaztee-netako pertsonak desarauturik dagoen testuinguru sozial eta lanekoan osatu behar dituzte biografiak, beren baliabideak besterik ez erabilia. Baina, gazte askok ezin dituzte balia-bideok eskuratu. Hartara, gazteen trantsizioen zailtasunak

behin eta berriz geratzen dira agerian elkarrizketetako eta eztabaida-taldeetako narratibetan, etengabe aipatzen baitituzte gaur egun orokortu diren lan- eta ekonomia-prekaritateko egoerak eta horien ondorioak bizitzetan. Zirkunstantzia horiek segurtasunik eza, ezinegona eta bizi-ziurgabetasuna sortzen dute gazteengan, eta amaigabeko ezintasun-esperientzia eragiten die, beren bizitzetan autonomiarik eta kontrolrik ez dutelako. Oro har, ikerketan parte hartzen duten gazteek 'bidegabekeria-marko' bat eraiki dute beren diskurtsoetan.

Krisi guztia egokitu zaigu, gauza txar guztiak, aldaketa guztiak [...] Ez gaituzte baloratzen. Hogei urtez ikasi dugu, eta gero ezer ez [...] Norbait finkoa izatea sinestezina da [...] Orduan, zer itxaropen eduki dezakezu ezkontzeko, seme-alabak izateko eta bizi-modu egonkorra izateko? Ez duzu zeri heldu! (Eztabaida taldea. Iruñea) [Itzulita]

Gehiago-gutxiago, azterlanean parte hartu duten pertsona guztiak izan dute gaitasuna zuzenean eragiten dizkieten arazoak identifikatzeko (besteak beste, laneko ezegonkortasuna eta prekaritatea, eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak), nahiz eta modu oso oinarrizkoan egin duten. Izan ere, euren nahiz hurbilen dituzten berdinek pairatutako esperientziak dira. Era berean, emantzipatzeko eta etorkizuneko bizi-proiektuak diseinatzeko ondoriozko oztupoak ere kontatzen dituzte. Aitorpen multzo horrek, berez, sustrai politiko ukalezina du. Haatik, gehienek zailtasun handiagoak dituzte puntu horretatik aurrera egiteko, hau da, baldintza horiek, egoera pertsonaletatik harago, sistemikoak direla ohartzeko eta, batez ere, erantzukizunak botere publikoei esleitu eta ekintza pertsonal eta kolektiboaren bidez parte aktibo izan litezkeen irtenbide kolektiboak planteatzeko.

Kontua da, zer antolatu? Ez dakigu oso ondo zer antolatu eta nola antolatu. (Elkarrizketa. Emakumea. 19-24. Basauri)

Gazteen artean adostasuna lortzen duen bigarren elementu bat politikaz duten ikuskera da. Bada, politikari buruz loturarik gabe sentitzen diren gazteek gure gizarteko sen oneko

ezagutzen nagusi den politikaren kontzeptua darabilte abiapuntu modura. Politika, hartara, esparru politiko instituzionalizatuko jarduera, aktore eta instituzioekin identifikatzen dute (neurri handi batean, estatuko edo autonomia-erkidegoko esparruan kokatuak). Irudikapen dominante horrek politikan parte hartzeko modu instituzionalizatuenak lehenesten ditu legitimo gisa, eta herritarren ekintza politiko

Politikarekin loturarik sentitzen ez duten gazteek, oro har, familia-sozializazio politiko ahula izan dute. Horien familiak ez dira tradizio politikoen transmititzaile izan, edo ez dute kultura ekintzailerik partekatu

hauteskunde-jarduerara mugatzen. Horrela, joko politiko ohiko esparru politikoan diharduten aktore nagusien monopoliotzat hartzen dute, alderdi politikoen, elite politikoen, gobernuen eta parlamentuen zeregintzat, besteak beste. Argi eta garbi, gazteok herritar potentzial gisa duten autopertzepzioak eta beren buruari ematen dioten definizioak ikuspegi hori dute abiapuntu.

Horrenbestez, beren alderdiei buruzko atxikimendu eza, politikari profesionalei buruzko mesfidantza, sistema politikoaren funtzionamenduaren ezjakintasuna edo azken horri buruz daukaten iritzi txarra –gazteen eskaeren aurrean erakutsitako itxikeria tarteko– borondatezko autobazterketa gisa interpretatzen dute.

Konpromiso zibiko aktiboaren eta autoirudikapen despolitizatuaren arteko bateragarritasuna

Haurtzaroan eta helduarorako trantsizio-aldietan egiten diren lehen ikaskuntzetan landutako esperientzietan, gaitasunetan eta interesetan dauka bere jatorria gazteen parte-hartze politikoak. Gaur egungo kultura gero eta indibidualizatuagoan, identitate sozial eta politikoen belaun arteko

transmisioa arintzen ari da pixkanaka, nahiz eta helduaroan aldaketak eta birsozializatzeko prozesuak gerta daitezkeen. Politikarekin loturarik sentitzen ez duten gazteek, oro har, familia-sozializazio politiko ahula izan dute. Horien familiak ez dira tradizio politikoaren transmititzaile izan, edo ez dute kultura ekintzailerik partekatu. Aldiz, aztertutako gazteon kolektiboaren jatorrian ezaugarri hauexek nabarmentzen dira: haurtzaroan nahiz gaztaroan politikak bazterreko lekua izan du beren familietan eta ingurune sozialetan; areago, behin baino gehiagotan, gai gatazkatsua izan da eta desadostasunak sortu ditu. Horregatik, isildu egin da edo konnotazio negatiboak hartu ditu gazteen bizipenetan.

Bestalde, desabantaila sozialei lotutako beste ezaugarri soziodemografiko batzuek areagotu egin dituzte, zenbait kasutan, zuzenean bizitako esperientziarik eza eta ikaskuntza politiko goiztiar ahula. Horiek horrela, aipaturiko baldintzek oztopatu egin dute gazte horiek baliabide kognitibo jakin batzuk, parte hartzeko trebetasunak eta sistema politikoari dagokionez herritartasun aktiboa eraikitzeko beharrezkoak diren beste zenbait disposizio eskuratzea. Horren guztiaren ondorioz, gazte horietako askok aktore gisa bainoago ikusle gisa hautematen dute beren burua kanpoko jotzen duten mundu politikoan, adituen aurrean ezjakin sentitzen dira, eta agentzia moduan eratzeko zailtasunak dituzte.

Haatik, elkarrizketen bitartez luzetarako perspektiban berreraikitzen saiatu garen ikaskuntza-prozesuek agerian uzten dute arlo politiko-ideologikoan edo politiko-alderdikoian familia-transmisio espliziturik egon ez izana ez dela oztopo izan familiek belaunez belaun beste osagai batzuk helaraz ditzaten, besteak beste, konpromiso komunitarioarekin bateragarriak diren balio humanista edo erlijioso jakin batzuk, eta bizitza kolektiboarekin lotutako kezka etikoak eta solidarioak. Familiak ez ezik, beste agentzia sozializatzaile batzuek ere garrantzi handia izan dute dinamika horietan, sarritan familiaren eragina indartzeko hautatu den eskolak, adibidez. Ildo horretan, antzeko hainbat ibilbide atzeman ahal izan

dira elkarrizketatutako gazte batzuen artean. Ohiko politika-gintzatik urrun, gazte horiek gero eta inplikazio handiagoa izan dute erlijioeko hezkuntza-erakundeek sustatutako jarduera zibikoetan eta boluntariorizan. Ikusi izan da, erakunde politikoek bezala, gizartean errotutako erlijio-erakundeek ere konpromiso sozialerako balioen ondare bat eskaintzen dietela gazteei, inimizazio zibikorako antolamendu-sareak, gizartean integratu ahal izateko soziabilitate-ehunak, eta, bereziki, agentzia gisa jarduteko aukera objektiboak, nahiz eta erakundeen ezaugarriak direla-eta oso modu mugatuan izan. Gazte horiek uste dute beren ekintzek eragingortasun handia dutela eta inplikazioaren emaitzak agerikoak direla, politika instituzionalean ez bezala.

Ni, adibidez, Nafarroara etorri diren errefuxiatuekin [elkarte batean] egon naiz, eta gaztelania irakasten aritu naiz, irabazi asmorik gabe, asteroko boluntarioriza batean. (Eztabaida taldea. Iruñea) [Itzulita]

Horrenbestez, zerbitzu publikora bideratutako erakunde handiek eskaintzen duten parte-hartze zibikoko edo boluntariorizako aukera egokitu egiten zaie aldaketa sozialeko aktibismorik bilatzen ez duten gazteei, hain zuzen ere, gizartean 'politiko' gisa etiketatu nahi ez baina kezka solidarioak dauzkaten horiei. Era berean, tradizioz emakumeei esleitutako genero-rol jakin batzuen itxaropenetara egokitzen da eskaintza hori (zaintza eta besteei laguntzea). Bada, genero sozializazioaren eraginez, neska jakin batzuek autorrealizazio-zentzu handiagoa lor dezakete jarduera mota horietan beste ohiko partaidetza rol batzuetan baino. Ildo horretan, nabaritu dugu gazte boluntarioek jarduera zibikoari eta konpromiso politikoari egozten dizkieten esanahiak guztiz desberdinak direla gehienetan. Are gehiago, esparru sozialean nahiz indibidualean sari sinboliko garrantzitsuak eskaintzen dizkien konpromiso zibikoaren aldean, ohiko parte-hartze politikoa ez zaie inplikatzeari merezi duen ekintza eragingarria iruditzen. Beren pertzepzioan, esparru politikoak eta harekin lotutako guztiak konnotazio negatiboak hartzen ditu;

sarrera zaileko esparru arrotz eta itxiztat daukate, eta arazo sozialak, bereziki gazteen arazoak, konpontzeko eraginkortasunik eza egozten diote.

Salestarretan gazte-zentro bat zegoen eta joaten hasi nintzen; eta gero aisialdiko begirale gisa sartu nintzen. Jarduerak prestatzen genituen han zeuden neska-mutilentzat. Eta gero Gurutze Gorrian sartu nintzen [...] Niretzat atsegin-iturri zelako. Nik Gurutze Gorria leku askotan ikusten nuen laguntzen, eta nik ere laguntzeko gogoia nuen. Urtebetez ikasten egon nintzen, eta gero begirale gisa sartu nintzen gazteriaren arloan [...] Gaur egun, Gurutze Gorrian jarraitzen dut, ia hamar urte daramatzat dagoeneko [...] Txiki-txikitatik esan digute botoa ematera joan behar dela, baina niretzat ez da atsegina. Nik ez dut uste bozkatzuz gero ezer lortuko denik. (Elkarrizketa. Emakumea. 25-30. Iruñea) [Itzulita]

Hiru jarraibide gazteen erretiratze politikoan

Aztertutako kolektiboan jasotako adierazpenek sistema politiko instituzionalaren ikuspegi kritikoa eta ezkorra partekatzen dute. Erakunde politikoaren eraginkortasunik eza, elite politikoaren ustelkeria eta bat etortzea botere ekonomikoekin, eta gazteen eskaerei entzungor egin izana frankotan aipatu dira elkarrizketetan nahiz eztabaida taldeetan. Jasotako diskurtsoen azterketa xeheak gazteen erretiratze politikoaren jatorrian dauden hainbat eredu kausal identifikatzeko aukera eman digu, erretiratze hori gradu eta adierazpen askotan gautzen bada ere. Nahiz eta batzuetan nahasita agertzen diren gazteen diskurtsoetan, jasotako iritzi kritikoek lotura hauste politikoari buruzko esanahi eta ñabardura desberdinak estaltzen dituzte. Zehazki, gazteen erretiratze politikorako hiru jarraibide ideal berreraiki ditugu. Lehenengoa baliabideen gabeziaren ondorioz gertatzen da, eta desberdintasun sozialeko faktore sozio-estrukturei lotuta dago, batik bat. Bigarrena indarrean dagoen sistema politikoaren ezagutzak eta hartan parte-hartzeak eragin duten desilusioak sortzen du. Azkenik, erretiratzeko hirugarren jarraibidea, betebeharrizibiko baten kontzientzia izanda, parte hartu eta eragin nahi

duten gazteei dagokie; modu eraginkorreetan egiteko biderik aurkitu ezinik, frustrazioari lotutako paralisia-ondorioz sortzen da. Ikus ditzagun banan-banan.

Erretiratze politikoaren lehen motak lotura zuzena dauka desberdintasun sozialek eta baliabide sozialetarako sarbide asimetrikoak eragindako ondorioekin, hitz batean, gaur egungo gazteen sektore esanguratsuek pairatzen dituzten gabezia-egoerekin. Gabezia hori ez da soilik ekonomikoa; aitzitik, baliabide kognitiboen, komunikatiboen, harreman-baliabideen eta kapital kulturalaren falta ere bada, eta horrek zaildu egiten du esparru politikoan eskatzen diren partaidetza-disposizioak eta -trebetasunak garatzea. Honako hauek dira barne-eraginkortasun politikoaren gabezia horren ondorio nabarmenetako batzuk: joko politikoaren berezko arauak ulertzeko gaitasun urria, gazte azpikulturen barruan kode politikoek duten arrotasuna eta, azken batean, iritzi legitimoa lantzeko, hitz egiteko, entzuna izateko eta agentzia gisa jarduteko aukera murriztasuna.

Ez dezatela ulertzeko zailak diren hitzekin hitz egin, gehiago hurbil daitezela; denok ez ditugu unibertsiteateko karrerak, denok ez ditugu ulertzen erabiltzen dituzten ekonomia hitzak. (Elkarrizketa. Emakumea. 25-30. Iruñea) [Itzulita]

Politikaz ere ez genuen ezer ulertzen. Eta gero politikariak ikusten genituen eta botoa besterik ez zuten eskatzen. Barkatu? Ez dakigu zer saltzen diguzun eta ulertu ere ez dizugu egiten! Eta herritarren errealitatean ere ez dira sartzen, ez dute herritarren alde egiten. [...] Oro har, politikak ez nau erakartzen, ez baitut ulertzen hitz egiteko duten modua; hiztegi zaharrarekin hitz egiten dute. (Elkarrizketa. Emakumea. 25-30. Iruñea) [Itzulita]

Onartzen dut jende askok iritzia eman nahi duela, baina ez du ideiarik ere. (Eztabaida taldea. Bizkaiko Ezkerraldea) [Itzulita]

Politikatik erretiratzeko bigarren pauta bat dago, aurrekoaren oso bestelako esanahiarekin. Parte hartzeko baliabide kognitiboak eta trebetasunak izanik, barne-eraginkortasun politikoak adierazten duten pertsonak burutzen dute. Gazte informatuak eta politikan interesatuak dira, esperientzia

politiko batzuk metatzen dituztenak eta politika munduari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna dutenak. Il-do horretan, herritarren arazoetatik urrun dagoen eta arazo horiek konpontzeko gai ez den sistema politiko batekin harreran estua izan ondoren, haren eraginkortasun faltaren ondorioz urrutiratu dira politikatik. Autobaztertze kritikoa da, beraz, desengainuak eta etsipenak eragindakoa, eta sinisgabetasun eta zinismo adierazpenak jariatzen dituena.

Egia esan, urteak igaro ahala, ezagutu dudan gauzarik apolitikoena bihurtu naiz, baina modu kontziente eta bilatuan. Oro har, klase politiko osoa gorrotatzen dut, berdin zait alderdi bat ala bestea. (Elkarrizketa. Gizona. 25-30. Iruñea) [Itzulita]

Niri ia bizitza osoan interesatu zait politika, eta bozkatu egin dut, baina zenbat eta gehiago jakin politikaz, hainbat eta absurdoagoa iruditu zait botoa. Horregatik ez nuen azken aldiz bozkatu. (Eztabaida taldea. Gasteiz) [Itzulita]

Lotura hauste politikoaren hirugarren ereduak aurreko jarraibidearekin bat datozen zenbait elementu ditu. Politikan nahiko informatuta eta interesatuta dauden gazteak inplikatzeko azken jokabide honek. Gazteok ez daude gai kolektiboetatik erabat des-konektatuta, eta kezka sozial batzuk dituzte. Baina, sinisgabeak ez bezala, ez dira iritsi jarrera ziniko edo axolagabeetara; kontrara, atsekabezko edo ezinegonezko sentimenduak erakusten dituzte beren jarduerarik ezagatik. Egiazki, jarduera politikotik nahiko aparte daude, baina betebeharrizibikoaren kontzientzia dute, eta gizartearekiko bete gabeko erantzukizunarena. Halaz ere, beren aldaketa nahien tamaina dela eta, agentzia eratzeko gai ez direla sentitzen dute. Bada, aldaezin ikusten dute baztertzeko dituen eredu politiko eta soziala, gobernatzen duenak gobernatzen duela. Gaur egun

Erretiratze politikoaren lehen motak lotura zuzena dauka gaur egungo gazteen sektore esanguratsuek pairatzen dituzten gabezia-egoerekin

ageriko lorpenik gabe hainbat kausaren alde mobilizatzen diren beste kolektibo batzuen esperientziek ere areagotu egin dute ikuspegi hori. Frustrazioak, beren arazo indibidualak arazo publiko eta ekintza bihurtzeko nola jokatu ez jakiteak eta gauzak aldatzeko eta eragiteko moduetan zelan asmatu lortu ez izanak hasiera batean partaidetzaren alde izandako bultzada alferrik galtzera daramatza gazte horien kasuan. Bestalde, beren burua aurreko belaunaldien ispiluan islatuta ikustean, indartu egiten da porrot egin duen 'belaunaldi indibidualistaren' irudi kritikoa hori. Izan ere, aurreko gizaldietako irudikapen idealizatua dute, eta, ondorioz, uste dute beraien aurrekoak oso politizatu eta mobilizatutako jendea zirela, batik bat Euskal Herrian.

Ikusiko bazenu botoa ematen denean edo jendea mobilizatzen denean erantzun bat dagoela, edo zerbait ikusten dela, ba nik uste dut jendea gehiago mugituko litzatekeela. Baina denak berdin jarraitzen duenez, zertarako mobilizatuko naiz? Hor ditugu erretiratuak astelehenero, eta zertarako balio du? (Eztabaida taldea. Bizkaiko Ezkerraldea) [Itzulita]

Hemen eta nire inguruan ikusi dudana frustrazioa da. Eta, nire ustez, kontua da ez gaudela mugimendu askotan, oso frustratuta gaudelako eta ez dugulako uste egoera alda daitekeenik. (Eztabaida taldea. Donostia)

Intentsitate txikiko herritartasuna

Esan dugunez, multzo honetako gazteek 'ez-politizatu' edo 'politikan ez-interesatu' gisa definitu dute beren burua. Definizio hori egiteko politikaren ikuskera murriztailetik abiatu dira, jakina, modu inplizituan pentsaturik politikagintza esparru instituzionalean garatzen dela, eta herritarren partaidetza hauteskunde ekintzara mugaturik dagoela. Halaz ere, sistema politiko instituzionalarekin dauzkaten herritar-lotura ahulek ez dituzte pertsona erabat pasibo, apatiko edo gizartearekin deskonektatu bihurtu. Politikoki parte hartzen dute, bai; jarraitutasun-, intentsitate- eta maiztasun-maila desberdinekin, eta praktika desberdinen bidez gauzatzen dute beren

herritartasuna. Horrela, beren bizi-ibilbidearen erreposoa egitean, alde batetik, jarduera zibiko eta sozial altruisten esperientziak kontatzen dituzte, askotariko inbentarioa osatzen dutenak: haurrekin kirol-entrenamenduetan ibiltzea, Caritasen migratzaileekin lan egitea, Gurutze Gorriko jardueretan aritzea, aisialdiko begirale eta sorosle moduan lan egitea, tokiko elkarteetan eta emakume taldeetan parte hartzea, eta pertsona ezinduekin eta errefuxiatuekin boluntariotzan jardutea, besteak beste. Beste alde batetik, noiz edo noiz, aldarrikapen edo protesta politikoko jarduera informaletan ere parte hartu dute, gehienetan erakundeen bitartekaritarik gabe. Oro har, unean uneko jazoerak izan dira, kausa jakin batzuetara bideratutako partaidetzak, sarrera-irteera erraza izan dutenak. Azterketa enpirikoaren kontakizunetan, zehazki, ikasleen protestak, *fracking*-aren edo haustura hidraulikoaren aurkako mobilizazioak, Altsasu auziko gazteen aldeko ekintzak, lan-prekarietatearen kontrakoak, Martxoaren 8ko manifestazioak, indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzeak, pentsiodunen eta errefuxiatuen aldekoak, aldarrikapen animalistak eta euskara biziberritzearen aldeko jaialdiak, besteak beste, erregistratu ditugu gazteon partaidetza esperientzien artean.

Narratiben azterketak agerian uzten du testuinguru-faktore ugari daudela, lotuta edo modu isolatuan, inplikazio modu horiek errazten dituztenak. Lehenik eta behin, gazteen aktibazioari mesede egiten dio gai eztabaidagarri baten hurbiltasun sozial eta geografikoak, bereziki beren eguneroko bizitza garatzen den tokiko eremuetan eragiten badu. Bigarrenik, parte-hartzearen eragileetako bat, batez ere protesta-ekintzetan, gazteek beren interesei zuzenean eragiten dieten gai gatatzatsuei buruz sentitutako interpelazio zuzena izan ohi da. Izan ere, gai horiek beren bizitzan edo haren etapa batean berezkotzat hartzen dituzte (ikasleen rolean, genero-indarkeriak erasandako emakumeak diren aldetik, ingurumen-ondorio kaltegarriak dituen proiektu baten mehatxupean dauden eskualde bateko biztanleak diren aldetik, dibertsitate funtzionaldun pertsona baten senitarteko moduan, eta

Protesta-jardueretan
esperientzia txikia duten
gazteek *mainstream*
joerako agenda politikoei
lotutako ekintza
informaletan parte
hartzten dute bereziki

abar). Hirugarrenik, sistema politikoaren ertzetan dauden gazte horietako batzuek politizatzeko-maila handiagoa duten berdinen taldeekin harremana izaten dutenean, horien eragina jasotzen dute. Izan ere, adiskidetasun-harremanek eta gazteen soziabilitate-sareek, batzuetan, aukera ematen dute testuinguru sozializatzailerik

berrietara iristeko, non parte-hartze politikoko eta, are, aktibismo beste ikuspegi batzuk nagusitzen diren. Azkenik, herri txikietan edo erreibindikazio-tradizioa duten hiri-auzoetan bizitzeko aukera-egitura egokia ematen die gazteei inplikazio zibiko eta politikorako, noizbehinka besterik ez bada ere. Alde horretatik, Euskal Herriaren ezaugarria da gizarteko eremu esanguratsuetan errotutako komunitate-bizimoduak daudela, kultura-tradizio parte-hartzaileei eta autoantolaketa-ri eusten dietenak, eta gazteen inplikazioa errazten dutenak, noiz edo noiz izan arren.

[Parte hartzen dut] jai batzordean, haur txikientzako jarduerak eta horrelakoak antolatzen [...] Emakumeentzako [emakumeen manifestazioetara] bai, kontzentrazioak egiten dira eta horrela. Bada atal bat [elkartean], eta emakumeen afariak egiten dituzte, emakumeentzako hitzaldiak, zu babesteko eta gauza horiek egiteko... Bai, joaten naiz [...] Martxoaren 8ko manifestazioetara ere [...] [lagun] pare bat presoek elkartean inplikatuko egoten dira, eta laguntzeko, eta horrela [joaten naiz]. Ernain daude, ahal badut, beti laguntzen diet. Kontzentrazioen bat edo jardueraren bat irekita egiten badute, joan egiten naiz. (Elkarrizketa. Emakumea. 19-24. Arabako herria) [Itzulita]

Protesta-jardueretan esperientzia txikia duten gazteek *mainstream* joerako agenda politikoei lotutako ekintza informaletan parte hartzen dute bereziki. Hau da, horien inplikazioa errazago gauzatzen da delako aldarrikapena agenda publikoan dagoenean, diskurtso politiko eta mediatiko nagusiek

defendatzen dutenean eta, sen oneko kontzientzian sartuta egonik, eskaeraren oinarrien azaleko ezagutzarekin bateragarri denean. Esate baterako, genero-berdintasunarekin lotutakoa izan da gazteen narratibetan adostasun-maila handiena lortu duen aldarrikapenetako bat; ildo horretan, Martxoaren 8ko manifestazioak eta indarkeria matxistaren aurkako kontzentrazioak erreferentzia gehien izan duten partaidetza-ekitaldiak izan dira. Azkenik, protesta-politikan jarduera txikiagoa duten gazteek inplikazio politikoaren modu indibidualizatuagoak eta ahulagoak gauzatzen dituzte: mezu jakin batzuk Internet bitartez birbidaltzea eta erakunde humanitarioei edo ingurumen erakundeei kuotak ordaintzea, adibidez.

Feminismoarekin lotuta dauden [mobilizazioetara] joaten naiz. 25ean egon nintzen, eta Martxoaren 8an ere egon nintzen [...] Harro, oso harro [sentitu nintzen]. Harro nago hainbeste jende ikustez. Asko gustatu zitzaidan. (Elkarrizketa. Emakumea. 19-24. Basauri)

Mugatuak izan arren, esperientzia horiek agerian uzten dute pertsona horien artean badaudela egon hurbileko konpromiso politikorako aurretiko jarrera batzuk, batez ere horiei eragiten dieten gaitan; eta, beraz, gaur egun nahiko aparte dauden gazte batzuk etorkizuneko aktibo izan daitezkeela, bereziki baldintza politikoak eredu inklusiboagoetara eta parte-hartzaileagoetara aldatzen badira edo aldaketa-itxaropenak sortzen dituzten protesta-ziklo politikoak irekitzen badira.

Esango nuke [...] egongo dela momenturen bat zerbait espezifiko gertatzen dena, eta masa sozial konkretu bat altxatuko dena. Eta erreta daudenak ere altxatuko dira. Ez dakit nahikoa izango den aldaketa sozial bat egiteko, baina horrela gertatuko dela uste dut. (Elkarrizketa. Gizona. 25-30. Donostia)


Ondorioak

Gazteen lotura politikorik eza ezin da termino dikotomikoen arabera ulertu, adibidez, partaidetza/apatia, politizazioa/despolitizazioa edo interesa/interesik eza kategoria soilak erabilita. Gazteria konstruktua soziala da, eta kategoria sozial

horrek barnean hartzen ditu egiturazko joera berberen menpe dauden taldeak eta pertsonak –indibidualizazioa, desinstituzionalizazio politikoa eta lan merkatuaren desarautzea dira, batik bat, horietako batzuk–. Baina, aldi berean, gazte-trantsizioak askotariko testuinguru sozial, kultural eta politikoetan garatzen dituzte gazte-multzoan bilduriko pertsona horiek. Hartara, beren posizio soziala tarteko dela, mota askotako baliabideak eskuratzeko aukera diferentzialak sortzen dira horien artean. Faktore baldintzatzaile horien guztien ondorioz, mundu politikoa ezagutzeko eta irudikatze moduak, mundu horrekin ezartzen dituzten harremanak, ematen dizkieten zentzuak eta horien ondorioz gauzatzen dituzten praktikak izugarri aldatzen dira, eta errealitate konplexuak erazten dituzte. Horregatik, beren buruak ‘politizatu gabeko’ jotzen dituzten gazteen politizatzeko mailak eta erak, eta horien erretiratze moduek ere, esanahi ugari ezkututzen dute.

Bestalde, gazteen interes ezak eta erretiratze politikoak egungo sistema demokratikoen izaeraren auzia jartzen digu mahai gainean, nabarmen agertzen baitira sistema horien defizitak eta eraginkortasunik eza gizarteko sektore zabalen eskaeren eta itxaropenen aurrean. Gazteen erretiratzea ez da nahitaez gertatzen askatasun maila handiagoa dagoelako gaur egungo gazteen artean eta belaunaldi berriek, oro har, askatasuna barneratu dutelako, zenbait autorek iradoki dutenaren ildotik. Ikusi dugunez, politikatik atzera-egitea edo lotura politikorik eza ez da –ez behintzat kasu guztietan– gazteek gizarte indibidualizatu batean askatasunez hartutako aukera. Bestalde, deskonexio prozesu horiek ez dute zentzu unibokoa protagonista guztientzat. Politikatik urruntzea ez da soilik pertsona ahaldunduen eta adituen axolagabekeriak sortutako efektua, sistemarekiko atxikimendurik ez dutela erakusteko egindakoa. Aitzitik, egiturazko hertsadurek –politikoek eta ez-politikoek– baldintzatu egiten dute gazte askoren agentzia-gaitasuna eta herritartasun aktiboa garatzeko ahalmena. Bada, gazte horiek beren bizitzetara eragiten dieten auziei buruzko erabakiak hartu nahi izango lituzkete, baina ezin dute edo ez dakite hori nola

egin. Horrek segurtasunik eza, frustrazioa eta beren bizitzaren gaineko kontrolik ezaren sententzia eragiten dizkie.

Hala eta guztiz ere, aipaturiko mugek ez dituzte erabat deuseztatzen gazteok agentzia gisa dauzkaten ahalmenak. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean ‘politizatu gabeko’ edo ‘politikan interesik gabeko’ autodefinitutako gazteen narratibaren azterketan ikusi dugunez, gazte batzuek uko egin diote aldaketa politiko handien alde borrokatzeari. Ildo horretan, beren marjinazio-egoera gainditzeko beharrezko jotzen dituzten arren eraldaketak, ezindurik sentitzen dira egitandiak burutzeko arrotz egiten zaien esparru politikoan. Haatik, beren aukera kognitiboen, kulturalen eta testuinguruaren mugen barruan, beren bizi-ezegonkortasuneko eta ahultasuneko baldintzekin bat datozen esperientzia parte-hartzaile apalak, herritartasun-praktika informalak eta konpromiso zibikoak garatzen dituzte. Hori dela eta, ez dute parte hartzen formula berritzaileetan edo aktibismoan, beste ekintzaile gazte batzuek egiten duten bezala; aitzitik, jarduteko modu zuhurragoak aukeratzen dituzte, bizitzako fase bakoitzean eragiten dieten eguneroko kezketan oinarrituta. Azken batean, pertsona heldu askok bezala, lotura ahulak dituzte instituzionalizatutako sistema politikoarekin; alderdi nahiz elite politikoei buruz gazteok duten atxikitze ezaren maila desberdinetan eta hauteskunde-aldakortasun handian islatzen da lokarri motel horren nolakotasuna. Baina, aldi berean, erakundearen aldetik araututa dauden jardunbide zibikoak, nagusiki tokikoak, etenez beteak eta konpromiso ahulekoak diren praktika politikoak ere burutzen dituzte, intentsitate txikiko herritartasun mota bat osatuz. 

Oharrak

1. Vital Fundazioaren eta Manu Robles-Arangiz Fundazioaren diru-laguntzari esker osatu ahal izan da ikerketa hori.

Garai baten mugetan

Andoni Olariaga Azkarate

Filosofian doktorea

JAKINEN zenbaki honetarako gaur egungo gazte belau-naldietan dauden eztabaida eta korapilo nagusien inguruko testuinguratze eta ariketa soziohistoriko bat egiteko hitza hartu nuen. Ez zen erronka makala. Nondik abiatu halako artikulua bat idaztera? Banituen intuizio batzuk, ideien batzuk gutxi-asko landuak; faktore filosofiko, historiko eta politikoen inguruko gogoeta pare bat idatzia ere, eta beste intuizio bat: gure herriaren bilakaera historiko eta sozialak gure eztabaidetan izan duten eraginaren uste sendoa.

Intuizioak eta usteak, beraz, baina, batez ere, galderak eta kezkek. Horiek josi eta ordenatzea zen lehenengo erronka. Ez nintzen, noski, ikuspuntu zerutiar edo neutro batetik abiatuko. Izan ere, bazen bigarren erronka bat, lehena baino zailagoa: adinaren auzia, alegia, belaunaldi jauzia. Zalantza dut belaunaldi berriak ulertzen ote ditugun, edo ulertu nahi ote ditugun ere. Baina hori beste baterako utziko dut.

Nire analisisa kezka batek erabat baldintzatua dator: biziraungo ote du Euskal Herriak XXI. mendean? Gai izango ote gara izurrite biologiko, kultural, etiko eta linguistikoei aurre egiteko behar ditugun antigorputzak eraikitzeke? Gai izango ote gara herri taupada eta sena biziberritu eta orain erakusten duen bihotz matxuratu eta nekatuari taupada sendoa emateko? Aitortza eta kezka horretatik abiatuta, beraz, abiatuko naiz lokatzera.

Krisia ari du

Krisia. Zibilizazio krisia berriz. Krisi globala, balioen krisia, krisi ekonomikoa, krisi energetikoa, zaintzaren krisia, krisi teknologikoa, identitate krisia, komunikazio krisia, nazio estatuen krisia... Eta, gurean, abertzaletasunaren krisia, ez-kerraren krisia, euskalgintzaren krisia... Krisian jaio, bizi eta hil egiten gara azkenaldian. Krisia ari du, etengabe.

Gutxienez lau hamarkada daramatzagu zibilizazio krisi berri baten aurrean gaudela esaten.

Gizateriak bi zibilizazio krisi bizi izan ditu garai aurre-modernoan. Lehena Neolitokoa, duela sei mila urte inguru; bigarrena xvi. mendeko krisi kapitalista moderno. Lehenengoan, ikatz begetalaren erabilpena energia iturri bezala funtsezkoa izan zen, eta are funtsezkoagoa hizkuntza idatzia 'asmatu' eta ahozko komunikazioa hankaz gora jarri izana, idatzizko hitza lege bilakatuz, zibilizazio aldaketa bat eraginez. Bigarrenaren kasuan, xv.-xvi. mendeetan ikatz mineralaren erabilpenarekin (xix. mendean petrolioarekin) eta, batez ere, inprentaren zabalpenarekin, liburuen produkzioa eta ideien bestelako zabalkundea gertatu zen, zibilizazio aldaketa berri bat hauspotuz. Aurrekoak balio tradizionaleri aurre egingo dien sinesmen modernoek sustapena ekarriko du (Luteroren erreforma protestantea, tartean), eta, berarekin, kapitalismoaren sorrera eta bere modernizazioa, merkantzien trukean eta produkzioan oinarritutako dena, eta industria, zientzia, teknologia eta inperialismoaren garapena.

Halako tamainako krisi baten aurrean aurkitzen ote gara berriz ere? Krisi globala, geopolitiko; krisi kulturala, balioena; herri txiki honetan ere geure krisitxoak izaten ditugu, ziklikoki, eta orain handitu zaizkigula dirudi. Zibilizazio krisia 60-70eko hamarkadetatik aurrera behin eta berriz agertzen den ideia da, gizateria aurretik ez bezalako krisi batean murgilduta dagoela azpimarratu duena. Eta batek sentsazioa dauka uneoro krisian bizi garela esateak ez ote duen krisiaren beraren zentzua erabat difuminatu jada.

Puntu arkimediko berriaren bila

Krisiak ez du adiera negatiborik, aldaketa prozesu baten trantsizio puntua adierazten du. Grekozko *krinein* termino zaharretik ekarria, erabaki bat hartzeko epaitzearekin dauka zerikusia; *krisis* substantiboak judizioa esan nahi du, erabakia. Krisia transformazio prozesu bat da, abagune bat, zerbait zaharra atzean utzi eta berri baterantz abiatzeko abiapuntua. Abagunea eta ebaki puntua, hilko den zaharraren eta sortuko den berriaren artean.

Azken mendeetan, heredatu dugun kultura kristau hone-tan, haren teleologia eta teodizea guztiarekin, haren logika kartesiar eta dualismoekin, batek susmoa dauka krisiaren erabilpena ere teologiko xamarra bilakatu zaigula azken al-dian. Alegia, dogma berri bat, zerbait esplikatzeko baino, jada ezer esplikatzen ez duen puntu arkimediko erlijioso berria. Krisiaren etengabeko aldarrikapenak hortik edaten duela dirudi: puntu arkimedikoaren bila goaz, berriz, zaharra eta berria ebaki nahi dugun puntuaren bila, guk marraztutako historian enkajatzeko atzean utzi nahi dugun zaharra eta eraiki nahi dugun berria.

Historia bitan ebakitzen duen iraultzaren kontzeptu miti-koarekin halaxe eraiki zuen euskal matxinadak bere *parusia* propioa, bere historiaren ebakiera: historia independentzia-ren aurreko eta osteko puntuan ebakiz. Eta halaxe hezi gin-tuen pentsaera hark, historia eta jendartea bitan ebakitzen, esperantzak eta indarrak egun hartarako bideratzen ikasiz. Hori desagertu zaigunean, ordea, puntu arkimediko horrek ematen zuen teleologia ere desagertu da, eta zeruertza eta norabidea difuminatu xamar geratu zaizkigula dirudi.

Historia *magistra vitae*

Zibilizazio krisi berri baten atarian gaudela esaten da; asko entzuten da, gutxienez. Pandemia aurretik asko entzuten zen, gaur ezkerreko sektoreetan denon ahotan dabilen leloa da. Teknikaren garapenak ekarri dituen aldaketa antropologiko,

etiko eta sozialak aipatzen dira aurrekoaren arrazoi beza-
la; Internet eta sare sozialen nagusitzearekin gertatu diren
aldaketa linguistiko eta etiko erraldoiak; erregai fosilen be-
rehalako bukaerak (2050erako aurreikusten da) zein berotze
efektuak lurraren beraren biziraupena zalantzan jarri izana;
mundu mailako eskalan gertatu den prekarizazio erraldoia-
ren joera aipatzen dute beste batzuek; askok, ezkerretik, ra-
zionalitate neoliberalak aurrekaririk ez daukan mundu maila-
ko hegemonia lortu izana aipatzen dute funtsezko aldagaitzat.

Galdera zilegia beharko luke honezkero ondokoak: zibiliza-
zio krisi baten aurrean gaude ala ezkerrek, proiektu positibo
alternatibo global bat garatu ezinda, pesimismo historiko
eta apokaliptikoa hartu du helduleku gisa? Bat edo beste,
ala biak izan, pertzepzio hori erabat zabaldua dago, mundu
globalean eta lokalean, eta belaunaldi berrien pertzepzio eta
politizazio moldeak hortik abiatzen dira. Mito batetik beste
batera egin dugu jauzi. Progresuaren ideia birrindu da, na-
rrazio historikoaren faltan disinkronia etengabe bizi gara,
metanarratiba oro birrinduta, denborak erritmo ordenatzaile

izateari utzi dio. Puntu arki-
mediko zaharrak difuminatu
dira, berriez ordeztuz, ordea.

xviii. mendean progresua-
ren ideia modernoak historia-
ren ikuspegi ziklikoari aurre
egin zion. Eta Frantziako Iraul-
tzarekin, etorkizunak etenga-
beko aurrerabidearen norabi-
dea hartu zuen; asmatu beha-
rreko norabide bat zegoen,
eginean egin beharrekoa. Beti

Zibilizazio krisi baten
aurrean gaude ala
ezkerrek, proiektu
positibo alternatibo
global bat garatu ezinda,
pesimismo historiko eta
apokaliptikoa hartu du
helduleku gisa?

aurrerantz, etengabeko hoberantzko norabide batean, erlijio
katolikoaren teleologia, ondoren teologia hegeliarra eta mar-
xista, azkenean demokrazia liberalaren teodizea sekularra
iritsi arte. Bigarren Mundu Gerra ostetik sortuko den mun-
dua, komunismoaren erorketarekin batera, erabat uniformea

izango da. Aurrerago, Euskal Herriak bere teleologia propioa eraikiko du, xx. mende erdialdeko optimismo iraultzailean sortua. Baina neoliberalismoaren razionalitatearen nagusitasun osoarekin egingo du denbora historiko berean topo, hegemonia global bat irudikatzen duen erraldoi batekin.

Modernitatean sartu, puskatzen ari zenean

Krisiaren pentsamoldea gure garaiko pentsaera forma bilakatu da. Leku guztietan ikusten dugu krisia; zeren sintoma da hori? Euskal Herria modernitatera berandu sartu da, eta, sartu denean, etxeko lan guztiak egiteke zituela, modernitatearen puska guztiak erori zaizkio gainera. Prozesu historiko baten azken geltoki aldrebestua da.

Horrek eman dezake aurreko galderaren esplikazio zati bat. Baina modernitatearen puska horiek prozesu historiko luze baten baitan ulertu behar dira, bi iturri dituela: jakintza judeokristaua eta filosofia greko-erromatarra. Lehenak historiaren teleologia (eskatologia kristaua) eta bigarrenak egia, zientzia eta teknologia utzi dizkigute ondare, eta historiaren bi kontzepzio kontraesankor: lineala bata (denbora aurrera joan ahala dena aurrerabidean dago), zirkularra bestea. Bi etika eredu: altruista lehena, epikoa edo heroikoa bigarrena; bi paradigma politiko, demokratikoa eta aristokratikoa; bi eredu espiritual, askatzailea bata, fatalista bestea. Eta atzekoz aurrera, historia labor bat: antzinaroa, zuzenbide naturalaren aroa; modernitatea, zuzenbide natural subjektiboa; eta modernitate ostea, ez objektibo ez subjektiboa, baizik eta naturarik gabea, metafisikarik gabea. Alegia, «natura edo metafisika porrokatuaren hondakinetan» (Azurmendi 1999: 103) dagoena.

Modernitatearen lehen fasetik (xvii. mendea) aurrera unibertsala eta garbia den arrazoimen ilustratua (eta horrek garatu dituen sinesmen kultural, moral eta politikoak), subjektuan eta arrazoimenean oinarritua egon dena, ezagutzaren oinarria giza arrazoimena dela sinesten duena, birrinduta eta puskatuta sartu zaigu xx. mendearen bukaerara

Euskal Herrian. Hasierako razionalismoari emozioen eta afektuen garrantzia eta ezagutzarako esperientziak daukan pisua gogorarazi zitzaizkion (Spinozak, adibidez, gaurko politikagintzan afektuen garrantzia azpimarratzeko berriz ere marxismo berrietan indarra hartu du); bigarren kontra-modernitate ilustratu alemanak herrien, kulturen eta historiaren lekua aldarrikatu zuen, estatuarekin berdindutako razionalitate garbi hori are gehiago erlatibizatuz, kolorea emanez; Ilustrazioaren berdintasun unibertsalaren kritika egin zen feminismotik, gizarte zibilaren paktuak –publikoa eta pribatua bereiziz– emakumeen subordinazioa ezkutatzen zuela salatuz; klase dominanteek produkzio bitartekoen jabe direla eta, hortaz, historia ez duela razionalitate itsu batek gidatzen, klase borrokak baizik, aldarrikatu zuen ondoren Marxek; Schopenhauerren nahimen itsua eta Nietzscheren perspektibismoa, ondoren, Jainkoa (hots, ikuspegi eta ezagutza neutral eta pribilegiatu oro) hiltzera eta akabatzeraz datoz; teoria kritikoaren eta positibismoaren kritikak ondoren, gizakiari buruzko zientzia berrien ikerketak antropologia optimistenak hondoratuz; kritika anticolonialak eta dekolonialak, ezagutza eta arrazoimena Mendebaldeko botere forma koloniala dela gogoratuz (intersekzioaren inguruko azken eztabaidak lekuko), Mendebaldeko historia hegemonikoaren erdigunea zalantzan jarriz; feminismoaren olatu berrien kritikak, gizartea kontratu sexual baten gainean altxatzen dela esanez eta zaintzak gizartearen erreproduktio sozialerako jokatzeko duen funtsezko rola mahaigaineratuz.

Modernitatearen bilakaera, hortaz, arrazoimen dogmatiko eta garbi horren zikintzearen bilakaera da. Baina horren ondorioak ez dira xamurrak.

Modernitate ostearen ajeak

Prozesu luze horrek, funtsean, modernitateak sortutako ziurtasun eta dualismoak perspektiba, botere harreman, moral, interes eta testuinguru sozial eta politiko baten emariak

direlako kontzientzian bukatu du. Baina kontzientzia historiko horrek ondorio ahistorikoak ekarri ditu, nolabait. Modernitate ostea modernitatearen seme-alaba da, eta osotasuna zegoen lekuan mila puska erabat txikituta heldu zaizkio. Modernitate osteak, hortaz, zerbaiten agorpena irudikatzen duen bezala, agorpen horri itsatsita bizi den garaia dela ere adierazten du. Zaharraren defentsaren eta zahar horren etengabeko deseraikuntzaren arteko tentsioan gaudela ematen digu aditzera.

Tentsio hori batere laikoa ez den kultura batean gertatzen da. Izan ere, eskola liburuetan esaten zaigunaren kontra, modernitatearen lehen fasearekin (xvii. mendean hasten dena) erlijioaren eta estatuaren funtzioak aldatu ziren, baina ez zen sekularizaziorik gertatu: jainkoaren irrefutabilitatea zientzietara pasatu zen, eta kapitalismo ekonomikoaren determinismo eta naturaltasunaren sineskerak sendotu ziren, natura kanpo agente bezala pentsatuz eta horren ustiaketa gizakiaren eskubide mugagabe gisa ulertzera pasatuz. Horrela, kultura 'sekularizatu' modernoaren zutabeak erlijio judeokristauaren balio espiritualerik eta dogma moldez zipriztindu ziren goitik behera: progresuaren sinesmena, historizismoa, positibismoa, nazio estatuaren banaezintasuna (gogoratu espainiar konstituzioaren bigarren artikulua dogma batasunaz...), identitatearen (nazional, sexual, arrazial...) aldaezintasuna, giza eskubideen sakratutasuna (estatuaren pakto batean bildua)... Gure garaiko egitura sozialen oinarri moral eta kulturalak erlijiosoak dira, dogmatikoak: nazio estatutik hasi, familiara pasatu, naturaren ulerkeratik jarraitu eta ordenatzen gaituzten dualismo guztietan bukatuz.

Hortik abiatu behar da gaurko ajeetan igeri egiteko. Kartesianismoak inauguratutako arrazoimen dogmatiko hark hainbat dualismo indartsu eraiki eta gotortu zituen: arrazoimenaren eta fedearen artekoa, identitatearen eta materiaren artekoa, gizonaren eta emakumearen artekoa, naturaren eta zibilizazioaren artekoa... Guzti-guztiak heredatu genituen, bi prozesu historikoren erdian harrapatuta. Modernitatea,

batetik, ziurtasunen bilaketa eta eraikuntza filosofikoa, politikoa, artistikoa, eta abar izan baldin bada, eta Euskal Herriak, bere behar propioengatik, bere ziurtasun eta ikusmolde historikoak garatu baldin baditu, postmodernitatea ziurtasun horien bilaketa genealogikoa eta deseraikitze borroka izango da.

Azken hamarkada hauetan tentsio horretan mugitu da gure herria. Eta tentsio horrek iraganekoarekiko nostalgiaren eta aurrera begira eraiki beharrekoaren arteko tentsio bat sortu du. Problema da tentsio hori, sortzailea baino, baztertzailea bilakatu zaigula, modernitate (ziurtasun sendo) versus modernitate oste (ziurtasun 'ahul' eta deseraiki) kultura zurrun batean gatibaturik.

Utopien mundutik distopien garaira

Aurreko horretatik abiatzen gara. Alegia, modernitate ostean deseraikuntza prozesu horrek bere erreakzioak izatea espero izatekoa zela, inor ezin da harritu honezkero. Are gutxiago harritzekoa da deseraikuntza prozesu historiko horren baitan modernitatearen puskak azken helduleku dogmatiko eta malenkoniatsuak bilakatzea askorentzat: izan iraultzaren ikuspegi klasikoa, identitate sexuala (trans auziaren eztabaida lekuko, sexu 'biologikoaren' aldarrikapen 'ez-esentzialistak', eta abar), familia heteronormatiboa, proletalgoaren subjektua, eskema teleologiko politikoak (autonomiatik subiranotasunerako jauzia)... Edozein modutan eta edozein preziotan babestu beharreko azken helduleku ziurrak dira, historiaren eta errealitate aldakorraren kontra.

Baina ezkerak ezin du ahaztu utopien aroaren agorpenaren aroan bizi dela. Fredric Jamesonek esan bezala, errazagoa zaigu munduaren akabera irudikatzea kapitalismoarena baino. Alegia, 1989. urtean garai bat bukatu zela, eta beste bat hasi. Berlingo Harresiaren erorketak porrot hori sinbolizatzen zuen, mende baten bukaera, eta estatu sozialismoaren porrota. Baina erori zena askoz gehiago izan zen: xx. mendeko errepresentazio oso bat zen bidean birrintzen zena, eta

ezkerraren sabaia espiritual eta historikoa. Ez da soilik, hortaz, bloke sobietarraren erorketa eta Berlingo Harresiaren eraisketa. Baina hori ere bada. Baina bada, baita ere, Margaret Thatcherren gizartearen bukaera, eta Fukuyamaren historiaren akabera. Propaganda modernoa eta mass mediak. *Fake news*-ak. Fordismoaren deslokalizazioa, postfordismoaren etorrera, lanaren atomizazioa eta fabriketako langile klase gizon hegemonikoaren zentraltasunaren galera. Lan produktibo eta erreproduktiboaren izaera banaezina. Metarrelatu nagusien bukaera. Metafisikaren bukaera. Euskal Herriko metarrelatuen agorpena. Sabaia espiritual eta filosofiko horren errautsetan bizi gara.

Gaurko krisia ez da berria. Finean, modernitateak sortu, hedatu eta inposatu dituen ziurtasun kultural eta politikoak higatu dira. Testuinguru historiko horretan kokatu behar da zoonosiak, globalizazioak eta lurraren esplotazio kapitalistak eragindako pandemia honetan sortzen diren hainbat eztabaida eta erreakzio. Sabaia espirituala galdua, modernitate osteak dena erlatibizatu eta zalantzan jarri izana onartu ezinean gabiltza. Gure identitate fededunarentzat, lehen erlijiosoa politikoa orain, lurzoru makalegia iruditzen zaigu. Zergatik, ordea, horri fede zaharrekin edo imajinazio faltarik gabe erantzun?

Distopiek gure antsietate kolektiboa irudikatzen dute, Layla Martínezen hitzetan (*Utopía no es una isla*, 2021). Etorkizun apokaliptikoak beldurra eta antsietatea sortzen dizkigu, eta horretaz ohartarazteko produktu eta ideologiak sortzen ditugu; hori egitean, ordea, eragotzi nahi dugun hori indartzen

Gaurko krisia ez da berria. Finean, modernitateak sortu, hedatu eta inposatu dituen ziurtasun kultural eta politikoak higatu dira. Sabaia espirituala galdua, modernitate osteak dena erlatibizatu eta zalantzan jarri izana onartu ezinean gabiltza

dugu. Alegia, etorkizun hobeak pentsatzeko ezintasuna garatu dugu, kapitalismoari erabat funtzionala zaion distopien produkzio betean sartuta. Etorkizun apokaliptikoaren aurrean, dagoena ona iruditu dakiguke,¹ eta horren defentsara mugatzen utzi, imajinazio hobearen faltan. Baina espero dezagun, Alba Garmendiak (2020) ohartarazi bezala, distopiaren eta utopiaren arteko tensio horretan (ez baitute elkar ukatzen, askotan elkar inplikatu baizik), ikuspegi apokaliptikoari baino, kritikoari begiratuko diogula, utopia berriak ernaldu daitezten.

Ziurgabetasunari nola erantzun?

Euskal Herriak ez du izan inoiz subjektibitatearen tradizioirik; beti familiak eta tradizioak agindu izan dute, balio erregulatzailerik gisa: errealtatea ainguratu eta klasifikatzeko mundu ikuskera bezala. Elizak, tradizioak eta ondoren teoria iraultzaileek herri baten moralak eta etorkizuna koloreztatu dituzte, zuri-beltzean, goitik behera, nola ordenatu, ulertu eta zatitu gure mundu txiki hau.

Afera da, ikusmolde horretako balioak eta mundu ikuskera fedean oinarritzeari utzi diotenean, noraez eta erreakzio desberdinak agertu direla. Baina baita oinutsik eta oinarri erlatiboan gainean bizitzen ikasteko saiakerak ere. Azken irekitasun hori berria zaigu, ordea, ibiltzen ikasten ari gara oraindik. Gure balioak eta egitasmo politikoen sostengu teoriko guztiak fragmentatuak eta erlatiboak direla eta absolutuak ez direla jabetzea ez baita gatazkarik gabeko prozesua. Horrela gertatzen da fragmentazio horren aurrean belarriak tentetu egiten zaizkigula: kraxka bat entzun da belaunaldi berrietan, balio horiek ukatzen ariko balitzaizkigu bezala. Alegia, subjektiboa izan daiteke moralak edo arteak, baina ez nire printzipio politikoa, nire mundu ikuskera. Horregatik egiten da ihes erlatibizatu ez diren tokietara: Euskal Herria eta bere borroka sostengatu dituzten mitoak erlatibizatu badira (nazioa eta bere teoriak, bere eskubidearen teoriak –autodeterminazioarena–, euskal identitatea...), egon behar

da erlatibizatu ezin den esparrurik, esaterako, klase borroka, langile identitatea...

Horrek aditzera ematen du XXI. mendeko iruditeria berriak ez direla oraindik gai izan beren espazio tenporala, beren espazio koiuntural eta historikoa gainditzeko. Prozesu historiko honetan bizitzea tokatu zaigun ziurgabetasun aroari ziurtasun zaharrekin erantzun nahi izateak, imajinazio falta izugarria erakustez gain, ezkerraren erabateko porrota ere adierazten du.

Hori da ezkerraren tragedia gaur: zaharra kritikatu eta demuntatzen dabil ibilian –teoria dekolonialak, *queer* teoriak, feminismo berriak, marxismo berriak–, aldi berean ziurtasun berriak eskaintzeko erabateko beharrez. Eta ziurtasun egarriz bizi den kultura eta garai batean, ukazioaren zein konspirazioen teoriek, berdin Europan berrindartu den antigoaleko ezker komunistak ere, modernitateko errelatu puskatu nagusietara egiten dute ihes (elite omnipotente bat irudikatuz, kasu guztietan). Egarrinari ura, desertuan. Nietzschek esaten zuen gizakiak nahiago duela ezerezean sinetsi ezertan ez sinetsi baino: horizonte berrien gabeziak eragiten duen ezin-negon globala, apokalipsiaren forman ematen dena, bilakatu da gaurko sinesmen nagusia.

Euskal matxinada postmodernoarekin kimu berriak

68ko Maiatzaren, iraultza kubatarraren eta Urriko Iraultzaren baitako kontakizun historikoan sortutako hasierako matxinada horren iruditeria sinbolikoa agortu da. Gure garaiek beste iturri batzuetatik edaten dute; mende hau, aurrekoa ez bezala, utopien gainbehera orokorrak markatutako garai bezala jaio da. Gaurko mugimendu sozial eta eraldatzaile berriek imajinazio utopikoa paralizatzen duten xx. mendeko iraultzen porrota daramate bizkar gainean. Horiek gure garairen mugak baino ez dira. Modernitatearen aurrerabidearen ideia, iraultzaren zentzu ebakitzailerik eta mitikoa, Ilustrazioko razionalismo dogmatikoa, arrastaka daramatzagu bizkarrean.

Gaurko eztabaida zahar-berrietan, zaharra hil nahian zahar-rragoa aldarrikatu ala berria sortzen asmatu, gure historia gorabeheratsuaren pisu guztiarekin, ez da batere erraza; areago, modernitatetik heredatu dugun 'hil edo biziko' terminoetan bizi ditugularik eztabaidak. Zuri ala beltz. Oso euskalduna eta kristaua den ohitura, bide batez, dualismo baztertzailetan pentsatzekoa. Dena den, gaurko eztabaidetan –izan nazioa, langile klasea, feminismoa, sozialdemokrazia, iraultza– ez dago jokoan Marxen materialismo historikoaren ulkerera zuzena zein den, edo *queer* teoria postmodernokeria


Argi dagoena zera da: belaunaldi berriek metafora eta erreferentzia propioak sortzeko beharra dutela, gaurko Euskal Herria ulertzeko mekanismo propioak garatu behar dituztela

ala marxismo dogmatikoaren mamua ote den (hori ere); eztabaida horien usteak eusten dituzten identitateen konfigurazioen arteko talka dago jokoan, mundu ikuskera berri eta zaharren arteko talka bat. Modernitatea versus postmodernitatea desitxuratua, sinplifikatuz. Belaunaldi berriek mundua ulertzeko duten moldea, munduan posizionatzeko moldea, propioa eta beregaina, eraiki nahian dihardute, eta

nahas-mahas hori tokatu zaie. Aurrekoa eztabaida analitiko edo razional bezala ulertzea, beraz, akatsa litzateke. Hori baino gehiago da.

Eztabaida horietan herri bezala bizi izan dugun odisea luze eta malkartsuak izan duen eragina ere aztertu beharko da. Nekea sumatzen baita, eta belaunaldi baten iruditeriaren eta mundu ikuskeraren agorpenak utzi duen hutsa betetzeko zailtasuna ere. Abertzaletasuna pisutsua bilakatu dela dirudi, ez-epikoa. Argazkiaren alde bat baino ez da aurrekoa, noski. Izan ere, gogoia ere sumatzen da, ilusioa berpiztu eta garai berrietara egokitzeko determinazioa, gaurko erronkei positiboki erantzuteko grina. Molde berriko kontrakultura

saiakerak ikusten dira. Eta argi dagoena zera da: belaunaldi berriek metafora eta erreferentzia propioak sortzeko beharra dutela, gaurko Euskal Herria ulertzeko mekanismo propioak garatu behar dituztela, egungo behar eta galderei erantzun-go dieten eta abertzaletasuna biziberrituko duten galdera berrietatik abiatuz.

Garai ezegonkorrek tokatu zaizkie horretarako. Dena den, herria ardatz, sektarismo, inertzia eta erretrotopietatik kanpo, nabarmena da esku artean duguna herri honekiko, bere hizkuntza, jendarte, lurralde eta kulturarekiko maitasunaren epika berri bat eraikitzeke erronka dugula. Euskal Herriaren pisua erregai eta ilusio bilakatzen asmatu behar dugu. Eta, hori egiteko, okertuko ginatega gaizki egin ditugunak eta egin ez ditugunak belaunaldi berrien bizkarrean jarriko bagenitu. 

Oharrak

1. *The Handmaid's Tale* telesailak uzten duen sentsazio gazi-gozoa hori baita, Gilead maltzuraren aurrean gaur duguna –Kanadan islatua– ontzat ematea, hain zuzen.

Bibliografia

- Aoiz, Floren (2020): *Mamuari so. Neoliberalismoa versus burujabetza*, Tafalla, Txalaparta.
- Azurmendi, Joxe (1999): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkar.
- Garmendia, Alba (2020): 'Glokalia', *JAKIN* 239, 131-137.
- Martínez, Layla (2021): *Utopía no es una isla*, Madril, Episkaia.
- Torrealdai, Joan Mari (1973): *Iraultzaz*, Tolosa, Jakin.
- Traverso, Enzo (2019): *Melancolía de izquierda. Después de las utopías*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg.

Konpromisoa krisi garaiotan

Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando,
Unai Martinez eta Naiara Rodriguez

Ander Barandiaran Ziordia

*Gizarte langile eta hezitzailea eta Nafarroako Gazte
Parlamentuko teknikaria*

Gazteak etorkizuna direla entzuten dugu maiz. Kalean, komunikabideetan eta politikan behin eta berriz errepikatzen den esaldia da: «Geroa gazteena da». Baina, horrekin batera, orainaren kudeaketa politikoan, gizarteko instituzioek ez dituzte oro har gazteen premia eta interesak aintzat hartzen, ezta horien ahotsa ere. Eta, urrats bat gehiago emanez, gazteek politikarekiko interesik ez dutela ondorioztatzen da sarritan. Baina hala ote da benetan? Ez ote dugu, gazteei hitza eta aukera emanez gero, politika bera eta konpromiso politikoa ulertzeko modu berritzaileekin topo egingo, are gehiago krisi garai hauetan?

Hainbat gazte elkartu ditugu mahai baten bueltan, politikarekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten: politikaz zer ulertzen duten, nola politizatu diren, gazte izateak zer baldintzapen dituen, zer iritzi duten politika instituzionalaz, egungo gizartearentzako zer proposamen dituzten, euskal nazio eta hizkuntz auziak nola bizi dituzten...

Abertzaletasunaren bi tradizio politiko nagusietako gazte adarretako ordezkariak gonbidatu ditugu, batetik. Aitana Agirre Loiarre (Donostia, 1998) Euzko Gaztedi-EGIko idazkari

nagusia da, eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta zuzenbidea ikasten ari da. Izar Hernando Ibero (Donostia, 1995), aldiz, Ernaiko bozeramailea da, eta zuzenbideko ikasketak ditu.

Bestetik, Gazte Koordinadora Sozialistak 2018an aurkeztu zuen bere burua, «gazte problematikaren auziari klase ikuspigitik erantzuteko», aurkezpenean azaldu zuten. Unai Martinez Crespo (Azpeitia, 1996) GKSko militante eta filosofian graduatuak ordezkatu du koordinakundea mahai inguruan.

Azkenik, politikaren adiera zabalak ohiko aktore sozio-politikoek jardunetik harago garamatzala kontuan hartuta, gizarte mugimenduetan parte hartzen duten gazteen iritziak ere bildu nahi izan ditugu. Iñigo Etxezarreta Toca (Donostia, 1995) LGTBIQ+ mugimenduko kidea da; gizarte hezkuntzan graduatua, Eihera kooperatiban dihardu, hezkidetzan formatzaile eta maskulinitatearen lanketan aditu, eraldaketa feminista eta LGTBIQ+ prozesuak diseinatzen eta garatzen. Eta Naiara Rodriguez Garayar (Orereta, 1995) mugimendu feministako kidea da, berdintasun teknikaria lanbidez; 'Ikasketa Feministak eta Generokoak' masterra ikasten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Hasteko, agian galderarik motzena eta erantzuteko konplexuena edo askotarikoena izan daitekeena. Politika esatean, zer ulertzen duzue?

Unai Martinez: Politika zer den hitz gutxitan esplikatzeko ez da erraza. Baina guri iruditzen zaigu politikak balio behar duela gizartearen zati handi baten baldintzak hobetzeko eta askatasunak handitzeko, eta uste dugu hori proiektu sozialistaren bitartez gauzatu edo egikaritu beharko litzatekeela. Klaserik gabeko gizarte baten eraikuntzan ekarpena egin dezakeen tresna bat izan beharko litzateke politika, eta guk prozesu terminotan ulertzen dugu, hau da, pixkanaka-pixkanaka sozialismoaren baldintza politiko, sozial eta ekonomikoak jartzen joateko prozesu bezala. Eta prozesu horren

dinamizazioa langileriaren antolakuntza independentearen bitartez egin behar da. Hitz gutxitan esanda.

Izar Hernando: Nik uste dut politika badela erabakiak hartzea, eta boteretzeko prozesu bat eramatea, proiektu baten edo besteren mesedetan jarri gabe. Kontua da politika agian lotu izan dugula oso, ez dakit instituzioekin esatea gehiegi den, baina bai antolakuntza politikoarekin, eta uste dut bereizi beharra dagoela. Edo bigarren ñabardura bat egin behar dela, hortik ez aparte, baina bai paraleloan: hau da, hautu pertsonalena, pertsonala politikoa dela ulertzen duena. Hori askotan esanda dago, ez da ezer berria; baina aldarrikapen batzuk egiteak ez du ezertarako

balio edo ez gaitu oso urrutira eramango, eta, aldiz, egiten ditugun hautuetan, izan norekin edo nola harremantzen garen, edo non erosten dugun, edo zer kultura kontsumitzen dugun edo sortzen dugun, hori ere politika da, eta nik uste dut hori gabe ez dagoela aldarrikapen absoluturik egiterik. Eta alderantziz ere esango dut: ez badago antolakuntza kolektiborik, hautu pertsonal horiek geratuko dira norberaren mailan, eta eragiteko oso gaitasun mugatua edukiko dugu. Berez,

politikak gaur egun bi lerro horien elkar lotze eta harilkatze konstante bat behar du izan, eta horien arteko koherentzia eta kontraesanak kudeatzen joan behar da etengabe.

Naiara Rodriguez: Niretzat ere, egunerokotasunean hartzen ditugun erabaki guztiek politika daukate atzean. Eta indibidualki eta kolektiboki ikusten ditut: hartzen ditugun erabaki guztiak, baina baita zer desiratzen dugun, zer gustatzen zaigun, gure dirua zertan gastatzen dugun, gure denbora zertan

«Politikak gizartearen zati handi baten baldintzak hobetzeko eta askatasunak handitzeko balio behar du, eta uste dugu hori proiektu sozialistaren bitartez gauzatu edo egikaritu beharko litzatekeela»

Unai Martinez

ematen dugun, nola harremantzen garen... Iguar ez dut ezer gehiago gehituko, baina niretzat desirera sartzea garrantzitsua da, uste dudalako feminismoak, edo feminismo batzuek behintzat, ekarpena egiten dutela hor: nola harremantzen naizen besteekin, nire gorputzarekin, nola ulertzen dudan nire burua eta horrek zer toki ematen didan gizartean. Nik fokua gorputzean jartzen dut asko, eta hortik ulertzen dut dena, dena zeharkatzen duelako.

Aitana Agirre: Nik ere politika ikusten dut alderditik harago. Politika edozertan dago, ez dago bakarrik alderdietan. Izan daitezke gizarte mugimenduak, eta izan daiteke ekintza politiko bat beti herriko dendetan erostea. Erakunde edo alderdietatik atera eta norberaren hautuak egiten du politika. Egia da alderdiek ematen digutela komunitate sentsazio bat, eraginkorra izan daitekeena aldatu nahi ditugun gauzak bultzatzeko; eta, azkenean, politika bezala ulertu daiteke zuk zure herriari egin nahi diozun ekarpena egiteko modu eraginkor bat. Adibidez, zuk ikusten dituzun injustiziak aldatzeko modu asko daude, eta askotan ez dugu ikusten politikak zenbat arlo ukitzen dituen. Eta desprestigioa alde batera utzita, inportantea da gu inplikatzeko aldaketa horiek posible izateko eta gure etorkizuna pixka bat hobetu ahal izateko. Politika zer da? Ba pixka bat dena eta guk nahi duguna, aldi berean.

Iñigo Etxezarreta: Ez daukat ezer gehiago gehitzeko, ados nago esan den gehienarekin.

Rodríguez: Politika, niretzat, ardura ere bada. Baina ez arduraren instituzionala bakarrik. Subjektu politiko garez geroztik, ardura bat daukagu, erabaki edo ez.

Hernando: Bai, garrantzitsua da hori azpimarratzea. Politika eta gazteen parte hartzea eta horrelako gaiak lantzen direnean, eta ez bakarrik gazteena, baizik jendearen parte hartzea politikan orokorrean, eskubideen ikuspegitik abor datzen da: herritarrok eskubidea daukagu parte hartzeko. Eta niri iruditzen zait nabardura egokia dela esatea ez dela bakarrik eskubidea, betebeharra daukagula. Eta parte

hartzeko daukagun modua eskubide eta betebeharren bi ikuspegietatik ulertzea.

Rodriguez: Eta parte ez hartzea ere hautu politikoa da.

Etxezarreta: Etengabe ari gara parte hartzen politikoki, izan modu antolatuan batean, izan modu pertsonal batean. Parte hartze politikoa edo politika izan daitezke aldarrikapen batzuk egiteko, edo eskubide batzuen baitan jarduteko. Baina politika ez da bakarrik baldintza materialen edo bestelako aldarrikapenak egitea, politika egiten da modu askotan, edozein ideia helarazi ahal izateko. Askotan ulertzen da politika modu antolatuan, eta gainera lotzen dugu aldarrikapen sozial, justuago edo iraultzaile baten ikuspegitik; baina ideiak ematen ari gara etengabe, eta hori izan daiteke esateko A edo esateko Z.

Rodriguez: Ni ados horrekin. Baina nahi dut azpimarratu lehen esan dudan gauza bat. Dena da politikoa, eta badaukagu ardura bat pentsatzen dugunaren arabera jokatzeko bizitzako arlo guztietan; baina hor eraldaketarako anbizioa ikusten dudan arren, eraldaketarako gaitasuna gehienbat antolakuntza kolektiboari ikusten diot. Ez mundua bakarrik aldatu dezakezula ikustea, ze ezin duzu. Baina beste batzuekin, agian, bai.

Agirre: Ados. Uste dut inportantea dela gu ere konturatzea komunitate hori beharrezkoa dela, eta igual gaur egun dagoen likidotasan horretatik berriz ere bueltatu behar gara lehen zegoen zentzu horretara. Azkenean, pandemiak ere erakutsi digu oraindik badagoela komunitate edo auzolan horretarako gaitasuna, gazteok ere ahal dugula hor, ze beti esaten da gazteok oso indibidualistak gara eta dena berdin zaigula. Eta babilio izan du ikusteko denok ados jartzen bagara zerbait egiteko, aldaketa hori azkarrago gertatzen dela eta posible dela. Hori aspektu positibo bat da jendea gauzak egitera bultzatzeko.

Nola hurbildu zarete politikara: nondik, zeren bila, zerk mugituta, zer topatu duzue? Nola politizatu zarete? Irakurketak, ekintzak, lagunak eta ingurunea, 'maisua', sozializazio mota...

Agirre: Nire familian bazkalondoetan beti hitz egin da politikaz; orduan, txikitatik eduki dut kontzientzia hori. Gero, heltzen zoazen heinean, gauzak irakurtzen dituzu, errealitate ezberdinak ikusten eta ezagutzen dituzu, kanpora zoaz, eta niri urte horietako esperientziak eraman ninduen alderdira, ikusten dudalako nire ideologiarekin gehien bat egiten duen alderdia dela. Eta lehen esan dudanez, niri iruditzen zait politika badela tresna eraginkor bat niri gustatzen ez zaizkidan errealitateak aldatzeko, eta ados nagoena hobetzeko. Baina nire ingurunea bai izan da nahiko politikoa; ideal ezberdinekin, baina politikan militantzia altua egon da. Horrek erraztu dit alderdi batean sartzeko bidea, askotan alderdi batean militatzea nahiko estigmatizatuta dagoen arren.

Etxezarreta: Ni hasi nintzen militatzen –edo parte hartze politiko kontzientea deituko diogu behintzat– marika nintzelako. Hau da, kontziente izan gabe, militatzen ari nintzen

«Militatzen hasten gara jende konkretu batek osatzen duen espazio edo talde bat ikusten dugulako; jende horrekiko ditugun izaera, aurreikuspen edo afinitateek bultzatzen gaituzte espazio horretan militatu nahi izatera edo ez»

Iñigo Etxezarreta

marika nintzelako. Nik nabaritzen nuen nire inguruko araua ez zettorrela bat nik konpartitu nahi nituen espazio edo bizipen batzuekin, eta justu gaztete bat zegoen Izarren eta nire ikastolaren ondoan, Kortxoenea gaztetea. Hortik gonbidatu gintuzten parte hartzera, eta nire parte hartze politiko edo militante inportanteena gatzetxetik izan zen. Gero, Ernai sortu zenean, hor hasi ginen, eta prozesu horren baitan eta Ernaiaren sorrerarekin, orduan politizatu nituen nire desira, nire identitatea edo nire estetikak. Hori izan zen abiapuntu

heteronorma zer den ulertu ahal izateko. Nire desirak politikoak direla ulertzeko, eta erantzukizun bat dudala, ez

bakarrrik pertsonalki, baizik eta baita kolektiboki ere; bai LGBTBIQ+ militantzia antolatuan, baina baita beste edonolako antolakunde edo espaziotan ere, transmarikabollo ikuspegitik eragiteari begira. Zerbait intuitiboa izan zen, eta gero etorri zen politizazioa. Ez zen erabaki bat izan. Hor harremanek zerikusi handia dute. Militatzen hasten gara jende konkretu batek egiten duen espazio bat edo talde bat ikusten dugulako; jende horrekiko ditugun izaera, aurreikuspen edo afinitateek bultzatzen gaituzte espazio horretan militatu nahi izatera edo ez. Ez da kasualitatea espazio superheteronormatiboetan ez goatea jende feministarik edo LGBTBIQ+ik.

Hernando: Nire politizazio kanal edo auzi nagusia, txikitatik, abertzaletasuna izen zen. Oso modu intuitiboan ere, etxea izan da. Etxe euskalduna. Ni euskaraz jolasten nintzen, kantatzen nuen, eta bazegoen intuizio hau, euskarak ez zeukala –euskara herri bat egiten duen tresnetako bat bezala ulertuta– beste hizkuntzek zuten trataera. Nik esango nuke, nahiz eta ez naizen gai inondik inora identifikatzeko noiz, sentimendu hori nahiko txikitatik eduki dudala. Gero egia da badatozela beste politizazio argi edo foku batzuk, eta telebistari begiratzea besterik ez zegoen ikusteko bazeudela pertsona batzuk, gizon enpresari batzuk, diru asko zeukatenak, eta beste gehiengo bat baldintza material oso eskasak zituena. Eta herrialde batzuetan bazeudela baldintza material horiek, eta beste batzuetan horien ustiaketarako baldintzak lapurtu egiten zirela. Orain hitza jartzen diogu horri, baina nik uste dut telebista ikustea besterik ez dagoela. Ni hortik politizatu nintzen. Gero, helduagoa zarenean, ikusten duzu neskak eta mutilak ez garela berdin tratatuak, edo ez daudela espektatiba berdinak. Gure ikastolan, adibidez, urte batez ez dakit zenbat neskak elikadura trastorno basatiak eduki zituzten, eta hor hasten zara jasotzen mezuak: «Hemen zerbait gertatzen da». Hor hasi nintzen kontzientzia hartzen. Gero, nire kasuan, Ikasle Abertzaleak etorri zen, gaztetxe eta gazte asanblada, eta gero Ernai. Baina ados Iñigorekin, eta zuk ere Aitana aipatu duzu, mugimendu batera ez zara bakarrik

ibilbide razional batetik iristen. Badago halako jendea, baina esango nuke gutxiengoa dela. Iristen zara inpultso edo intuizio batzuegatik, eta gero hor jende bat topatu dezakezu zure bizi ikuskera konpartitzen duena eta babes bat edo komunitate bat eskaintzen dizuna. Horregatik gelditzen zara. Ondoren konturatzen zara, edo ez, proiektu hori dela balekoa. Baina babes eta komunitate hori da bereziki klabea.

Martinez: Nik uste dut bakoitzak politikarako hurbilpena modu jakin batean egin dezakeela, baina gu, belaunaldi bezala, topatu izan gara bidegurutze historiko baten aurrean. Alde batetik, krisi kapitalista; krisi ekonomikoak gogor jo zuen orain dela hamarkada bat, eta horrek jende askoren bizi baldintzak okertu eta pobrezia areagotu zituen. Eta, gero, beste alde batetik, krisialdi politikoa, lotuta dagoena ENAMen zikloaren amaierarekin. Horrek gauzak auzi generazional bezala esplikatzeko ahalbidetzen du. Horrez gain, gure inguruan behintzat, politika sozialistarako hurbilpena beste elementu batzuen bitartez ere egin dugu, tartean kritika edo eztabaida bezalako elementuen bitartez, gure ustez politika horren balio etiko-politiko inportanteak direnak. Nik uste dut elementu horiek pixka bat esplika dezaketela gure hurbilpena politika eredu horretarantz.

Rodriguez: Nik nire burua politizatutzat jotzen dut, baina uste dut etengabe ari gara politizatzen. Hasierako momentu horietara joanda, politika, askotan ulertzen den moduan, nire etxean tabu bat izan da. Nire gurasoek beti esaten zuten politikaz etxean hitz egitea ez zegoela ondo. Anaia zaharragoa daukat eta bera lehenago hasi zen, abertzaletasunetik, politika gaiak etxera ekartzen. Eta gurasoek beldurrez bizi izan zuten, ez ezberdin pentsatzen zutelako, baizik eta ez zekitelako oso ondo azaltzen zer pentsatzen zuten. Ez dakit zuen herriak eta zuen inguruak nolakoak diren, baina Orereta behintzat oso herri bizia da, eta niretzat izan da herri hezitzailea. Orduan, tabu horrek niri sortzen zidan... eta anaiak sartu ninduen hor. Gero beste toki bat topatu nuen, eta hori

izan zen lehenengo kontaktua feminismoarekin, gaur hor militatzen dudalako. Ez zen izan zerbait kontzientea, baina halako batean gauza batzuk ez nituen ulertzen nire bizitzan, eta esan nuen: «Nik erantzunak behar ditut eta hau konpartitu behar dut». Azkeneko urteetan sentitu dut guk ere ardua daukagula eta zapaltzen dugula, eta horregatik esaten dut etengabe ari naizela politizatzen eta beste gauza batzuek kontziente izaten. Ikusten dut prozesu bezala, eta ez «hemen hasi da». Mugarri ezberdinak dauzkat, ez dudalako boterea ulertzen hemen goian eta hemen behean. Nik uste boterea denean dagoela, eta pixkanaka joaten zarela konturatzen non dagoen, eta zuk ere zer botere erabiltzen duzun edo ez duzun erabiltzen. Uste dut garrantzitsua dela Iñigok esan duena, harremantzen zoazen heinean konturatzen zarela.

Agirre: Behin zu eroso sentitzen zaren ingurune hori aurkita, uste dut garrantzitsua dela besteengandik ikasten jakitea. Azkenean, Naiarak esan du etengabe ari dela politizatzen, eta nik uste denok gaudela pixka bat horretan. Ikasketa prozesu jarraitu bat da, eta, nahiz eta ingurune antzekoan ibili, jendea asko aldatzen da; eta bakoitzarengandik ikastea oso aberasgarria izateaz aparte, uste dut inportantea dela guk lortu nahi duguna ondo finkatzeko eta lorpen horren bidean besteak alde batera ez uzteko edo ez zapaltzeko. Mugimendu askotatik edaten dugu, eta horri balioa eman beharko litzaiokeela uste dut.

Rodriguez: Ni beti sentitu izan naiz oso probokatua; orduan, nik beti nahi izan dut zirikatu. Haurra zarenean modu batzuk daukazku, eta orain beste batzuk, eta niretzat politika izan da hori kanalizatzeko edo nire burua ulertzeko modu bat: «Honetaz ezin da hitz egin? Ba goazen hitz egitera».

Politika instituzionalaz zer iritzi duzue? Alderdien egitekoa zein da? Alderdien funtzioaz harago, zer eremu dago politikarako?

Agirre: Nik uste dut instituzioak beharrezkoak direla politika aurrera eramanez ahal izateko. Azkenean, zuk proiektu bat

defenditu nahi duzu, baina hori aurrera eramateko helduleku bat behar duzu, eta uste dut instituzioak helduleku horietako bat direla. Egia da ez dela beti erraza instituzioek gizartea islatzea, entzutea eta ulertzea, baina uste dut politika instituziorik gabe ez dela eraginkorra aldaketa bat eragiteko. Gazte bezala guri dagokigu orain arte instituzionalizazio mailan lortu dena –dela autogobernua, dela gure sistema propioak– zaindu eta ahalik eta maila aurreratuenara eramatea gizarte orekatu bat lortzeko, jasangarritasunaren gaian edo berdintasunean. Pandemiatik ateratzen garenean, desorekak berriz txikitu beharko ditugu; eta, hori dena aurrera eramateko, instituzioek rol nagusi bat eduki beharko dute. Politika instituzionala oso urrutiko gauza bezala ikusten da, baina modu bat da proiektuak lurrera ekarri eta aurrera eraman ahal izateko.

Martinez: Instituziogintzaz hitz egitean, uste dut hitz egin behar dela noren instituzioak diren, edo zeinen kontrolpean dauden eta zer izaera duten; bestela, gaur egun dauden instituzio ereduak absolutizatu eta betikotu besterik ez duzu egingo. Ez delako gauza bera enpresari handien kontrolpean dauden instituzio estataletan parte hartzea, edo langileriaren kontrolpean egon daitezkeen instituzio sozialistetan parte hartzea eta gero horiek antolatzea hezkuntza esparruan, lan esparruan, etxebizitza esparruan, eta abar. Uste dut hori lehenik eta behin argitu beharreko kontua dela instituziogintzaz hitz egiteko orduan.

Gaur egungo instituzioez hitz egitean, bestalde, esanda-koak ez du esan nahi langileriak ez duela parte hartu behar instituziotan. Gure ikuspegitik, parte hartze hori norabide- turik egon beharko litzateke egungo instituzio kapitalistek proiektu sozialista emantzipatzaile batentzat dituzten mugak agerian jartzera, eta gaur egungo instituzioetatik kanpo garatzen ari den prozesu sozialistaren eraikuntzaren menpekoa izan beharko litzateke.

Hernando: Behin eta berriz atera da boterea. Politika toki guztietan dago eta boterea ere toki askotatik eraiki edo

deseraiki daiteke. Ukaezina da gaur egun ezagutzen ditugun instituzio horietan boterea egon badagoela eta izan daitezkeela tresna bat, tresna horrek dituen muga guztiez kontziente izanda eta oso presente izanda. Duela gutxi, ezkerak behin eta berriz esan duen zerbait esan du Pablo Iglesiasek, alegia, instituzioak eskuratzen dituzunean ez duzula boterea eskuratzen, badaudelako beste egitura batzuk oso botereitsuak. Espainiako Estatuaren kasuan, hori oso agerikoa da: Guardia Zibila hor dago, Auzitegi Nazionala ere hor dago, Ibexa eta beste elite ekonomikoak ere hor daude. Eta horiek hor egongo dira zuk instituzioak eskuratuta ere. Are gehiago, instituzio horiek baliatzen baldin badituzu eraldaketa prozesu baten mesedetan jartzeko eta herritarren bizitzak erdigunean kokatzeko, izan daitezke oso zilegi eta ondratuak, baina topo egingo dute kapitalaren mesedetan diharduten beste botere horiekin guztiekin. Hori esanda ere, ukaezina da instituzioek badaukatela boterea herritarren bizitzan, baldintza materialetan eta bestelako alderdietan eragiteko, eta tresna horiek baliatu behar direla ahal den neurrian. Baina bistatik galdu gabe tresna horiek daukaten muga. Badaukagu beharra edo ardura horrelako azpiegiturek dituzten espazio eta tresnak gure mesedetan eta herritarron mesedetan jartzeko, jakinda lehia etengabea izango dela.

Agirre: Horretarako herritarren parte hartzea inportantea da, proposamenak eginez-edo; baina instituzioetan lotura bat ikusten dut, ez ditut urrutiko ikusten. Azkenean, Izarrek esan duenarekin ados nago: badaude botere batzuk instituzio asko kontrolatzen dituztenak, baina horren kontrapisua izan daiteke gure gizartean parte hartzeko dauden era ezberdinak, eta instituzioek edan beharko lukete hortik.

«Politika instituzionala oso urrutiko gauza bezala ikusten da, baina modu bat da proiektuak lurrera ekarri eta aurrera eraman ahal izateko»

Aitana Agirre

Hernando: Ados nago, baina aldi berean uste dut ardura hori herritarren gain bakarrik jartzen dela.

Agirre: Ez, ez! Ardura konpartitua, e!!

Hernando: Bai, badakit ez zinela hori esaten ari, baina ñabar-durak jartzeagatik. Instituzioek badaukate ardura, herritarren bizitzetan eragiteko daukaten gaitasuna kontuan hartuta, eta herritarrak animatu behar dituzte eskubide horiek garatze-ra. Baina, aldi berean, instituzioek badaukate aukera herritarrei espazio handiagoa emateko, eta oso mugatuak dira. Arduragabea iruditzen zait ardura hori herritarren gainean bakarrik jartzea eta politikan parte hartzeko jendearen gogo horri dei egitea.

Etxezarreta: Herri mugimenduetan gabiltzanok badakigu gaur egun instituzioak zer diren. Oso ondo dakigu, amesten dugun bestelako gizarte eredu horren baitan, instituzioak, gaur egun irudikatzen ditugun bezala, ez liratekeela existituko, ez bakarrik elite ekonomiko baten tresna direlako, baizik eta instituzioek erregimen heterosexual oso bat arautzen dutelako, eta genero binarioa, familia nuklearra... normatibizatzen dituztelako. Tresna bat izan daitezke, adibidez, trans legearekin. Lege bat egon baldin badaiteke baldintzatuko duena nik, trantsizioa abiaraztekoan, nire buruaz beste egingo dudan edo ez, uste dut ezin dela erridikulizatu edo ezin zaiola balioa kendu. Badakigu zer diren, noski. Nik kooperatiba batean egiten dut lan. Prozesu LGTBIQ+ eta feministak bultzatzen ditugu, ez ikuspegi instituzional batetik, herrietatik edo udaletatik baizik. Gure helburua espazio bat ahalbidetzea da, zeinaren bidez jende bat sartuko den eskoletara edo bestelako espazio informaletara hauxe esatera: «Zure aukera bakarra ez da heteronorma». Tresna bat da eta balioa eman behar zaio, kontuan izanda instituzioa dela jende heterosexualaren bozgorailu eta normatibizatzailea. Nik hamasei urte nituenean jendea etorri izan balitz instituzioen bidez niri beste zerbaite esatera, beharbada nire bizi esperientzia asko aldatuko zen. Eta hori mahai gainean jarri behar da.

Hernando: Jakin badakigu instituzioek zer paper duten. Badakigu erregimen batzuk betikotu ditzaketela. Horregatik, garrantzitsua da ulertzea herri mugimenduok etengabe presionatu behar ditugula instituzioak, benetan bermatzeko bitarteko horiek norabide batean jartzen direla eta ez beste batean. Batzuetan tentsio hori jaitsi izan dugu, eta bekatu egin dugu, pentsatuz une zehatz batzuetan instituzioetan egon den jendeak asmo onean eta norabide onean bakarrik egingo zuela. Tentsio hori beharrezkoa da. Instituzioek bakarrik ez dute lortuko, lehen esandako guztiagatik.

Rodríguez: Mugimendu eta instituzioen arteko tentsio hori egotea ezinbestekoa da. Nik instituzioentzat lan egiten dut berdintasunaren arloan, baina zer da instituzioa? Hasieran kostatu zitzaidan hor kokatzea, ze erraza da ardura instituzioetan jartzea, baina egia da horiek guk sortzen ditugula. Kontua da nola erabiltzen ditugun. Asko molestetzen dit jendeak esaten duenean ez dutela ezertarako balio. Ulertzen dut tentsio horren beharra, baina, balio, balio dute. Kontua da zer edukirekin beteko ditugun. Baina mugimenduak aurretik egon behar du, bai.

Zer iritzi duzue gaur egungo gizarteari buruz? Hobera goaz, edo okerrera? Zertan?

Agirre: Nik uste dut hobera goazela denborarekin. Guri krisi baten erdian egotea egokitu zaigu. Euskadik pasa ditu horrelako krisiak; 90ekoa egon zen eta atera ginen, eta nik uste dut honetatik ere aterako garela. Gero gure lana izango da pandemiak utziko duen normaltasun berri horretan krisiaren ondorioak ahalik eta gehien leuntzea.

Azken urte honek utzi ahal izan dituen ikaspen batzuk atara behar ditugu: posible dela kontsumo mentalitate aldaketa bat egotea, ekonomia ez dadin bakarrik izan enpresa handien zerbait. Tokikoaren garrantzia aldatu da urte honetan. Lehen aipatu dudan komunitate sentimendua handitu da batzuegan.

Hobekuntza inportanteenetakoa da gu garela horrelako mahai inguru batean bere iritzia lasai eman dezakeen lehen belaunaldia. Kontziente izan behar gara tokatu zaigula alde guztietako bizikidetza posible egitea, nahiz eta oraindik badauden arazo asko konpondu beharrekoak, eta horiek guri tokatuko zaizkigu. Presoak oraindik ez daude Euskadin, Espainiako instituzioek ez dute beren rola onartu, biktimek ere ez dute jaso askok esperoko zuten erantzun hori. Baina, orokorrean, gizarte bezala uste dut asko aurreratu dugula azken hamarkadetan, eta kontziente izan behar gara oso aberasgarria dela guretzat ere hori posible izatea, alderdi ezberdinak mahai inguru baten bueltan egotea.

Martinez: Nik uste dut ezin dela ondorioztatu, nahiz eta krisi bat pasa eta hortik aurrera egin izan den, oraingo krisitik ondo aterako garenik. Gainera, zalantzan jartzen dut beste

«Uste dut okerrera goazela eta ofentsiba neoliberal baten aurrean gaudela. Pentsatu eta begiratu behar da noren bizkar jarri den krisi honetatik ateratzeko zama»

Izar Hernando

tasun tekniko-humano hori dena gosetea, askatasunak edo horrelakoak gainditu edo hobetzeko. Askatasun politikoen inguruko kontzepzio negatibo batek beti esan izan du botere instantzia batek ezin duela inoiz eduki gaitasuna jendearen bizitan arbitrarioki interbenitzeko. Definizio hori gaur egunera ekartzen badugu, garbi ikusten da gure askatasun politikoa, zentzu horretan ulertuta kasu honetan, beheraka doala.

te krisitik ondo atera ginelako ideia hori. Ni ez nago ados Aitanarekin; uste dut nahikoa nabarmena dela, pobrezia eta askatasun terminotan behintzat, hemengo eta toki askotako biztanle xumeak okerrera egiten ari direla. Auzia modu orokorrean aurkezteagatik: bi-zi dugu garai bat, non, indar produktiboak izugarri handitzen ari diren arren, horien gaineko kontrola oligarkiak daukanez, ezin den erabili gaitasun tekniko-humano hori dena gosetea, askatasunak edo horrelakoak gainditu edo hobetzeko. Askatasun politikoen inguruko kontzepzio negatibo batek beti esan izan du botere instantzia batek ezin duela inoiz eduki gaitasuna jendearen bizitan arbitrarioki interbenitzeko. Definizio hori gaur egunera ekartzen badugu, garbi ikusten da gure askatasun politikoa, zentzu horretan ulertuta kasu honetan, beheraka doala.

Zergatik? Azken urteetan korporazio handiek eta beste zenbait instantziak gero eta aginte gaitasun handiagoa dutelako eta, beraz, horien aurrean gero eta babesgabeago gaudelako. Eta gero, pobrezia terminotan hitz eginda, Euskal Herritik eta beste gizarte askotatik begiratuta, pobrezia materiala jende kopuru handiagoarengana iritsi da –ezin dutelako eduki, ezin dutelako jan...–, milioika pertsonak (heldu zein ume) esplotazio erregimenak sufritzen dituzte, eta abar. Uste dut gaitasun sobera dagoela horri denari buelta emateko, baina erreforma eta proiektu politiko egoki bat eskatzen duela. Nik uste hori proiektu komunista dela.

Agirre: Euskadiri begira, Euskadi ulertuta zazpi lurraldeak, beste krisitik hobekuntzak atera ditugu. Datuak begiraturik, Europako iparraldeko herrialdeen ongizate mailaren pare gaude. Oraindik asko dago hobetzeko, eta horretan jarraitu behar da. Horiek ez dira ahaztu behar eta ez gara geratu behar konformismoan, ondo goazela esaten bakarrik; baina industrializazioa gertatu zenetik hona, uste dut orokorki egon dela hobekuntza bat, eta jarraitu behar dugula lanean, batez ere gutxien dutenen alde. Guk badaukagu gizarte bezala kontzientzia zergen bitartez gizartea hobetzeko. Uste dut hori hobekuntza izan dela, eta beharbada ez dela nahi zen muturreraino eramán, egia, ze oraindik badago jendea bizitzeko beharko lukeen duintasun horretara iristeko ez daukana; baina nik ez dut ikusten hain okerrera egin dugunik, azken hamarkadekin konparatuta.

Hernando: Nahiko ados nago Unai esaten ari zenarekin, ondorioekin izan ezik. Baina analisiarekin nahiko ados. Uste dut okerrera goazela eta ofentsiba neoliberal baten aurrean gaudela, indar errepresiboei pandemia honetan eman zaien zilegitasun guztiarekin lotuta. Pentsatu eta begiratu behar da noren bizkar jarri den krisi honetatik ateratzeko zama, eta ukaezina da oraindik asko gelditzen zaigula krisi honen ondorioak ezagutzeko. Baina ikusten dira zantzu batzuk, eta beste behin ere sektore zapalduenak direnen gain dago jarrita sufrimendu hori jasateko motxila, izan emakumeak,

gazteak, migranteak, eta abar. Baina beste faktore bat dago kualitatiboki horri guztiari buelta ematen diona, batzuetan ahazten zaiguna: larrialdi klimatikoa, herrialdeen arteko aldeak izugarri azkar areagotzen ari dena. Orain gazteek ez dute soilik oihukatzen krisia gehien dutenek ordaindu dezatela, baizik eta krisia gehien kutsatzen dutenek ordaindu dezatela. Hori hemen dago, eta beldurgarria da ikustea gure belaunaldiarentzat bigarren krisialdia dela, eta etsipena, haserrea eta beldurra hementxe daudela. Arrisku handia dago hori ultraeskuinak kapitalizatzeko. Ni ados nago badugula ardura bat horri bide emateko bestelako balio eraldatzaile eta eraikitzaile batzuen bidez, eta badaudela honetatik gutititik ateratzeko elementu positiboak, baina txirriatzen dute. Beste ardatz batzuk daude, eta uste dut Euskal Herrian hegemoniko bilakatu daitezkeela balio eraldatzaile horiek. Gazte belaunaldiei begiratzuz are gehiago, esango nuke. Batzuetan nazio gatazka lausotzen ari dela irakur daiteke argi eta garbi, baina egia da belaunaldi gazteek, gatazka armatua bizi izan ez dutenek, oraindik ere eraldaketa eta burujabetzarekin lotzen dituztela balio horiek.

Agirre: Esan dudanean gizartea hobetu dela, Izarrek esaten duen arlo horretatik esan dut. Aurreko belaunaldiek ez dute eduki feminismoarekin guk daukagun loturarik, inoiz ez da ikusi M-8an halako manifestaziorik egin denik, edo eraso matxista bat gertatzen denean herrietan egoten den erantzuna, edo *Fridays for Future* bezalako mugimenduak mundu mailakoak izatea, eta hori bai dela balioa eman behar diogun zerbait. Eta gazte bezala gu harro egon behar gara hain politizatuak egoteaz. Guri tokatuko zaizkigun problemei aurre egiteko modu bat hori da. Azken boladan mugimendu asko daude protestatan, kalean, eta nik hori positibotzat jotzen dut, azkenean kontzientzia eraldaketa-rako tresna delako.

Rodriguez: Nik zalantza asko izan ditut, eta hainbeste zalantza izatea ia sintoma bat da galdera horri erantzuterakoan. Alde

batetik, M-8a edo LGTBIQ+ mugimenduak indartzen ari dira. Horrekin ez dut esan nahi indarra ez zeukatenik, ze sinetsarazi digute lehen dena gaizki zegoela eta orain dena ondo. Ez. Lehen gauza batzuk ondo zihoazen, gero ez, orain bai, gero ez dakigu, dena ez da «hau ondo doa eta ondo joango da». Horregatik, nik ere zalantzan jartzen dut krisitik inoiz hobeto atera garen. Mundu mailan gai batzuk mahai gainean jartzen ari dira, baina horrek esan nahi du mundu mailan eragiten ari diren gauzak direla. Hori ona eta arriskutsua iruditzen zait aldi berean. Mundu guztian debate bera egiten ari bada, esaten dut: «Ze pasada, zer egin dugu mundu guztiak arazo hau edukitzeko?». Ez daukat erantzun bat, mila galdera daukat. Baina ikusten dut zein arriskutsua den anbiguoia izatea, ze gauza batzuk oso ondo doaz baina pendulu bat bezala da: oso ondo joaten bada alde honetara, beste indarra oso indartsu aterako da, eta orain ikusten ari gara faxismoarekin zer gertatzen ari den. Esan nahi dut gauza batzuk mahai gainean jartzea ez dela gauza horiek aldatzea.

Etxezarreta: Ados nago Unai egin duen analisiarekin, eta gero Naiarak aipatu duenean zer krisi edo zenbat krisi dauden, krisi ekonomikoaren analisia konpartitzen dut guztiz. Baina genero identitatearen krisia, hori bai krisia! Hori gestionatzeari begira jende batek eta mugimendu batzuek mahai gainean jarri dituzten baliabide horiek dira aurrerapauso bat eman eta hobera doazenak. Duela hogeita urte, ni honela jantzita, baldintzak ez ziren izango berdinak eta nire esperientzia aldatuko luke horrek guztiak. Orduan, askoz krisi gehiago daude. Aurrerapauso bat egon da: Z belaualdian Tiktoken bitartez zenbat jende ari da bere sexualitate, orientazio sexual eta genero identitatea beste modu publikoago batean azaltzen edo armairutik ateratzen? Hori gertatu da mugimendu feministaren partetik eta LGTBIQ+ mugimendutik apustu politiko bat eta militantzia bat egon delako gauza batzuk aldatzeko. Orduan, ez ditzagun baloratu bakarrik baldintzak; balora dezagun bakoitzaren bizi baldintzetan zerk eragiten duen.

Gazte izatearen baldintzapena nola bizi duzue? Zer balio du eta zer eragozpen sortzen ditu gazte izateak? Gazteen parte hartze politikoak gora ala behera egin du?

Etxezarreta: Baldintzatzen du, txikiagotzen gaituztelako. Pentsarazten delako zure iritziak balio gutxiago daukala, helduen munduak daukala arrazoia eta hori dela razionaltasuna, objektibotasuna eta zientzia. Ez delako ulertzen zergatik dituzun munduarekin konpartitzen ez dituzun beste desira

«Gazte izateak prekario egiten gaitu, eta horrek asko baldintzatzen du positiboki politizatzea. Elkartzen zaitu, baina askotan mugatzen du denbora aldetik, edo ekonomikoki»

Naiara Rodriguez

batzuk. Gazte izatearen baldintza nagusia da ez dizutela uzten pentsatzen mundua kaka zaharra dela. Gazteak ari dira parte hartze politiko handiago izaten, ez, ordea, parte hartze politiko antolatua. Oraintxe bertan, seguru asko, gazteria ez dago duela urte batzuk bezain antolatua politikaren era horretan, baina parte hartze politikoa, Interneten eta sare sozialen bitartez, asko handitu da. Beharbada eztabaida ez da

antolatua vs indibiduala, gazteak geroz eta politizatuagoak gaudelako. Internetek ekarri ditu baldintza batzuk politizatzeke, ekarri du Twitterren bitartez eztabaida batzuk eskuragarriago edukitzea, eta ekarri du, batez ere, niri dagokidanez, Tiktoken sartu eta ikustea zer politizazio maila dagoen, feminismoarekiko eta borroka transmarikabollo eta LGTBIQ+ mugimendurekiko; hori guztia parte hartze politikoa da. Tiktoken bitartez horrelako hautua egitea eta horrelako ideiak, ikuskerak, generoa, identitatea adieraztea bada parte hartze politikoa.

Agirre: Inñigorekin ados nago. Eragozpenetako bat da gazte izate horregatik gure iritziak gutxiago balio duelako pentsaera hori hor dagoela. Gazte izatea beti lotzen da inkonformismoarekin, eta, beraz, gazte izate hori jarrera bat da adin bat

baino. Inñigok esan du sareetan politika asko egiten dela, eta horrekin oso ados nago. Beharbada, parte hartze politikoa alderdietan jaitsi egin da azken urteetan, eta uste dut hori oso lotuta doala krisialdiekin. Krisi egoeretan jendea normalean gehiago politizatzen da, behar gehiago nabaritzen direlako. Azken urteetan, baina, politizazio hori alderdietara edo mugimendu sozialetara joan beharrean, sare sozialetara joan da. Eta gure alderdietan gure egitekoetako bat izango da sareetan dagoen pentsamendu hori ekintzetara nola pasa. Sareek balio dute identifikatu ditzakezun balioekin bat egiteko, baino gero sareetan mugitzen den hori guztia errealitatera eraman behar da. Institutuzioak modernizatu egin behar dira, eta guk eraman behar ditugu proiektu berriak edo ekarpen inkonformista hori.

Rodriguez: Gazte izateak prekario egiten gaitu, eta horrek asko baldintzatzen du positiboki politizatzea. Elkartzen zaitu, baina askotan mugatzen du denbora aldetik, edo ekonomikoki. Gaztetasunak ematen dizu indarra edo ausardia. Sare sozialez aipatzen duzuenarekin, ados. Askotan kritikatzten dugu horrek ez duela ezertarako balio, baina horrela erlazionatzen gara gure lagunekin, horrela antolatzen dugu militantzia... Nolanahi ere, kaleak hartzea, aurrez aurreko espazioetan egotea oso garrantzitsua da, horrek ematen digu indarra. Kalean sentazioa ezberdina da eta aprobeztatu behar da, ze horrek kutsatzen du jendea positiboki. Biak behar dira: kalea eta sare sozialak.

Martinez: Gaztea izateak baldintzatzen zaitu sozialki, ekonomikoki devaluatua dagoen sektorea delako. Langabezia tasak handiak dira, aldi baterako lana, prekaritatea. Horrek zuzenean baldintzatzen du bizi eredia: pobrea, ezegonkorra... Horrez gain, nik uste dut gazteriaren despolitizazioa gertatu dela. Despolitizazioaren termino ezberdinak ari gara erabiltzen, baina despolitizazioa orokorra da; eta hor zerikusirik dauka, alde batetik, gazteei zuzendutako kultur industriari, eta baita hezkuntza sistemak ere. Hortik aparte, proletarizatutako sektore bezala, kriminalizatu egin da, eta errepresio objektu bihurtu. Parte hartze politikoari dagokionez, hauteskundeetan bozkatze eta politika instituzionalean parte

hartze bezala ulertzen baldin bada, uste dut gazteriarena nahiko baxua dela, oro har. Gizartean gaitasun ekonomiko murriztuenak dauzkanak politikan gutxi parte hartzen duela iruditzen zait, edo azkeneko hauteskundeetako abstentzio tasek hori erakusten dute. Gero, ulertzen baldin bada parte hartze politikoa dela gizarteko auzi nagusien inguruan erabaki prozesuetan parte hartzea, esango nuke Espainiako eta Frantziako estatuetan ez dagoela parte hartze politikorik. Alde batetik, erabaki garrantzitsuenak oligarkia finantzarioak edo bere menpeko instituzioek hartzen dituztelako zuzenean. Beste alde batetik, Frantziako eta Espainiako sistema politikoetako alderdiak oso aparte daude gizarte zibiletik, eta, oro har, sistema horietan ustelkeria handia egoten da. Nik uste gazteriaren parte hartze politikoa handitzeko gakoetako bat sistema politikoaren egiturazko aldaketak behar duela izan; aldaketa hori justizia eta demokrazia unibertsalaren arabera antolatutako prozesu politiko baten baitan kokatu behar da. Hori instituzio sozialistak eraikitzea eta pixkanaka politika sozializatzen joatea dela ulertzen dut; hau da, erabaki eta ardura prozesu hori sozializatzen joatea eta gero eta sektore proletarizatu gehiago militante politiko bihurtzen joatea.

Hernando: Gehitzeagatik: argi dago gazteria beste sektore batzuentzako eskulan merkea dela, ezegonkortasunarekin eta prekaritatearekin lotuta, eta ikusiko dugu egoera horretatik noizbait aterako garen. Eta gazteria da adin tarte bat alienazio prozesu bat bizi duena, aurrerantzean eskulan merkerako herritarra eta sistemaren normaltasuna erreproduzituko duen norbanakoa izan dadin, hau da, sistemarentzako norbanako erabilgarria zentzu guztietan: familia nuklearra, parte hartzea bozkatzearekin bakarrik ulertzen duena... Horrekin ados nago.

Unai esandakoarekin lotuta, uste dut batzuetan gaztetasunaz oso modu idealistan hitz egiten dugula. Gaztetasuna eta errebeldia eskutik datozela. Ez da horrela, ados, baina potentzialitatea izan dezake batez ere bi prozesu horiek bizitzen ari den sektorea delako, eta baldintza prekarioenetan eta zapalduenetan dagoen sektorea delako. Beraz, potentzialitate hori

badago, baina gero gutxitan baloratu izan gaituzte horregatik. Gure alderdi eta mugimenduetara begiratuta, gehiago balortzen gaituzte ikuspegi kuantitatibotik («hemen daude gazteak», «haria ez da eten»), baina ez hainbeste ekartzen den beritasun edo freskotasunagatik.

Parte hartzearekin, pare bat ñabardura. Sare sozialek aukera eman dute parte hartze politikoa denon eskura jartzeko, eta esan da sare sozialek politika demokratizatu dutela. Uste dut hori esatea gehiegi dela. Egia da badagoela erraztasun bat sare sozialetatik politizatze eta harremantze, eta zurekin zerbait konpartitzen ari diren pertsonak aurkitzeko;

baina egia da sare sozialek gizartea zeharkatzen duten ardatz guztiak zeharkatzen dituztela, eta, guztiei ahotsa emate horretan, lehendik indartua zegoena indartzen dutela. Hori ezin dugu ahaztu, ze bestela gu ere diskurtso horretan erortzen gara. Gutxietsi gabe, ze ni aldekoa naiz eta jendea hor dago eta egon behar da, baina batzuetan idealizatzen ditugu eta uste dugu sare sozialetan eztabaida sano bat egon daitekeela, kalean egon ez denean.

Bestetik, parte hartzearen kontuarekin ere, uste dut mugimendu politikoek badugula ardura bat prozesu horiek eskuragarri jartzeko. Gure buruari entzuten diogunean, gure hizkuntza, batzuetan bada politikatik aldentzeko faktore bat.

Zuen proposamen politiko-ideologikoak zein onura du gaur egungo gizartearentzat? Zergatik da beharrezkoa?

Agirre: EAJrentzat, pandemiaren ondorengorako beharrezkoa izango da estrategiarekin asmatzea. Bada alderdi bat

«Gazteriaren parte hartze politikoa handitzeko gakoetako bat sistema politikoaren egiturazko aldaketak behar du izan, justizia eta demokrazia unibertsalaren arabera antolatutako prozesu politiko baten baitan kokatuta»

Unai Martinez

demonstratu duena erabaki garrantzitsuenetan jakin izan duela nondik jo. Gero, ongizatean aurrera egiten jarraitu nahi badugu, ekonomia eta arlo soziosanitarioa hobetu behar ditugu, batez ere orain. Horiek dira txanponaren bi aldeak, eta hor eragin behar dugu. Ez da bata edo bestea, ez dago osasunik ekonomiari gabe, osasungintza ekonomiarekin elikatu behar duzulako; eta, alderantziz, ez duzu edukiko ekonomia bat ez badaukazu gizarte osasuntsu bat.

Gero, pandemia alde batera utzita, uste dut jakin izan dugula oreka bat lortzen. Hemendik urte batzuetara estatus politiko berria lortzeko eta gizarte honetan orain indarrean dauden mugimendu horiei erantzuna emateko, instituzio eta alderdi indartsu batzuk behar dira, kohesioa ekarri dezaketena. Beste alderdiekin elkarlana ere egin behar da. Azkenean, egonkortasuna behar dugu.

Rodriguez: Ni ez nago oso ados, baina egia da toki ezberdinetatik hitz egiten dugula: ez bakarrik gure ideietatik, baizik eta non militatzen dugun. Nik feminismoa askoz abstraktuagoa ikusten dut, eta ez dakit definitzen: «Hau da gure proiektua». Gainera, ikusten dut ez dela proiektu independente bat, baizik eta aipatu ditugun askorekin eduki dezaakeela zentzua. Baina feminismoa zapalkuntza guztien aurka dagoen mugimendu bat dela ulertzen dut. Horregatik, zaila egiten zait proiektu politikoa zein den hiru lerrotan azaltzea, uste dudalako zeharka lantzen den zerbait dela. Ados nago ekonomia indartu behar dela, baina fokua jarri behar da beste ekonomia mota batzuetan, bizitzaren jarraipenerako eta jasagarriak izateko beharrezkoak. Ez da hainbeste zer, baizik eta zer ekonomia mota nahi dugun, zer harreman mota, zer etxebizitza mota, zer hiri mota... Aitanak esan du ekonomia eta osasuna, baina uste dut kontua dela beste ekonomia eta beste osasun bat. Hor sartzen dira zaintzak, esaterako. Uste dut harago joan daitekeela.

Etxezarreta: Naiarak esan duenetik tiraka, nahiko proposamen antzekoak egon daitezke LGTBIQ+ kolektiboan, gure mugimenduak ezinbestean feminista izan behar duelako.

LGTBIQ+ek edo transmarikabollok egin dezakeen ekarpena da familia nuklearra zalantzan jartzea modu oso ageriko batean. Familia nuklearraren desagertzearekin, bestelako ardatz asko desagertzen dira. Horrek esan nahi du bestelako harremantze eredu batzuk sortzea, ez bakarrik harreman afektibo-sexualen baitan, baizik eta bizitzari begira familia nuklearretik kanpo geratuko garen pertsonen bestelako esperientziak, zaintza sareak, harreman bitalak sortu ahal izateko. Mahai gainean jartzen dugun beste ideia bat da jende batek trantsizioa egin ahal izatea genero identitatearen arabera. Gu askeago bizi ahal izateko paradigma edo baldintzak sortzea.

Hernando: Ukaezina da krisi kualitatibo baten aurrean gaudela, eta ikusi beharko da hortik nola ateratzen garen, ateratzen bagara, sistema kapitalistaren berregokitzapen baten aurrean gaudelako, aspaldi ez bezalakoa. Orain arteko prosperitatearen ideiarekin ez gara hortik aterako; hori akatsa da, nire ustez. Txikitzen ari da natura, langile klasea eta bestelako sektoreak zapalduak daude;

eta jarraitzen badugu oparotasun anbizio horrekin eta horrek dakarren produkzio erritmo eta nahiekin, munduaren eta herritarren akaberara goaz. Beharrezkoa da norabide aldaketa bat, erreforma txikiekin sistemak badakielako egokitzten. Gure proiektua litzateke herritarren beharrak erdigunean jarriko dituen sistema bat, eraldaketa sozialean eta ezkerreko ikuspegitik eraikia,

parte hartzetik eta demokraziaren bestelako ulerkera batetik eraikia, alegia. Pandemiatik irakaspen batzuk aterako baditugu, horietako bat izango da estatu egituren garrantzia, horren gainetik bestelako instituzio batzuk badaudela ulertuta. Edo gure herriaren gainean erabakitzeke eta autodeterminatzeko

«LGTBIQ+ek edo transmarikabollok egin dezakeen ekarpena da familia nuklearra zalantzan jartzea. Horren desagertzearekin, bestelako ardatz asko desagertzen dira»

Iñigo Etxezarreta

tresnak dauzkagu, edo gureak egin du, beste batzuek erabakiko dutelako gure partez.

Martinez: Gu saiatzen ari gara tradizio sozialistaren proiektu emantzipatzailea berreskuratzen eta hori gaur egungo baldintzetara egokitzen. Hori modu umil batean egiten saiatzen ari gara, ardura eta dimentsio handiko eginbehar bat delako. Iruditzen zaigu egiten duguna beharrezkoa dela, Euskal Herrian ez dagoelako komunismoaren proiektua gu plazaratzen ahalegintzen ari garen terminotan berreskuratzen ari den nazionalki antolatutako indarrik. Horrekin batera, saiatzen ari gara gaur egun botere burgesaren dinamikak analizatzen eta horren arabera bizitzako esparru ezberdinetan antolakuntzarako proposamen politikoak egiten.

Rodriguez: Feminismoak proposatzen du boterearen beste irakurketa bat, ze boterea hor dago, kontua ez da garrantzitsua den edo ez, hor dago eta aprobetxatu behar da, baina beste norabide batean. Desboteretze bat eta birboteretze bat proposatzen du aldi berean, beste proiektu bat eraikitzeko.

Etxezarreta: LGTBIQ+ edo transmarikabollo mugimenduak generoaren banaketa binomialaren gainean egiten duen bestelako irakurketaren ekarpena ezinbestekoa da gaur egungo eraldaketaren klabeak zein diren ulertu ahal izateko. Gakoa izan da, behintzat, hauxe ulertzeko: sistema kapitalista eta heteropatriarkalaren arrakala handienetako bat genero banaketa dikotomikoa, heteronorma eta familia nuklearra auzitan eta erdigunean ez jartzea dela.

Politikoki, zer elkarlan aukera ikusten duzue mahaian dauden gainerako egitasmo eta taldeekin?

Agirre: Uste dut elkarlana beharrezkoa dela, bai mugimendu eta instituzioen aldetik, bai alderdien artean. Gure kasuan, gure helburua lortzeko, hau da, Euskadi independente bat lortzeko, beharrezkoa daukagu Bilduren eskutik joatea herriaren gidaritza elkarbanatu horretan. Azkenean gu gara horren alde egongo duten alderdi bakarrak, eta inportantea da zentzu

horretan, alderdi bezala, eta ondoren Katalunia, Eskozia eta beste nazioekin, minimo batzuk adostea. Ezin diegu Frantzia edo Espainiari gurekin, nazioekin, jolasten utzi. Egia da, Euskadi independente bat nahi badugu, oinarri sozial indartsu batzuen gainean eraiki behar dela. Hor sartzen dira dauden mugimendu desberdinak, ze ez dizu ezertarako balio estatu egitura propioa edukitzeak gero ez baduzu gizarte justu bat.

Beraz, alde batetik, gidaritza politikoa dago, eta, beste alde batetik, ekarpen transbertsalak, beharrezkoak generoaren dikotomia apurtzeko edo jasangarritasuna oraindik gehiago bultzatzeko.

Hernando: Helburu bera daukagula esatea asko esatea iruditzen zait niri. Dena den, konpartitzen dut elkarlanaren ideia, oso zentzu zabalean. Ez helburu berak ditugulako, uste dudalako urrun samar daudela gure helburu eta proiektu estrategikoak, baina lehen aipatu ditut bi ardatz: eraldaketa sozialarena oso modu zabalean ulertuta, eta burujabetzarena. Bi ardatz horiek hasiera gaur eta hemen, Euskal Herrian, izan behar dutela ulertzen dugu. Bi ardatz horietan prest dagoenarekin topo egingo dugu bidean, eta zintzoki diot.

Era berean, uste dut ñabardura egin behar dela, denok ezagutzen dugulako elkar: elkarlana ez da bakarrik bateratasun politiko ideologikoen ondorioa. Badaude jardunerako ohitura eta estilo oso ezberdinak, eta etika politiko-militante desberdinak ere. Gu konfluentziaren alde gaude, lehenesten dugun logika da, gure onena horri eskaintzeko prest gaude eta elkarlan horretan espero dena da besteek ere hori egitea. Bat egin badezakegu korporatibismo itxi batetik harago; nik uste elkarlana, indarrak batzea, beti dela positiboa.

Agirre: Ñabardura bat: helburu berak esaten dudanean, burujabetzaz ari naiz. Eta bidelagun esan dut, bi alderdi abertzaleen artean adostasun minimo batera heltzeko gaitasuna izan ezean, ezingo dugulako ezer lortu. Eta, gero, zuk esan duzunaren harira, zer garrantzitsua den gertuko instituzioak edukitzea, ikusi dugulako Frantziak edo Espainiak guri dagokigun zerbait kudeatu dutenean ez dutela asmatu inondik.

Martinez: Gu saiatzen ari gara komunismoaren proiektu unibertsala berreskuratzen eta gaurkotzen. Gure lehentasuna da hori indar erreal bihurtzeko kultura politikoa sortzea; eta lan horretan ari gara, hori egin ezean aliantzen auzia ezin delako ebatzi. Zentzu horretan, ulertzen dugu oinarrizko desadostasunak daudela mahai honetako gainontzeko egitasmo eta taldeekin.

Beste alde batetik, klase gabeko gizartea edota langileriarren zat estrategikoa izan daitekeen agertoki politikoa eskuratzeko borondatea balego, elkarlanera irekita egongo gara.

Etxezarreta: LGTBIQ+ edo transmarikabollo mugimenduan badago, berez, ardatz feminista, eta feminismoaren barruko ildo modura ere ulertu daiteke.

Rodriguez: Eta alderantziz. Askotan esaten da LGTBIQ+ feminista izango dela edo ez dela izango, baina baita alderantziz ere.

Etxezarreta: Elkarlanerako ezinbesteko baldintza da genero auzia eta ardatza eta heteronorma lehenestea. Beste zapalkuntzak bezainbeste. Ernairekin, eta hau ez da soilik ni

militante izan naizelako edo ez, jarri dira baldintza erreal batzuk generoaren auzia eta feminismoa landu ahal izateko, eta hori ezinbesteko baldintza dela uste dut. Uste dut elkarlanaren aukerak badaudela. Besteei dagokienez, edo jartzen da genero auzia, heteronorma, heterosexualitatea eta baita maskulinitateak suposatzen duena ere auzi politiko bezala, dena erdian, edo bestela zaila izango da.

«Hemen gaudenok,
nahiz eta zeharka
zapalkuntza ezberdinak
ikusten ditugun, politika
antolatuan gabiltza
zapalkuntza bat beste
bat baino hurbilago
sentitzen dugulako»

Naiara Rodriguez

Rodriguez: Nik ere maskulinitate erdua jarri nahi dut mahai gainean. Hemen gaudenok, nik uste, nahiz eta zeharka

zapalkuntza ezberdinak ikusten ditugun, politika antolatuan gabiltza zapalkuntza bat beste bat baino hurbilago sentitzen dugulako. Baina oso estruktura finko bezala ikusten dugu elkar, eta horrek aliantzak zailtzen ditu. Eta garrantzitsua da hori zeharkatzea. Ados nago GKSren ideia batzuekin, baina uste dut langile klasearen irakurketa oso maskulinoa egiten dela. Batzuetan gehiegi mugatzeak, «hau da zapalkuntza, hau da boterea» esateak, zaildu egiten du, ez gaituelako oso arduratsu bihurtzen.

Martinez: Guk ez dugu kokatzen auzi edo zapalkuntzaren bat bigarren mailan eta bestea lehen mailan. Guk marko analitiko eta politiko bat erabiltzen dugu boterearen dinamikak aztertzeko eta gero hortik proposamen politikoak ondorioztatzeko. Uste dut diferentzia dela guk estrategia komunista defenditzen dugula, eta, beraz, prozesu politikoa aurrera eramateko subjektu komunistaren planteamendua gure egiten dugula. Ez hainbeste zapalkuntza bat beste batetik gailentzen zaigun-edo, baizik eta zer estrategia politiko defendatzen den.

Rodriguez: Ni genero auzitik antolatzen naiz, baino ez dut esan nahi generoa denik lehenengo zapalkuntza. Uste dut ekonomia mota bat edo kapitalismoa egon ahal izateko, subjektu batzuen produkzioa badagoela, eta hor sartzen dela generoa. Ez dakit zer den lehenago, edo lehenago dagoen zerbait baiden, baino helburu txiki batzuetarako izan dezakegu elkarlana, eta beste batzuetarako agian ez.

Agirre: Ados nago. Azkenean gutako bakoitza zapalkuntza batean zentratzen da, baina horrek ez du esan nahi besteak alde batera uzten ditugunik. Loturak ikusten ditut, eta garrantzitsua da helburu batzuetarako ados jartzea edo elkarlan bat egotea.

Rodriguez: Nik gauza kontrajarriak ikusten ditut. Eredu ekonomiko kapitalistarekin ezin da feminista izan. EAJren planteamendu politikoarekin ere ez dut bat egiten.

Etxezarreta: LGTBIQ+en borrokak antikapitalista behar du izan, baina beste aukera batzuk badaude. Instituzioen

bitartez egiten diren ekarpen edo proposamen politikoetarako, LGBTBIQ+ edo transmarikabolloen ekarpena elkarlanerako garrantzitsua izan daitekeela iruditzen zait, proposamen politiko handiagoen baitan. Elkarlanaren orduan, antolakunde, eragile edo espazio batzuek baldintza batzuk jarri dituzte, ez bakarrik erasoak gestionatzeko, baizik eta baita heteronormatik kanpo kokatzen den jendearen militantzia baldintzak hobetu ahal izateko ere, edo maskulinitateak suposatzen dituen botere guztiei aurre egiteko eta deseraikitzeo medioak jartzeko.

Euskal Herriaren markoak zer esaten dizue, zer garrantzi du nazio auziak eta burujabetzak? Zatiketa administrati-boak nola baldintzatzen du zuen egunerokoa?

Martinez: Guk Euskal Herri aske bat defenditzen dugu. Horrekin ulertzen dugu Euskal Herriak izan behar duela lurralde marko bat, zeinetan, alde batetik, ez dagoen esplo-tazio ekonomikorik eta, beste aldetik, berezitasun kulturalak errespetatzen diren horien garapen librerako baldintzen bi-dez. Esaterako, Euskal Herrian existitu izan diren elementu kultural onenak jasotzea defenditzen dugu, eta horiek gizarte aske baten testuinguruan txertatzea. Euskal estatu sozialis-taren eraikuntza da defenditzen duguna.

Muga zatiketa administrati-boari dagokionez, begi-bistakoa da horrek eragin politiko-kulturalak dauzkala. Gure funtzio-namenduan zuzeneko eragina dauka, oztopo argia delako. Eta, beste aldetik, gure funtzionamendu ereduak eta jardun politikoa lurraldeen berezitasunen arabera egokitzea era-maten gaitu.

Agirre: Puntu batzuetan ados nago Unaik esan duenarekin. Gure helburua estatu propio baten sorrera da. Baina, zati-keta administrati-boari dagokionez, ikusten dut asko baldin-tzatzen duela euskararen erabilpenean; eta euskara ulertu behar da herri egiten gaituen elementu bateratzaile bezala. Zein erreferentzia ditugun ere asko baldintzatzen du. Mugaz bestaldeko eremuak edukitzeak esan nahi du une honetan,

adibidez, ezin garela EAETik Iparraldera edo Nafarroara joan. Horrek banaketa bat sortzen du, herri ikuspegian asko eragiten duena, eta beste arlo ezberdinetan desberdintasunak sortzera bultzatzen du. Guretzat, proiektua gauzatzeko, oinarri soziala landu beharra dago. Hainbeste egoera administratibo edukitzeak zaildu egiten du hori; oso ezberdina da abertzaletasun sentimendua Iparraldean, Nafarroan edo EAEn, eta horrek zaildu egiten du gure helburua lortzea. Orduan, helburua estatu eraikuntzan aurrera egitea bada, euskaldunak administrazio ezberdinen menpe egoteak asko baldintzatzen du.

Hernando: Euskal Herrian eraldaketa sozialak nahi eta nahi ez burujabetzatik pasa behar du, eta beharbada alderantziz. Duela 60 urtetik honako ekarpenari esker, abertzaletasuna oso lotua egon da balio eraldatzaileekin, zorionez. Horrek ez du esan nahi abertzaletasunak XXI. mendean ez duenik errebisiorik behar, baina Euskal Herrian dagoen abertzaletasuna ezin konpara daiteke, azken hamarkadak hartuta, beste herrialde batzuetan egon den abertzaletasun kontserbadore eta ez-integratzaile batzuekin. Horregatik, Euskal Herriaren markoa indartu behar dela uste dugu, eta zoritxarrez zatiketa administratiboak horri kalte egiten dio, estatu zapaltzaile-kapitalistek marko politiko-mentala markatzen dutelako eta banatzen gaituztelako. Hortik harago, zapalkuntza administratiboak harremanak moztu ditu, eta hori pandemia garai hauetan oso bortitza izan da. Horrek erakusten du hemen badagoela zatiketa administratibo horrek errepresentatzen ez duen beste sare, beste komunitate eta beste herri bat. Zazpiak bat bai. Lurralde administratibo bakoitzak, eremu lokal bakoitzak pertzepzio politiko-kultural propioa duela ukatu gabe, eta hori errespetatuta eta kontuan hartuta, diseinatu behar da burujabetza prozesua.

Etxezarreta: Nik nahi dut LGTBIQ+ edo transmarikabollo borrokak nazio ikuspegia edukitzea bere norabide horretan. Hor nik egin dezakedan aportazioa ez da bakarrik nazio identitate batetik ulertuta, baizik eta ulertuz baita ere,

pertsona politizatu eta politiko garen heinean, independen-
tzia edo nazio auzia handiagoak diren egitura kapitalista eta
heteropatriarkalekin hausteko beste tresna politiko bat dela.
Hori oso anbigua da, eta ulertzen dut LGTBIQ+ mugimen-
du barruan ideia asko egon daitezkeela.

Rodriguez: Feminismotik, nazio identitate horretan mas-
kulinitate eredu ere zalantzan jartzea garrantzitsua dela
ikusten dut. Nazio eraikuntza horretan maskulinitateak pisu
handia du, eta hortik pentsatu behar da zer eraiki edo de-
seraikitzen dugun.

Euskarak zer leku du zuen praktika eta pentsamendu po- litikoan?

Agirre: Bizkarrezurra da. Bada tresna bat batzen gaituena,
izan Iparralde edo Hegoalde, izan ideologia bat edo beste.
Bizkarrezurra den heinean, ematen zaion baino pisu han-
diagoa eman behar zaiola uste dut, hedabideetan eta arlo
pribatuan batez ere. Euskara jakiteari edo hezkuntza euskal-
duntzeari garrantzi handia ematen diogu, baino erabilerari

eman behar zaio daukana bai-
no garrantzi handiagoa. Asko
hobetu dugun arren, orain-
dik euskara oso maila aparte-
ko batean dago. Argi ikusten
da hori gaztelera edo frantse-
sa jakitea betebeharra den eta
euskara jakitea eskubidea den
momentutik. Hori apurtzen ez
den arte, euskarak ez du edu-
kiko bere eremu libre bat.

Bukatzeko, iruditzen zait
inportantea dela euskara eta
abertzaletasuna banatzea, ze,
abertzaleok euskaraz egiteko
betebeharra daukagula irudi-
tzen zaidan arren, espainol edo

«Inportantea da euskara
eta abertzaletasuna
banatzea; abertzaleok
euskaraz egiteko
betebeharra daukagula
iruditzen zaidan arren,
espainol edo frantses
sentitzen denak euskara
bere ondareztat edukitzea
inportantea da»
Aitana Agirre

frantses sentitzen denak euskara bere ondareztat edukitzea inportantea da. Katalunian gertatu da, espainol sentitzen direnek katalanez egiten dute, eta hori oso aspektu positiboa da hizkuntzarentzat. Baina Irlandan kontrakoa pasa zen: behin mugimendu nazionalak aurrera egin zuenean, hizkuntza guttiz galdu zen. Mugimendu abertzaleok, abertzale sentitzeagatik, euskarak lotu behar gaitu eta euskara erabili behar dugu. Baina inportantea da abertzaletasunarekin bakarrik ez lotzea eta edonork, sentitzen duena sentitzen duela, euskara bere ondare hizkuntzatzat hartzea eta erabilpenean ere sartzea.

Hernando: Gure kasuan omnipresentea da, baina era berean oso lausoa. Euskararen 'normalizazioa' bataila irabazi bat baltz bezala bizi izan duen belaunaldi bat garelako, behintzat lurralde geografiko jakin batzuetatik gatozenak. Jakina, hor daude erabileraren datuak, baina Euskal Herrian oraindik ez dago bermatuta lurraldearen luze-zabalean euskaraz bizitzeko aukera. Uste dut euskalgintzak bereziki aldarrikapen horri heldu behar diola: euskal herritarrok, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duen edonork, bermatuta izan behar ditugu bizitzaren edozein jarduera euskaraz garatu ahal izateko eskubide eta baldintzak. Baina guretzat euskara hori baino gehiago da, eta tresna politiko bezala ere ulertzen dugu, badelako herriaren elementu bertebratzailea. Esango nuke hor daukagun erronka dela euskara izan dadila, baita ere, inklusiorako beste elementu bat, harrera hizkuntza.

Martinez: Gure jardun politikoari dagokionez, kanpora zein barrura begira, euskarak lehentasun osoa dauka. Gure komunikazioak euskaraz egiten ditugu. Gure aktibitate politikoak egiteko beste hizkuntza beharrezkoa denean soilik mantentzen dugu politika elebiduna. Hau da, euskaraz komunikatzen gara, eta, gero, kasuan kasu, gaztelera edo frantsesa erabiltzen dugu.

Rodriguez: Aitanak esan duenarekin, euskara eta abertzaletasuna banatzearena, uste dut artikulaziorako tresna bat dela, eta, praktikan, politizatzeke tresna bat askotan.

Martinez: Gu interesatuta gaude errealitate sozioekonomikoaren eta euskararen erabileraren arteko harremana zein den ikertzeko, horri begira pausoak ematen joan ahal izateko eta lan-lerro errealak proposatzeko.

Zer etorkizun irudikatzen duzue hemendik bost urtera zuen egitasmo politikoarentzat?

Agirre: Burujabetzan aurrerapausoak egin dituen Euskadi bat, berdintasunean, jasangarritasunean eta beste hainbat mugimendu sozialetan. XXI. mendeko giltzak edo borrokak izan daitezkeenetan aurrerapausoak eman eta egonkortasun bat lortu duen herri bezala. Ahalik eta harreman estuenak lortu dituen EAE, Iparralde eta Nafarroako lurraldeen artean burujabetza prozesu horretan, eta euskarak behar duen tokia daukana erabilpenean eta jakintzan. Baita tresna integratzaile bat bezala ikusita, elkarlanerako toki izateko ahalmenarekin, eta horren bueltan landutako gizarte bat.

Rodriguez: Nik ez dakit artikulazioa zer mailatakoa izango den; pandemiarekin zalantzak ditut, ez izango den edo ez, baina bai zer modutakoa. Baina gustatuko litzaidake askotarikoagoa izatea. Hori ari da lantzen orain LGTBIQ+. Migrazioa ere mahai gainean dago, Durangoko jardunaldi feministetan oso garbi ikusi zen. Baino askotarikoagoa izatea espero dut. Hemen badakigu zenbateraino iristen garen, eta beste ahots batzuk behar ditugu.

Etxezarreta: Uste dut hemendik bost urtera LGTBIQ+ pertsonen politizazio maila handiagoa izango dela beren genero identitatearekiko, jendeak gero eta gehiago ulertuko duela. Feminismoarekin, berdin. Genero identitatea uste dena baino politikoagoa da, eta horrek beste gai batzuetan ere politizatuko du. LGTBIQ+ antifaxismo berri bat ari da bilakatzen generazio berrietan. Tiktoken nola erabiltzen den Espainiako bandera diskurtso faxista, neoliberal edo kapitalista baterako, eta nola erabiltzen den ortzadar bandera bestelako balio progresisten eskaparate bezala. Eta nik zer

nahiko nuke Euskal Herri mailan? Borroka transmarikabollo LGTBIQ+entzat, behintzat, barneko antolakuntza handiagoa edo indartsuagoa. Saiakerak egin dira, hor daude, baina bestelako antolakuntza bat espero dut, koordinazio edo saretze marko handiagoa egotea Euskal Herrian.

Rodriguez: Esan dut nahi dudala askotarikoagoa izatea eta zabaltzea, baina egia da feminismo asko daudela. Zalantzak sortzen zaizkit. Bi M-8 oso indartsu izan ditugu; lehenago ere baziren feminismo asko, baina agian orain gehiago artikulatzen ari da Euskal Herrian. Jakin-minez nago. Badakit gaitasuna daukagula eragiteko, baina zalantza askorekin. Eztabaidak sortzen diren heinean ikusten ditugu antzekotasun eta ezberdintasunak.


Martinez: Egia da guk ez daukagula gaitasunik esateko hemendik bost urtera nola egongo garen, bestela espekulazio politikoa egitea izango litzateke. Baina bai aurkeztea zer norabidetan egin nahi dugun lan, edo zentzu kontzeptual batean nola nahi dugun gure proposamen politikoa garatzea. Eta proposamena da euskal estatu sozialistaren norabidean joatea eta horretarako baldintzak sortzen joatea esparru ezberdinetan. Instituziogintza proletarioa eratzen joatea, hori delako demokrazia proletarioaren azpiegitura, eta horien bitartez langile sektorea pixkanaka politikan parte hartzen joatea.

Bestalde, garrantzia ematen diogu koiunturazko auziei aurre egiteari. Koiunturari erantzuten diogun bitartean, esperientzia metatzen dugu, eta horrek gure norabide estrategikoaren inguruko zehaztasun gehiago definitzen joaten laguntzen digu; ze estrategia ez da alde aurretik bakarrik

«Nire aurreikuspena eta erronka da datozen bost urteetan Euskal Herriaren proiektu politikoa ardatsu ahalko dugula balio eraldatzaile, ekologista, ezkertiar eta feministetan oinarrituta eta burujabetzatik abiatuta»

Izar Hernando

eraikitzen, esperientzia metatzen goazen heinean joango gara xehetasun estrategikoak definitzen.

Hernando: Esan duzunaren ondoren, pixka bat ausarta da aurreikuspenak egitea, ze egia da ezin dela jakin eta hau dena espekulazioa dela. Baina nik uste dut Euskal Herrian azken urteetan joera aldaketa bat nabaritzen dela, eta esango nuke urte luzez hegemonikoa izan den proiektu bat pixka bat kili-kolo dagoela. Eta orain dela momentua, botere harreman ezberdinak izanda ere, Euskal Herrian bi proiektu nagusi daudelako gizartearen begietara. Eta nire aurreikuspena eta erronka da datozen bost urteetan Euskal Herriaren proiektu politikoa ardaztu ahalko dugula balio eraldatzaile, ekologikoa, ezkertiar eta feministetan oinarrituta eta burujabetzatik abiatuta. Hori pasatzen da aliantza berriak egitetik, eta guk ulertzen dugu aliantzak ezkertiarak izan behar direla. Eta ez dugu ahaztu behar Euskal Herrian gatazka politikoaren ondorioak sufritzen jarraitzen dugula, beste maila batean bada ere eta erakundearen amaieratik urteak pasa badira ere. Uste dut urratsak ematen ari direla, eta urrats handiagoak eman behar direla datozen bost urteetan erreparazioan eta aitortzan, Euskal Herria preso politikorik gabeko herri bat izan dadin. 

EGUNEN GURPILEAN

117 Kultura

Ekida

(H)egoak ebaki banizkio

Maialen Akizu Bidegain

123 Soziolinguistika

Normala

Translanguaging

Tentsioak, aldaketak eta erronkak

Tipi-tapa, tipi-tapa, eserita

Jaime Altuna Ramirez

129 Glokalia

Zeruko begiak

Zaborrak begiratzen al gaitu?

Begi lokalizatzaileak eta trazabilitatea

Begirada hiltzaileak

Ezkutalekuen bila

Iñigo Martinez Peña



Kultura

Maialen Akizu Bidegain

Ekida

Aurreko zenbakian idatzi nuen lehenengoz txoko hone-tan, eta estreinatutako zapatekin nola, pausoa motelago eta kontu handiagoarekin ematen ibili nintzen. Kultura zer eta zertarako galderei aurki desados egongo naizen erantzuna eman nien, eta, aireportuen antzera (inork dagoeneko ahaztu baditu), behin kontrol gunea arnasaz justu baina zaratarik gabe pasata, libre(ago). Bi gairi heldu nahi nieke oraingoan.

Joan den otsail hasieran sortu zen Ekida kultur ekimen so-zialista. Sare sozialetan zabaldutako testu eta bideoak zein han-hemen egindako aurkezpenek ordura arte kontzeptu arrotza zena hizketa gai bihurtu dute. Eta atrebizten naiz esaten ez dela kontzeptua bakarrik arrotz egiten zitzaiguna; planteamenduak berak ere harridura eta ezin ulertua sortu du; ez da talde, banda edo aldarrikapen sorta baten bueltan elkartutakoen antolakundea, ez dute jardunaldi edo diru-ku-txarrik eskatzen. Bestelako eduki, forma eta usain bat duen kultur ekimena da Ekida.

Aurkezpen testuan ekida hitzaren hiru definizio ageri di-ra: *ekida* eraikin edo edifizioa da; *ekidatu* edo *ekidatzen*, aditz bezala, eraiki, egin, sortu edo fabrikatzea esan nahi du; *ekida*, bestalde, ekidatzearen emaitza ere bada, eraikun-tza, sorkuntza edo egintza, alegia. Zuri-beltzean egindako bideoak eraikin bat du paisaia nagusizat, eta bertan ikusi eta entzundakoek badute zure baitara ez den beste norabait barneratzeko gaitasuna: «Hildakoek keinu ulertezinak egiten dizkigute»; «Arkatx batek lerro guztiak ditu aukeran; kontua da zein eskuri erantzuten dion»; «Eman digutenetik harago pentsa dezagun».

Ekidak «argitalpenerako, eztabaidarako, kritikarako, azterketarako, sustapenerako aukera emango duen ekimen bat izan nahi luke, borondate sozialistako artistentzako espazio bat, kulturaren eta artearen esparruetatik iraultza sozialistari ekarpena egiteko». Kultur ekimen honen sorrera ezin da ulertu Euskal Herriko Mugimendu Sozialistaren azken urteetako bilakaera eta joeretatik kanpo, eta Euskal Herriko Mugimendu Sozialista Euskal Herriko gazte mugimenduan egondako zatiketarekin bakarrik ezin da azaldu. *Gazte mugimenduaren zatiketa? Noiz gertatu da hori?* Gatazka honetan adinaren faktorea agerikoa da, eta egia da, agian, *gure* belaunaldiaren baitan izan dela agerikoena (*gure* diodanean, 90eko hamarkadatik goitik jaiotakoez ari naiz). Hala ere, ez dut uste belaunaldi baten *haizeak* direnik; Euskal Herriko errealitate politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalaren ondorio eta eragile da antolakuntza sozialista.

«Antolakuntza», «iraultza» zein «borondate sozialista» ez dira kulturaren esaldi berean topatzen diren hitzak preseski, eta horixe bera da Ekidak salatzen duena: kulturaz eta arteaz hitz egiteko testuingurua hartu behar da kontuan, eta ezin da kulturaren eta artearen modernizazioa ulertu klase-borrokatik bereizita. Ekimenaren nondik norakoetan luzatu baino, sortutako galderetako batzuk hemen.

Klase-borrokari forma eman eta krisiz krisi dabilen errealitatearen ulermena zein berori gainditzeko antolakuntza izaten ari da Mugimendu Sozialista. Asmo horretan kulturari garrantzi handia eman diote, bai teorian, bai praktikan, eta Ekidak jakin-minarekin batera sortu du debatea. Ez dute azpimarratzen COVID garaian hainbatetan entzun dugun *prekaritatea*, ez behintzat kultur langileen egoera isolatu gisa. Langileok kulturalki gaude azpiratuak. Ez gara gai kapitalismoa ez den bestelako mundu bat imajinatzeko. Masa kulturak kulturaren hedapena, demokratizazioa ekarri du, baina baita despolitizazioa ere ezinbestean. Kultura, egun, emantzipazio eta kritikotasunetik urruti dago gehienez, eta beharrezkoa da logikak zalantzan jarri eta eraldatzeko aukeretan pentsatzea.

Bitartean, ordea, martxoaren 22tik, Baionako Michel Portal antzokia okupatuta dute kultur eragileek. Urriaz geroztik itxita daude kultur guneak. Harrituta naukate Frantziak kulturaren esparruari ezarri dizkion neurriek, historikoki kulturari garrantzi politiko handia eman baitiote. Kulturgileek kultur guneak irekitzea zein intermitentzia zergak bertan behera uztea eskatzen dute, besteak beste. Neurri horiek sisteman irauteko helburua dute, ez dute beste mundurik nahi. Edo bai.

Kotxeko gurpila zulatzean, partxeak zulo hori besterik ez du estaltzen baina bidean jarraitzeko aukera ematen dizu. Eta kotxe hori, ondoren, iritsi daiteke errepideak agintzen ez dion lekuetara. Kulturak bestelako logika eta sentsibilitate berriak sortu ditzakeela uste dut, baina kulturatik sistema kapitalistaz gogoeta egitea beharrezkoa da. Ekidak kulturgileei eskatzen dien «ardura politikoa» zertan datzan ez dut irudikatzen garbi, ez eta nola neurtuko den kultur produktuen ekarpen sozialista. Hala ere, euskal kulturgintzari ekarpenak egingo dizkion debate bat zabaldu da, euskaratik kulturgintzaz ari dena, kulturatik harago joateko.

(H)egoak ebaki banizkio

Aspaldion, gehiago naiz behatz eta begi hezur eta haragi baino, eta ulertezina zaidan hizkuntza batean uzten ditut nire arrastoak. Bizilagunen berri euren wifiak ematen dit, eta Virginia Woolfen gela bakartuta bezain konektatuta dago.

Mundu digitalaz eta sare sozialez ari naiz. Kontzeptuak eurak ere kulturaren parte dira, eta, egiari zor (gehiago zor digu egiak), bekozkoa zimurtzen zait (hala egiten ikasi dut) 'sare sozial' kontzeptua 'sare sozialei' nola *utzi diegun* ikusita #galdutakoborrokak. Hainbeste gauza izan zitezkeen 'sare sozial', lotura, elkargune, kolektibo, eta ezpa, pantailaren baitakoa halaxe bataiatzea erabaki, fetitxe bihurtu, eta guk amen #etahorreladena. Malutak elurretan nola, sare sozialen

arrakasta kontzeptuaren sinpletasun eta egokitasunagatik ere badelakoan nago. Hitzek esan egiten dute. Lagun batek dio *feminismoaren* lehen oztopoa kontzeptua bera dela, eta *marxismoa* ere intelijenteren bati okurrituko zitzaiola. Hori beste baterako. Itzuli gaitezen sarera.

Algoritmo eta big datak seko beldurtzen naute, baina kurio-soa iruditzen zait sare sozialetan kulturgintzak duen presentzia, Twitterren bereziki (eta ez da kasualitatea euskaldunok hitzari lotuen dagoen sarea hautatzea batik bat).

2010ean CodeSyntaxek abian jarri zuen Umap.eus webgunea. Twitterreko euskal komunitatea (*Txioerria*) trinkotzea du helburu, Twitterreko erabiltzaile euskaldunak detektatu eta euren mezu jarioa zein hizkuntza erabilera analizatzen du. Hamarkada honetan 70.000 erabiltzaile euskaldun identifikatu dituzte, eta, mezuen joerak aztertuz (joerak *hashtag*-ak dira, #HauDaJoeraBat), rankingak osatu dira jarraitzaile kopuru, jasotako bertsiio eta idatzitako txioen interesa neurtzen duen algoritmo baten bidez #tatxan. Ranking moten artean kulturak ere badu bere atala, eta ba al dakizue nor den kulturaren («zinema, musika, literatura, bertsoa, dantza, antzerkia» bezala definitzen du kultura Umapek) arrakastarik gehien duen txiolaria? Ez dizuet nik esango.

COVIDaren itxialdiak, joera berriak sustatu baino, lehen zeudenak azeleratu dituela esan da. Ez nago ados. Erritmoa aldatzeak errealitate berriak sortzen ditu edo sortu ditzake. Marrazkiak adibide: Heidi, bere irribarre zabal eta inozentzia, orri ezberdinetan marraztu dezakegu. Ordea, orriak segidan, erritmo bizkorrez, eta abiadura jakin batean pasaz gero, hantxe hasiko da gona gorria ahuntzen atzetik saltoka. Txioerrian ere azelerazio hori, denbora eta txio jasa hori, badagoela uste dut. Teknologia berriek espazio eta denboren mugak gainditu dituzte, eta kultura ezinbestean dago espazio eta denborarekin lotuta. Zerk du garrantzia testuingurutik kanpo?

Internet moderno delakoa 1989an sortu zen. Inprentak hiru hamarkada behar izan omen zituen 1440. urtean sortu eta kulturgintza goitik behera aldatzen hasteko. Internet

komunikazio tresna baino erregistro erreminta bihurtu da. Memoriak arazo izateari utzi dio, eta jada ez da *gurea*, eta ez da *historikoa*.

Neronek harreman eskizofreniko xamarra daukat Twittrerekin: goizeko kafearekin ematen diot lehen begiratua, trenean, paseoan, asperraldietan ere bai, eta, zalaparta baldin badago, hari hori tira. Ez daukat Twitter konturik, ordea. Begira egoten naiz inork ikusi gabe. Behin egin nuen 'Maialen Akizu' izeneko kontu bat, zein argazki, zein jarraitu, zein sarrera mezu idatzi ondo pentsatuta #kaixonieuskaldunfeministaezkertierra. Pare bat egun pasako nituen, baina azkar egin nuen handik ihes. Eta hala ere, hor nago.

Txioerria, iritzi eta korronteez gain, kultura egin eta eragiten ari da. Adibide nabarmenena, akaso, Chill Mafiarena izango da. Bere eduki, intentzio edo hartzaileen erreakzioetan sartu gabe, izandako zarata eta oihartzuna Twitterren paretak badaudelako, eta Twitterren pareta horiek euskal komunitate bat zedarritzen dutelako, gertatu zen. Agendan Chill Mafiaren kontzertuak ikusi ditut han-hemenka. Beste adibide bat 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian sortu zen Patxi Bakallo Twitter kontua da. Bere komentario *zirtolariak* elkarriketa sortu zuten, eta Txapelketa Nagusiaren parte bihurtu zen fikzio digitala. Hirugarren adibide bat aipatzeko, #zureestiloanmarratzu erronka bururatzen zait. Joseba Larra-txe *Josevisky* marrazkilariak Zakilixut pertsonaia norberak nahieran marraztera animatu zuen Txioerria. Ezustean bertsio andana sareratu zen, marrazkilari-ilustratzaile zein bestelako norbanakoek hartu zuten parte, eta Zakilixuten segidan etorri dira komikietako beste pertsonaia batzuk.

Twitterren agertokia kulturaren plaza publiko bihurtu da, eta ez dago atzera-bueltarik. Kultura egiteko moduak eta kultura hautemateko moduak aldatzeaz gain, kultura nork egiten duen ere aldatu da. Eta izatea edukitzearekin berdintzen da birtualitate immaterialean: jarraitzaileak eduki behar dira, mezuak, arrakasta. Gorputza ere bai (generoak sareetan duen eragina beste baterako #stopanaidia).

Twitterreko egonezin eta egonberraz hitz egin dit literaturan ari denak, euskarazko egunkari bakarrean dabilenak, politikan bidea egin nahi duenak... Eta asko kezkatzen nau. Era berean, errealitateak Twitterreko kritikotasun, irudimen eta aniztasunaren antza izatea desio dut batzuetan. Eta ez izateak kezkatzen nau. Idoia Torregaraiak joan den martxoko etxeko itxialdian idatzitako txio eder honek balio du (h)ego urdineko txoriaz esandakoei bukaera emateko:

Txori bat pausatu da leiho-ertzean.
Begira geratu zait.
Orain ni naiz kaiolan dagoena. 🦋



Normala

Hauxe galdetu nien ikerketan parte hartzen ari ziren nerabeei: «Kalean zer hizkuntza entzuten da? Nola hitz egiten duzue?». Segituan erantzun zuen batek: «Normala... Ez da euskaraz, ez da erdaraz». Zehaztapen gehiagoren bila, normala zer den galdetu nion. Pentsakor geratu zen: «Normala...», eta ondoan zegoen lagunari begiratu zion laguntza eske. Laguna, ordea, despistatua zegoen: «¿El qué? Ez naiz enteratu...». Hasieran erantzun zuenak azalpena hortxe nuela adierazi zidan: «Hori da normala: *el-qué-ez-naiz-enteratu*».

Ikerketa hartan, antzeko pasadizoak jaso genituen. Argi ikusi genuen nerabe haientzat lagunarteko hizkera ia beti modu elebidunean garatzen zela. Bi hizkuntzak etengabeko mugimendu dinamikoan nahasten ziren. Gazteen arteko idatzi gabeko araua, *norma*, gaztelania eta euskara txandakatzea zen. Hori zen normal hitz egitea, normaltasuna.

Translanguaging

Duela bost urteko pasadizo horrekin gogoratu naiz Bilbon egin den Hizkuntza Gutxituen XVIII. Nazioarteko Biltzarrean. EHUko Nor ikerketa taldeak antolatuta, munduko hizkuntzen errealitate askotarikoa zein den erakusten zuten 140 ponentzia entzuteko aukera egon zen martxoaren 24tik 26ra. Irekiera hitzaldian, Jasone Cenoz *translanguaging*-ari buruz mintzatu zen. Zehazki, hizkuntza gutxituetako testuinguruetan translanguaging pedagogikoaren erabilerak eskaintzen dituen aukerak aurkeztu zituen.

Translanguaginga deitzen zaio eleaniztunek beren hizkuntzak komunikazio-sistema integratu gisa erabiltzeko prozesuari. Ikerlerro horretan dabilzan eta Bilboko kongresuan parte hartu zuten Oihana Leonet eta Eider Saragueta iker-tzaileek bi translanguaging mota bereizten direla azaldu zituzten: bat-bateko translanguaginga eta translanguaging pedagogikoa. Lehenengoa ikasgela barruan zein kanpoan ikasle elebidunen hizkuntza erabilera malgua litzateke. Bigarrena, aldiz, estrategia pedagogikotzat har daiteke: irakasleak berak ikasgela barruan planifikatutako hainbat jarduera gauzatzen ditu, bi helburu lortzeko: batetik, eskolako hizkuntzak eta eduki akademikoak garatzeko; eta, bestetik, eleaniztunek dituzten baliabideak erabiliz hizkuntza gutxituen edota gutxi hitz egiten diren hizkuntzen irakaskuntza bultzatzeko.

Euskal Herrian ildo hori jorratzen ari direnek translanguaging pedagogikoaren garrantzia azpimarratzen dute, ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, eta euskara bera ere indartzeko eta ikasteko, oso baliagarria dela uste baitute. Saraguetak, iaz *Berria* egunkarian egin zioten elkarriketa batean, heziketa tresna horren erabilgarritasuna azaldu zuen:

Translanguaging da elebidunok edo eleaniztunok berez daukagun ezaugarri bat, modu espontaneoan erabiltzen duguna. Esaterako, zinean gazteleraz ikusi dudana film baten laburpena euskaraz kontatu diezaieket nire lagunei. Nik hizkuntza batean jaso dut, baina beste batean emateko gai naiz. Hori gelara ekartzean, translanguaging pedagogikoa egiten dugu. Aurrez planifikatutako ariketak erabiltzen ditugu. Ikasleek duten hizkuntza erreperitorioari ahalik eta etekin handiena atera nahi diogu. Beraiek dauzkaten ezagutza horiek erabili nahi ditugu, ez ingelesa edo gaztelera ikasteko, baizik eta euskara bera ere indartzeko eta ikasteko. Askotan ikasle batzuk trebeagoak dira gazteleraz, eta euskara ikasteko erabili behar dute ezagutza hori. Beste tresna bat ematea da.

Hala ere, Cenezok Bilboko kongresuan ohartarazi zuen translanguaginga ezin dela modu akritikoan erabili. Tes-tuinguru sozialaren ezaugarriak ez badira kontuan hartzen, hizkuntza gutxituaren biziberritze prozesua kaltetu dezake.

Horregatik, jasangarria den translanguaginga erabiltzea iradoki zuen. Proposamen horrek bost ardatz ditu. Batetik, hizkuntza gutxituak erabiltzeko arnasmuneak sortu behar dira, euskara bezalako hizkuntzek elebakar diren espazio horiek behar-beharrezkoak baitituzte. Bigarrenik, translanguagingaren bidez hizkuntza gutxituak erabiltzeko beharra garatu behar da. Hirugarrenik, hiztun eleaniztunek dituzten hizkuntza baliabideak erabiltzera bultzatzeko estrategiak sustatu behar dira. Laugarrenik, hizkuntzekiko kontzientzia eta identitate eleanitzak areagotu behar dira hiztunen bizipenetatik abiatuz. Azkenik, bat-bateko translanguaginga jarduera pedagogikora lotzeko ahalegina egitea ere iradokitzen dute.

Hizkuntza Gutxituen Biltzarrean aipatu zen eskoletako irakasleen artean translanguagingak mesfidantza eta zalantzak sortzen dituela. Gurea bezalako testuinguruetan hizkuntzen arteko alternantzia edo nahasketa gertatzen denean, gehienetan, euskararen kalterako dela sumatzen baitugu: gaztelaniazko edo frantsesezko esamolde, hitz eta esaldiak euskarazko hizketaldietan gailentzen dira. Baina ezin da ukatu translanguaging jasangarriaren proposamenak hizkuntzen ikasketa eta erabilera prozesuak ulertzeko bide berriak irekitzen dizkigula. Iradokitzailleak diren ideia berriak zabaltzen ari den normaltasun eta normalkeria berri baten aurrean.

Tentsioak, aldaketak eta erronkak

Elkarrizketa berean hizkuntzak nahastea oso ohikoa da, hemen eta mundu zabalean. Adriana Patiño ikertzaileak aipatu izan duenez, Kataluniako hiztun berri gazteentzat ere «normal hitz egitea» katalana eta gaztelania nahastea da. Patiñoek Bilboko Biltzarrean parte hartu zuen Charlotte Selleck, Jone Goirigolzarri eta Jone Miren Hernándezekin batera, ‘Gazteak, hizkuntzak eta aldaketa’ izeneko mahai-inguruan. Hiru errealitate zehatzetatik abiatuz (Katalunia, Gales eta Euskal Herria), hizkuntza gutxituen arloan gazteen artean

gertatzen ari diren aldaketan inguruko solasaldi interesgarria suertatu zen.

Ikertzaileek, testuinguru bakoitzeko gazteen hitzetatik abiatuz, hainbat hausnarketa ekarri zituzten. Selleckek, esaterako, azpimarratu zuen halako tentsio bat ageri dela Galesen helduek eskolaren bidez transmititzen dituzten mezuen eta gazteek adierazten dituzten nahien artean. 17 urteko gazte honen hitzekin laburbildu zuen tentsio hori:

Irakasle guztiak arduratzen dira gure galesaren kalitateaz –ez esan hori horrela, ez esan hau honela–, benetan, etengabea da. Utzi lasai guri. Utzi guri hizkuntzarekin bizitzen. Utzi erabiltzen nahi dugun bezala. Gure hizkuntza da, gure etorkizuna.

Beste mota bateko tirabiraz mintzatu zen Patiño. Katalunian egindako ikerketetan nerabeek etorkizunari begira dituzten proiektuen arabera, hizkuntza bati edo beste bati ematen diotela garrantzia ondorioztatu zuen. Baziren lan aukerei begira katalana jakitearen garrantzia seinalatzen zutenak, baina gazte askok ingelesa ondo ikastearen beharra azpimarratzen zuten. Nerabe horietako batek hala adierazi zion:

Nire ustez praktikoa da ingelesez egiten duguna, etorkizunerako ari zarelako, lortuko duzun lanari begira. Hau da, zuk maila on bat eduki behar duzu. Pentsatzen dut ingelesez ikasgaiak egitea etorkizunean egingo dugun horretarako prestatzea dela.

Argi dago, beraz, ingelesa egungo «hizkuntza-ekuazio sozialean» derrigor sartu beharreko faktorea dela, nahiz eta oraindik ez dugun erabat garbi euskara edo katalana moduko hizkuntzetan horrek zer eragin izango duen. Hernándezen ustez garrantzitsua baita hiztun belaunaldi berriak hizkuntza merkatu handi batean hazten ari direla kontuan hartzea, baina ahaztu gabe hizkuntza guztiak ez daudela egoera berean, eta hiztun guztiek ere ez dutela kokapen bera ere.

Ezin jaso hemen Bilboko solasaldi hartan mahaigaineratu ziren hausnarketa guztiak, baina Goirigolzarrik laburpen ederra egin zuen ideia nagusiak jasoz. Batetik, azken hamarkadetan globalizazio indarren norgehiagokan bizi izan

ditugun askotariko aldaketek gazteen bizitzan zein hizkuntza ideologia eta praktiketan eragin sakona izan dutela. Bestetik, hizkuntza gutxituen biziberritzean aurrerapausoak eman nahi baditugu, gizarte testuinguru aldakorra eta gazte kulturak biak ala biak eta elkarreraginean aztertzea komeni zaigula. Izan ere, gazte garaia urrun sumatzen duten hizlariak erronka bat izan zuten hizpide: gazteak beraien errealitatean ezagutzeak dakarren erronka. Hala, gazteekin egon, gazteak ikusi, gazteak entzuteko nahia eta beharra aldarrikatu zuten mahai-inguruko parte-hartzaile guztiek, eta horretarako etnografiak bide emankorra izan dezakeela iradoki zuten.

Tipi-tapa, tipi-tapa, eserita

Hizkuntza Gutxituen Nazioarteko Biltzarra Bilbon egin zela idatzi dut goiko lerroetan, baina ez nago oso ziur hala izan ote zen. Bilbon baino, espazio birtualean garatu baitzen. Normalkeria berrian, ideiak, ikerketak eta hausnarketak trukatzeke modua aldatu da, eta «normal hitz egitea» pantaila bati hitz egitea da. Aldatu zaizkigu hitz egiteko eta elkartzeko formak. Baita aldarrikatzeko eta ospatzeko moduak ere, eta 2021eko lehen hilabete hauetan Korrikaren falta nabaritu dugu. Utzitako hutsunea betetze aldera, AEK-k 80 ekitaldi baino gehiago egin zituen Euskal Herriko txoko anitzetan.

Hondarribian erramu igandeko eguerdiko kanpaien eta rap musikaren arteko nahasketak ekitaldiaren hasiera adierazi zuten, eta Irati Alcantarilla bertsolariak euskara irakaskuntzan ari direnen garrantzia gogorarazi zigun:

Hizkuntza baten ardatza
denez jaso eta pasa
euskaltegiak ematen digu
behar dugun arnasa.

Baina arnastea zailtzen ziguten maskarek eta eserita egon beharrak normalkeriaz ohartarazi gintuzten. Korrika eserita

ospatzea? Oximoron handi samarra dirudi. Izan ere, Teresa del Vallek Korrikaren azterketa sinbolikoa egin zuenean, talde izaerarekin batera ekimen horren beste elementu garrantzitsuena mugimendua zela jaso zuen. Korrika eginez hizkuntzaren izaera dinamikoa azpimarratzen baita: korrika ez da geratzen, lekukoa herriz herri dabil, eskuz esku, bidea eginez. Hala ere, pazientzia eta irudimena ez zaigunez falta, Hondarribiko ekitaldia indarrez bete zuten The iiingles musika taldeko neskek erakutsi ziguten eserita ere dantza egin daitekeela: «Denak gaude eserita, baina gerritik gora dantza egin dezakezue!».

Gazteak normaltasuna eta normalkeria apurtzen. Aurten goa geldione txiki bat besterik ez dela izan eta, Ibil Bedi taldeak abesten duen bezala, sasoi berria datorrela gogoratu:

«Hitza hitz» dio zeruko pintada handiak,
hastear da ikastear dugun garai berria. 🎵



Zeruko begiak

Jainkoak omen ziren, garai batean, zerutik begiratzen gintuztenak. Goiko Jaunak, alegia, *Jaun-goiko*-ak. Antzinako Grezian, adibidez, Olinpo mendiko gailurrean zegoen jainko eta jainkosen begiratokia. Hortxe zeuden ikusle pribilegiatuak, gure istripuak, ezbeharrak, zorizko gertaerak eta ustekabeak adi jarraitzeko prest. Batzuetan, espektakulu horretan parte ere hartzen zuten, gizakioi lagunduz edo trabak jarriz, egunaren eta umorearen arabera. Nola hunkitu, beraz, gure alde izateko? Zer egin zitekeen jainkoen babesari lortzeko? Besteak beste, sakrifizioak eskaini, abereak hil, abestu, erregutu edo haien izenean jaiak ospatu. Eta, ondoren, itxaron, jainkoen nahiak deszifratzea ez baitzen kontu erraza: ezjakintasuna eta ziurgabetasuna nagusi. Baina, behintzat, posible zen haiengana zuzentzea, zori eske kantatzea.

XXI. mendean zeruko begi horiek bikoiztu, hirukoiztu eta lauukoiztu egin dira. Begi hipermodernoek planetaren orbita osoa zeharkatzen dute, lurretik 200 eta 2.000 km-ra. Zein labur gelditu diren Greziako mendirik altuenaren 2.919 metroak! Baina zein begi dira horiek? Antropomorfitatu gabeko begi teknologikoak, gure gainean jirabira ari diren satelite espazialak. Ezin zaie oraingoan erregurik zuzendu, baina, jainkoak bailiran, euren begirada zurruna gugan jarrita daukate etengabe. Ez dute sekula lorik hartzen.

Ez dut, hala ere, lehengo begien itzulera aldarrikatu nahi, ez daukat antzinako jainkoen nostalgiarik. Garai bakoitzak bere argiak eta bere itzalak dauzka, eta, gurean, zeruko begiak aldatzea suertatu da. Noiztik? Nola? Zer dakar horrek?

1957an espaziora lehen satelite artifiziala bidali zuten: sobietar *Sputnik*-a. Geroztik, sateliteen kopuruak gora egin du etengabe. NASAk, esate baterako, prest dauka belaunaldi berriko *James Webb* teleskopioa, aurtengo urrian botatzeko asmoz. Baina *James Webb*-ek ez du *Sputnik*-en bakardade kosmologikoa ezagutuko: 60ko hamarkadan espazioaren ikerketa hasi zenetik, era guztietako *begigailuak* jaurti dira zerura. *James* horiekin guztiekin elkartuko da: martxan daudenekin, eta funtzionatzeari utzi diotenekin ere bai. Azken batean, hantxe dago sateliteen hilerria, urtez urte bidalitako eskeleto kosmikoak, zabor espazial bihurtuta. Egunen batean *James* bera ere hilko da, eta geure buruaren gainean biraka dabilen zabor espaziala baino ez da izango. Azken urteetan espazioa zabortegei handi bat bilakatzen ari da, ikusezina bazaigu ere.

Zaborrak begiratzen al gaitu?

Zeruko zabor pilaketari konponbide bat emateko, Kanpoko Espazioa Kudeatzeko Bulegoa (UNOOSA) sortu du Nazio Batuen Erakundeak, *Clean Space* deituriko programa martxan jarritz. Nola da posible? *Sputnik*-a jaurti zutenean inor ez zen satelitearen etorkizunaz arduratu. Geroztik 5.000 jaurtiketa baino gehiago egin dira, eta 23.000 objektu berri daude atmosferatik kanpo. Arduragabekeria horren ondorioak 60 urte pasatu eta gero hasi gara jasaten: kontrolik eta neurririk gabe unibertsoa bidalitako gailu mordoak hondakindegia hegalari bat sortu du. Itzalitako eta ahaztutako satelite zaharren eta suziriaren zatiak deskonposatzen doaz, eta geure buruen gainean dantzan dabilen txatar espaziala lurrera erortzen da berriro ere. Atmosferan sartu orduko, zatiak desintegratu egiten dira gehienetan, baina badira erortzen direnak: 2015ean, adibidez, beirazko bolak jausi ziren Murtziara. Beirazko euria! Non eros daiteke aterki kosmikoa? Irudi nahiko apokaliptikoa, egia esan. Baina, adituen arabera,

txatar horren arazo nagusia, lurreen baino, espazioan bertan dago, eragindako istripuengatik. Istripuek sateliteak puskatzen dituzte eta, egun, milimetro baten neurriko 170 milioi satelite zatitxo dabilta bueltaka.

Astronauten misioen amaiera izango al da? Asmoak, inondik ere, kontrakoa dirudi, Martera bidalitako *Perseverance* gailuak erakutsi bezala. Espazioaren garbiketa, beraz, ezinbestekoa zaie, eta horretarako espazioa legeztatzea du helburu NBek. Izan ere, Kanpoko Espazioaren Erabilera Baketsuaren Komitea sortu du. Komite horrek ez dauka, momentuz behintzat, indar juridikorik: aholkuak baino ez ditu ematen. Zein dira gomendio nagusiak? Besteak beste, GEO eremua erabiltzea (planetatik 36.000 kilometrora dagoen gunea) LEO eremuan (planetatik 200 eta 2.000 kilometroko tartean) gehiegizko trafikoa murrizteko. GEOra heltzeko, tamalez, sateliteek erregai gehiago kontsumitu behar dute, garestiago da *auzo kosmiko* horretara sateliteak jaurtitzea. Unibertsoan ere auzo pobreak eta aberatsak ote daude?

Dena den, arazoa konpondu beharrean, atzeratu baino ez du egiten gomendio horrek. Lehenago edo beranduago, akaso ehun urte barru, sateliteak lurrera eroriko dira, berdin-berdin. Gure lobei ondare hori utziko al diegu? Hondakin hipermodernoeak 3.000 urteko biziraupena daukate. Zer esango dute etorkizuneko belaunaldiek gure zibilizazioari buruz? Guri, behintzat, antzinako Greziako edo Erromako artea heldu zitzaigun, ez haien zaborra. Zabor espazialaren begiradak lotsa eragin dezake gudan?

NBEri, momentuz behintzat, ez zaio kasu handirik egingo, emandako gomendioek irabazi batzuk gutxitzea edota inbertsioa handiagotzea eskatzen baitute. Amazon, Being edo Space X moduko enpresa erraldoiek ez diete berehalako irabaziei uko egin nahi. Azkenaldian LEO eremura milaka satelitez osaturiko megakonstelazioak jaurti dituzte aipatutako enpresa horiek, eta gehiago botatzeko asmo irmoa daukate. Espaziorik gabe geratuko gara espazioan?

Begi lokalizatzaileak eta trazabilitatea

Badirudi, beraz, ez dagoela espazioaren erabilera aldatzeko asmo handirik. Interneten egungo aplikazio gehienek sateliteen bidez funtzionatzen dute, eta aipatutako enpresek zerutik banda zabala hedatzea edo bezeroek eskatutako merkantzien etengabeko jarraipena egitea dute helburu. ‘Trazabilitatea’ egungo kontzeptu nagusi bihurtu zaigu; izan paketeak, garbantzuko poteak edo pertsonak. Ezin gara galduta eta jarraitu egiten gaituzte; izugarria dugu minisatelite geolokalizatzaileen negozioa.

Zeruko erabateko jarraipenaren hasierako urratsak 2005ean egin ziren, Google Earth aplikazioa dela-eta: satelite bidezko kartografia. Aplikazioak ikusgarri bilakatzen ditu lurreko bazter guztiak, argazki kontaezinen bitartez planetaren mapaketa osoa eginez. Kartografia horren jatorria armadan dago. Google Earthen aitzindaria, Earth Viewer 3D programa, Keyhole konpainiak sortu zuen: Amerikako Estatu Batuetako Defentsa Ministerioaren finantziazioarekin eta CIAren esku utzita. 2004an, programa hori Googlek erosi zuen, Google Maps, Google Street View, Marble edo GPS moduko aplikazioak komertzializatuz. Egun, gure mugikorretako eta ordenagailuetako ohiko aplikazioak dira, baina erabilera militarretik erabilera komertzialera igaro dira, beste askotan gertatu bezala. Zer pentsa ematen du horrek: ikuspegi belikoa ote da gure eguneroko bizitzaren metafora nagusia?

GPSa (*Global Position System*), adibidez, Gerra Hotzean pertsonen edo objektuen posizioa kontrolatzeko teknika gisa jaio zen, baina 2000ko maiatzean Bill Clinton presidenteak erabilera gizarteratzea eta komertzializatzea onartu zuen. Egun, ia ezinbesteko gailu bihurtu zaigu, bidean denborarik galdu gabe edonora heltzeko. *Time is money*. Zoria eta ustekabea existentziazatik erabat alboratu nahi ditugu, ibilbidea optimizatu eta bizitzaren kudeaketa digital eraginkorra bideratu. *Nola heldu naiteke herriko plazara? Ba al dakizu non dagoen San Bartolome kalea?...* Horrelako galderak

gero eta gutxiago entzuten dira. Pentsaezina ematen du bidean galtzeak, eta, norbaiti galdetu beharrean, pantailarekin harremanetan bizi gara: gailuak agintzen du, robot digitalaren esanak mekanikoki jarraitu baino ez ditugu egin behar.

Hala ere, bitxikeriak suertatzen dira. 2012an, adibidez, kotxea Australiako Ozeano Barean sartu zuten hiru turista japoniarrek. GPSaren jarraibideak bete baino ez zituela egin esan zuen Yuzu Nodak, 21 urteko gidariak. Ez da horrelako istripu bakarra izan; gero eta gehiago gertatzen dira, gidaritza makinaren esku erabat uzteagatik. Nor da, orduan, benetako robota? Egia da GPSak abantailak dauzkala, noski. Askotan erabili dut ez galtzeko. Ez dakidana da, biderik zuzenena hartzerakoan, bidean beste zeozer ez ote dudan galdu.

Galderak galdera, GPSak orientatzen gaitu, baina sistemak ez du bere begirada gure gainetik kentzen. Agian ez dugu hori ikusi nahi, gure onerako omen delako... Kontrol digitala, adibidez, miresmen handiz ikusi zen Asiako herrialde batzuek 2020ko koronabirusaren osasun krisiaren aurrean egindako kudeaketan. Korean, *Korona-app* aplikazioaren bidez, mugikorrak abisua ematen zizun bisitatzeraz zindoazen tokian kutsatutako norbait egonez gero. Segurtasunaren izenean dena justifikagarria al da? Beldurraren politikarekin adi egon behar dugula uste dut: datuen babesaren inguruko kontzientzia kritikorik ez baldin badaukagu, telefono mugikorretako konpainiek, Interneteko enpresek eta gobernuek edozein datu trukaketa egingo dute. Baliteke hemendik aurrera biopolitika digital berri baten menpe bizitzea eta giza eskubide batzuk kolokan jartzea. Agian ez gara gaixotuko, agian ez gara galduko, baina intimitatea eta elkarbizitza erabat pobretuko ditugu.

Begirada hiltzaileak

Nola bizi eta sortu daitezke harreman komunitarioak egoera paranoiko horretan? Susmopean ote gaude denok begirada askotarikoen menpe? Badira begirada gidariak, jagoleak,

zelatariak. Eta badira begirada hiltzaileak ere. Metaforarik gabeko hiltzaileak. Zer ote dira, bestela, gudarako droneak? Espiatzeko, informazioa bidaltzeko eta tiroka hasteko prest dauden begiak. Gorputza alde batera utzita, begirada soilik garraiatzen dute, piloturik gabeko hegazkinen gerra garaian. Horrela aritu ziren Amerikako Estatu Batuetako pilotuak Afganistango edo Pakistango mendietan, Nevadako base militarretik drone bideo joko hiltzaileak gidatuz, Asiatik 12.000 kilometrora. Horrela suertatu zen Bin Ladenen ehiza, *death stare* deiturikoa.

Drone gudarien begiek, Google Street View aplikazioaren antzera, 360 graduko perspektiba arakatu dezakete. Gailuak hamaika mikrokameraz hornituta daude eta irudi sinopikoak eskuratzen dituzte: ikuspuntu guztien osotasuna irudi biribil bakarrean. Intsektu batzuen begiek, antza, ahalmen hori daukate. Eta, ezaugarri hori hartuta, gailuei *drone* izena jarri diete: erlastarra, ingelesez. Armadak gidatuta, zerua zeharkatu eta edozein gunetara sar daitezke begi biribilak.

Predator izan zen Amerikako Estatu Batuetako armadaren lehen begi armatua, 1995ean jaioa. Egun, droneen bi tropa boteretsu osatu dituzte, *Argos Panoptes* eta *Gorgon Stare* deiturikoak. Kurioso da droneak mitologiako pertsonaien izenekin bataiatu izana. Ez al lituzkete hizkien eta zenbakien bidez izendatu beharko? Adibidez, RXP 332 edo HBK 221. Bai eta ez, esango nuke; agian horrekin ez litzateke nahikoa izango. Puntako teknologiak fantasia mitologiko ahalguztidunen kondairekin elikatzen dira. Horixe izan daiteke Argos eta Gorgona izenek erakusten digutena, jainko ahalguztidunak izateko nahia. Droneek jainko *voyeur* eta mendekatzailaren balak botatzen dituzte.


Ezkutalekuen bila

Zabor espazialaz gain, zeruko hamaika begi aipatu ditugu: teleskopioak, satellite geolokalizatzaileak, drone hegalariaik.

Goitik begirutzen eta jarraitzen gaituzte, kotxeak, paketeak edo pertsonak izan. Ezkutalekuak topatzea ez da batere lan erraza.

Begirada orotatik ezkutatzeko ikerketak bultzatzen dituzte Estatu Defentsa Nazionalako Ministerioek. Berkeleyko Unibertsitatean, adibidez, Xiang Zhang irakasleak ikusezin bihurtzeko mozorroa diseinatu du, metamaterialak ikertuz. Material horiek argiaren isla desbideratzeko ezaugarri elektromagnetikoekin eginda daude, eta tankeen kamuflajerako erabiltzen dituzte. Kamuflaje garestiak, armadaren ezkutalekuak, logika belikoari so. Ez du ematen, beraz, metamaterialak herritarren ezkutalekuak izan daitezkeenik. Bestelakoak asmatu beharko! Horretarako, artea lagun. Renaud Auguste-Dormeuil artista frantsesak, adibidez, *Txirrindulari ikusezina* artelana sortu zuen 2001ean. Eskultura horretan, bizikleta berezi batek akordeoi formadun panelak jarrita dauzka goiko partean, ispiluekin estalita. Zerutik begiratuko bagenu, lurraren irudia bueltan ikusiko genuke, txirrindularia ikusezin bilakatuz. Begiradatik kanpoko ibilgailu ekologikoa! *Goiko Jaunak* eta *Goiko Indar Boteretsuak* salatzen eskultura bikaina. Azken finean, jainkoena edo sateliteena izan, beldurgarria da norberaren gaineko etengabeko begirada zurruna.

Gizakiok, herritar arruntok, behetik gora begiratu ohi dugu, eta ez goitik behera. Harremanetan oso bestelakoak dira elkar zaintza edo kontrola, baina konturatu gabe muga hori pasa dezakegu. Landu eta zaindu beharreko kontua da elkar zaintza, denok susmagarri bihurtu beharrik gabe. 🌱



 euskadi
irratia
gertu

JAKIN 2020

Jakin 236

AMURIZA, Miren: *Xabier Amurizari elkarrizketa*

RUBIO, Miren: *H. Cano, E. Rodriguez eta K. Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz Egunen gurpilean*: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 237-238: Joxe Azurmendi. Pentsamenduaren ur-jauzia

ZULAIKA, Joseba: *Arbola beltzaren poema: Azurmendi, euskal mende hautsiaren lekuko*

ESKISABEL, Idurre: *Feminismotik naziogintzara hurbilketa bat Azurmendi bidelagun*

APODAKA, Eduardo: *Mamu, momia eta zonbiak. Bizi osteko biziak*

SARRIONANDIA, Joseba: *Azurmendiren inguruko sei-zazpi ideia eta galdera*

OLARIAGA, Andoni: *Nola pentsatu etika orain eta hemen?*

CUGNO, Agnès: *Indarkeria eta identitate politikoa*

SOTO, Iñaki: *Don't Think of 'Foro de Ermua'*

CASADO, Antonio: *Pentsamenduaren marruskadura: etika eta praktika komunitateak*

NEREKAN, Maitane; YARZA, Itsaslore: *Heriotzarekin bizitzen ikastea*

ZAPIAIN, Markos: *Bizitzaren zentzuaz*

ETXEBERRIA, Arantza; PZ. IGLESIAS, J. Ignacio: *Gizaberea, eboluzioa eta kooperazioa*

URDANGARIN, Mikel: *Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa*

EIZAGIRRE, Andoni: *Pertsona burujabea Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean*

AZKARATE, Miren: *Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki*

MARTINEZ, Elena: *Hizkera filosofikoa hizkuntza gutxiagotu baten testuinguruan*

GARMENDIA, Elixabete: *Zegamatik Arantzazura, pentsalariaren lehen paisaiak*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 239: Pandemiak, distopiak eta mundu berriak

ZUBIAGA, Mario: *Politika biluzik birusaren garaian*

ETXEBERRIA, Arantza: *Mikro-bioa, gaitza eta natura*

AZKARRAGA ETXAGIBEL, Joseba: *Ekodistopia prospektiban, EHkopia perspektiban*

ZUBIA, Irati: *Egia-ostea ziurgabetasun garaian*

GABILONDO, Joseba: *Pandemiaren arrazoiaz: konspirazioa, paranoia eta negazionismoa*

CANO, Harkaitz: *Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 240: Torrealдай: euskara herri

AGIRRE, Lorea: *Maratoia korritzera atera gara. Joan Mari Torrealдай Joseba Intxausti,*

Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategiren bihotz-begietan

ANAUT, Dabid: *Torrealдай: izena eta izana, euskalgintzari emana*

ARRULA, Garazi: *Zerrendero batekin solasean*

MURUA URIA, Imanol: *Torrealдай eta prentsa*

OTAEGLI, Lourdes: *Torrealдай, euskal liburuaren zentsuraren aztertzaile*

JUANENA, Agurtzane: *Biblioteka Nazionalaren ametsa XXI. mendean*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 241: Euskal kultura 2020

AGIRRE, Katixa: *Hekatonbearen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna*

BARANDIARAN, Alberto: *Sortuz ta sortuz bizitzen gera*

OSA, Olatz: *Ezpatat dantzatik soka dantzara*

LANDABIDEA, Xabier: *2020ko Durangoko Azoka Immateriala*

FANO, Dani; EIBAR, Eider; JOSEVISKY; UNANUA, Nerea: *Kulturaren urtea marrazkitan*

UGARTE, Itziar: *Pandemiaren urtea kulturgintzan. Edurne Azkarate, Igor Elortza,*

Xabier Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez

EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2018*

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzscheren pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertitate eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogo da (Nire aitorten filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatua*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 AIESTARAN, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *Ia guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristotelesen Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENSÂÏD: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wangermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



JAKINKIDE TXARTELA

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonoa

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia


Kontuaren jabea



Jakin • *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

